

Lankidetu!

**APROBATUTAKO
PONENTZIA
ETA EBAZPENAK**

urtarrilak 23-24 de enero
2013. KONGRESUA

ELA

PONENTZIA

XIII. KONGRESSU KONFEDERALA

SARRERA	7
A. KRISI EKONOMIKO, SOZIAL, DEMOKRATIKO ETA INGURUMENEKOA	11
1. Krisiaren ezaugarriak.....	11
2. “Europar proiektuaren” diagnostiko zuzena egin genuen	12
3. Espainia: uniformetasuna eskubide sozialen eta laboralen murrizketan	13
4. Aberastasunaren eta enpleguaren bilakaerak agerian uzten ditu eragileak.....	14
5. Hala eta guztiz ere, elkarriketa sozialaren fikzioak hor jarraitzen du.....	22
6. Babes soziala, murrizten; erantzule nagusia, zerga-politika.....	23
7. Hauteskunde-mapa berriak ez du alternatibarik ekarri	26
8. Rajoyk ez ezik euskal administrazioek ere murrizketa gogorak egiten dituzte	28
9. Badago irtenbiderik	29
10. Mobilizazioaren premia	30
11. Bestelako ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-eredu bat.....	31
B. AUKERA BERRIAK EUSKAL NAZIOAREN ERAIKUNTZAN	33
1. Areagotzen ari da Espainiako estatuaren joera zentralista eta uniformizatzaila	33
2. Estatuak ez dio ekin nahi normalizazio politikoko prozesuari.....	36
3. Eskubideen urraketa; adostasun eza gai larrietan.....	37
4. Gero eta onespren eskasagoa du Espainiako Trantsizioaren ondorengo sistemak	38
5. Euskal abertzaletasunaren hegemonia izateko norgehiagoka	39
6. Homologazio instituzionala, alor sozialaren gainetik	40
7. Aukera berriak Iparraldeak aitortza instituzionala izan dezan	41
8. Bada garaia demokraziaren eta giza eskubideen alorreko gabeziak gairatzeko.....	42
9. Erabateko burujabetzan aurrera egiteko garai egokia	43
10. Burujabetzaren alde egitea euskal gehiengo sindikalaren alde egitea ere bada	46
C. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN LEHENA ETA ORAINA	47
1. Negoziazioa “krisia” baino askoz lehenagotik zegoen krisian	47
2. Araudi-erreforma, lan-harremanen iragana eta orainaren arteko muga	48
3. Ez dago alderik patronal batetik bestera.....	49
4. Toki gehiagotara, eta hobeto, iristea	50
5. Informazioaren premia eta langile-batzarren indarra	51
6. Prozesu iraunkorra, antolakuntza-lanari lotua eta inprobisazioaren mende utzi behar ez dena	51
7. Zenbait jarraibide negoziazio kolektiboa antolatzeke	52
8. Aldarrikapenak eta hitzarmenen aplikazioa	54
9. Erreformaren aplikazioaren aurka.....	54
10. Eskakizunak	55
11. Aliantzak eratu.....	56
12. Bulego ekonomikoa eta negoziazio kolektibokoa	57

D. MILITANTZIA INPLIKATUAGOA, ANTOLAKUNTZA-ALDAKETETARAKO PRESTATUA	59
1. Lehenetasuna, antolakuntza	59
2. Balioetsi dezagun egiten duguna	59
3. Antolakuntzari buruzko testa, etorkizuneko egokitzapenen atari.....	60
4. Afiliazio- eta ordezkari-maila areagotu	61
5. Lidergo partekatuak sendotu.....	62
6. Eskualde integralaren alde, are irmoago	63
7. Federazioak eta sindikalizatu beharreko sektoreak.....	64
8. Lanaren eta bileren kalitatea hobetu beharra	65
9. Hiru jarduerak: sindikalizatu, egituratu eta mobilizatu	66
E. ARLO ETA ZERBITZU KONFEDERALETATIK, ERAKUNDEA INDARTU.....	71
1. Prestakuntza	71
2. Zerbitzu juridikoak	72
3. Immigrazioa	72
4. Laneko osasuna	73
5. Genero-berdintasuneko politiken arloa	74
6. Euskara	74
7. Prentsa eta argitalpenak	75
8. Gazteak	76
9. Langabeak.....	76
10. Nazioarteko arloa	77
11. Ingurumena	78



SARRERA

Aurrekoetan baino testu nabarmen laburragoa hautatu du ELAko Batzorde Nazionalak oraingoan, Kongresuak eztabaidatu behar duen txostena jorratu ostean. Horren helburua da testua errazago irakurtzea jendeak, eta militante gehiagorekin eztabaidatzea sindikatuaren programa.

Ahalegin handia egin da txostena batez ere ekintza-programa izan dadin, eta ezinbestekotzat jotzen diren diagnostiko- eta ikuskapen-elementuak bakarrik aipatu dira. Honenbestez, txostengileek jotzen dute biltzarkideek irakurriak dituztela kongresu arteko aurreko epean konfederazioak argitaratutako ebazpen, posizionamendu, agiri, azterlan eta gainerako guztiak.

Kongresu bakoitzean, txostenak ezartzen ditu gure konfederazio sindikalaren jarduera-lerro nagusiak, barrukoak eta kanpokoak. Hortaz, ezinbesteko eginkizun praktikoa du testuak: sindikatuaren jardun orokorra gidatzea hurrengo lau urteotan.

Eginkizun praktikoa hori dela eta, eguneratu egin behar izaten dugu, abagune historiko bakoitzean, gure konfederazio sindikalaren -abertzalea, klase-ikuspegikoa- jarduera. Hala, bada, kongresuko goiburuak -"Lankidetu!"- txostenaren norabidea ere erakusten digu. ELAren iritziz, "sindikatu ahaltsuagoa", konpromiso militante handiagoa, militanteen atxikimendu estuagoa behar ditugu egoera ekonomiko eta sozial beldurgarri honi aurre egiteko eta, hartara, langileen interesen aldeko erantzun solidarioa antolatzeke.

XII. Kongresu Konfederalak, 2008ko azarokoak, egina zuen dagoeneko finantza- eta ekonomia-krisiaren diagnostiko labur bat. Izan ere, kongresu hartarako txostena idatzi zen hilabete haietan ari zen agertzen krisia. Testuinguru hartan, hiru ideia nagusi azpimarratu zituen Kongresuak, eta indarrean dira hiruak, gure iritzian: krisia sistemak berak sortua da, eta demokraziaren krisia ere bada; politikaren mende egon behar du ekonomiak, eta politikak, berriz, herritar gehienen zerbitzura; azkenik, bestelako sindikalismo bat egin daiteke. Hala da, gure afana da bizimodu duinarekin lotutako kontu guztiei buruzko erabaki nagusietan protagonista gizartea izatea, ez soilik elite politikoak, eta are gutxiago ekonomikoak.

Kongresu hura egin eta handik hilabete gutxira, 2009ko maiatzean, euskal gehiengo sindikalak greba orokorra deitu zuen. Krisiaren hasieratik (2007) egin diren bost greba-deialdietatik lehena izan zen, eta ideia hau zuen ardatz: "Politikak ez badira aldatzen, murrizketak etorriko dira". Eta horixe gertatu da, zoritxarrez.

Horregatik, gehiengo sindikalaren sustapenak bi helburu nagusi hauek ditu: batetik, galaraztea Euskal Herriko lan-harremanen sistema Espainiako eremuaren azpisistema bihurtzea; bestetik, eredu sindikal erreibindikatzaila, kontraboterekoa, eratzea, austeritate-politikak eta erreformak onartzen ez dituen, alegia. Bat zetozen

bi helburu horiek orduko testuinguruarekin (krisia...) eta gutxiengo sindikalarekin Lopezen gobernuak abiarazitako elkarrizketa sozialarekin.

Testuinguru horretan, hiru bide jorratzen saiatu da ELA: lehenik eta behin, negoziazio kolektiboa indartzen. Izan ere, Zapateroren araudi-erreformaren helburua zen sindikatuak ahultzea hitzarmenen negoziazioan, eta UGTri eta CCOOi ematea negoziazioaren monopolioa, zentralizazioaren bidez eta estatu osoko hitzarmen kolektiboei lehentasuna eskainiz. Rajoyren erreformak, berriz, soldatak arras murriztea du helburu, herritarren pobretze orokorraren kontura kapitalismoaren metatze-fase berri bat bultzatzeko. ELAren iritziz, bistakoa da etorkizun hurbilean ez dela izango lan-kondizio duinik, egokiro sindikalizatutako enpresa, lantoki, sektore eta azpisektoreetan izan ezik, hau da, langile afiliatuak, mobilizatzeko prest daudenak, kontzientziatuak, atal sindikal eratuak eta bete-betean lanean dihardutenak dituzten lantegietan izan ezik. Beste hitz batzuekin esanda: erreforma horren ondorio makurrak murrizteko edo galarazteko, gai izan behar dugu eraso orokorrari oinarri-oinarrian erantzuteko. Horretarako, areagotu egin behar ditugu botere sindikalaren baliabideak: oinarrian antolatzea, errebindikazio-agenda, aliantzak..., eta erantzun horri ekiteko sindikatuak dituen militante eta baliabide materialak.

Bigarrenik, gizarte-ereduari buruzko mobilizazio sozial zabala sustatzen saiatu da ELA. Izan ere, eskubide sozialek, zerbitzu publikoen kalitateak (osasunarenak, hezkuntzarenak, gizarte-zerbitzuenak...) zuzeneko eragina dute herritarren bizikaltatean. Murrizketa, politikak, ordea, horri guztiari erasoka ari dira, eta zerga-politika dute ardatzetako bat. Hazkuntza-garaietan, zerga-paradisua sortzeko erabili izan dira Kontzertua eta Hitzarmen Ekonomikoa (Hego Euskal Herriko zerga-autonomiaren erregimenak), eta horretarako erabiltzen dira egun ere. Beraz, lehentasuna izan du (eta du) sindikatuak gizartea kontzientziatzea zerga- eta aurrekontu-politiken gainean.

Hirugarrenik, noski, aliantza-politika aipatu beharrean gaude. Testuingurua, labur esanda, hauxe dugu: alderdi politikoak, gainbehera; erakunde publiko nagusiak, printzipio neoliberalen aginduetara lanean; Espainiako estatuko sindikatu nagusiak, erreforma- eta murrizketa-politika babesteko prest, elkarrizketa sozialaren aitzakiapean eta finantziario publiko eskuzabalaren truke. Gure aliantza-politikak, hortaz, bi fase oso desberdin izan ditu kongresu arteko aldirian, legez kanpo zegoen sektore politikoa erakunde publikoetara iritsi izanak krisia eragin baitu gehiengo sindikalaren jardunean.

ELAren iritzian, printzipio absolutua da sindikalismoa ez makurtzea botere instituzionalen eta alderdi politikoaren aurrean. Printzipio horrek, bestalde, irizpide politiko eta intelektual hau dakar berekin: edukien arabera juzkatu behar dira, soil-soilik, hitzarmenak eta politikak, ez hauen sinatzaileen edo bultzatzaileen arabera. ELAren ustez, klase-konpromiso hori da gure erakundeak eraikuntza nazionalako prozesuari egiten dion ekarpenik behinena. Elkartasun eta justizia sozialeko elementuak nahitaez bereganatu behar ditu, izan ere, prozesu horrek, are gehiago gizartearen eta herri xehearren gehiengo bere alde izan nahi badu. Politikarekiko dialektika horretan, ELAren helburua hau da: onartzea, erakunde politikoek, gure autonomia, baita politikan eragiteko gure borondatea ere. Baina eragin politikoa eta sindikala izateko gure asmo horrek ez du inongo loturarik alderdien arteko hauteskundeetako lehiarekin.

Hiru lan-ildo horiek sakontzen saiatuko gara, bada, txosten honetan, eta beste bi gehituko dizkiogu: nazio-eraikuntza demokratikoaren gaia eta antolakuntza (ezinbesteko tresna lan hori guztia aurrera emateko). Gure mendeurreneko (2011) Deklarazioan gogoratu genuenez, “sortu eta handik ehun urtera, ELAk dio sindikatua dela bitartekorik nagusi eta eraginkorra langileen bizi- eta lan-kondizio hobeko batzuen alde borrokatzeko eta gizarte bidezkoago baterantz aurrera egiteko”. Horretarako, ordea, sustrai sendoak behar dira lantegietan, militantzia eta afiliazioa oinarri direla. Horregatik, “ELAk, legitimotasuna oinarrian bilatze horretan, bere konpromiso demokratikoa ere berretsi egiten du, eta afiliatuen partaidetza gero eta handiago sustatzen du konfederazioaren programa, proposamen eta ekintzen gaineko eztabaida eta erabakietan, baita konfederazioaren erakunde profesionaletan eta lurraldekakoetan ere.

Horri buruz, hain zuzen ere, eztabaidatu eta erabaki behar du XIII. Kongresu honek ere. “Lankidetu!” du goiburua Kongresuak, eta horixe da gure egitekoa ere: lankide gehiago, militante gehiago biltzea gure proiektu sindikalera, horrek erakutsiko baitu biltzar honen arrakasta.



KRISI EKONOMIKO, SOZIAL, DEMOKRATIKO ETA INGURUMENEKOA

1. Krisiaren ezaugarriak

Gure mendeurrenako deklarazioak zioenez, sistema kapitalista eta patriarkalak, “zeinak berehalako etekin pribatua baitu oinarri, arau bihurtzen du langileen esplotazioa, herrien zapalkuntza eta munduko bizitzaren eta ondasunen suntsipena”. Eredu ekonomiko eta sozial hori ez da gauza guztioi bizimodu duina eskaintzeko, eta aurrekaririk gabeko krisi sistemiko bat eragin du, zeinak baliabideen banaketari eta ekonomia errealari ez ezik, politikari eta demokraziari ere eragiten baitie.

Mundu mailan, uko egin zaio aginte-eredua aldatzeari, eta atzera ere egin da zenbait alorretan (klima-aldaketan, adibidez). Orain arte, bazegoen halako araudi bat, eta, inondik ere nahikoa ez zen arren, oso halako exijentzia-maila bat ezartzen zien gobernuei. Arautzea areagotu beharrean, ordea, borondatezko hitzarmenak bultzatu dira, eta lehengo exijentzia orokor haiek ere ez dira eskatzen egun. Beraz, eskuak libre ditu kapitalak.

Gainera, bizi garen antolaketa sozial eta ekonomikoaren sisteman krisi larri bat dago, zaintzaren krisia. “Publiko” dena (merkatuak, produktiboa dena, botere publikoak, soldatapeko lana...) eta “pribatu” dena (sare sozialak, familia-taldeak, ugalketa, zaintza lanak...) bereizteak sistemaren egitura baino ez du lehenesten, eta jendarteko hainbat kolektibo ikusezin izatera eta baztertuta egotera zigortzen ditu. Honi dagokionez aipamen berezia zor zaie emakumeei, biztanleriaren erdiari, eurak hartzen baitute gehienetan lan erreproduktiboaren eta zaintzaren ardura.

Gezurra da, honenbestez, ezartzen ari zaizkigun irtenbidea. Ez da, egiazki, irtenbide bat. Horrez gain, bidegabera ere bada, alde batera uzten baititu krisi honen zergatiak, eta are gehiago ari da hondatzen ekonomia, gizartea, ingurumena eta demokrazia, gutxiengo baten mesedetan betiere.

Duela lau urte, politika aldatzeko premia -generikoa- izan zen diskurtso nagusia, hilabete batzuez bederen. Bistakoa zen, noski, krisiaren zergatiak politika neoliberalak eta antisozialak zirela, banku- eta finantza-espekulazioa, desberdintasunen areagotzea eta demokraziaren hondamena. Alabaina, diskurtso hutsal haren ondoren, okerrera egin zuten krisia eragin zuten politika berberak.

Krisi hau ere politikoa da, batetik oligarkizazioaren eta demokraziari egiten zaion erasoaren fenomeno berezia medio, eta bestetik, klase politikoak bere ardurak

baztertu egin dituelako, eliteen interesak lehenetsita, hauteskunde-programen, herritarren interesen eta abarren gainetik. Eraso horren eragile ditugu enpresak, multinazionalak, bankuak, pentsio-funtsak, kalifikazio-agentziak eta espekulatzailerak, ohiko botereak, hedabide nagusiak eta alderdi politikoen finantziazioa. Horrenbestez, sakrifizioa beste irtenbiderik ez duela sinetsarazten zaio gizartearen gehiengoari.

Beraz, fase honetan, demokraziaren eta oligarkiaren arteko lehia hori ere nabarmendu behar dugu gure azterketan, aberastasuna banatzeko eta bestelako ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-eredu baten aldeko borroka gain. Borroka luzea izango da, langile-mugimenduaren historiarena bezain luzea. Gogora dezagun berekin eraman dituela langile-mugimenduak, hasieratik, demokrazia, elkartasuna, gizalegea eta antzeko balioak, halabeharrak eta konbentzimenduak bultzatuta. Hain zuzen, kezka adierazi beharra daukagu faxismoarekin zerikusia duten joera politikoa eta sozialak sortzeko arriskua dela-eta; joera hauek krisiaz baliu daitezke -izan ere, beste herrialde batzutan hau ari da gertatzen- herritarren etsipena bereganatu eta ekintza zein diskurtso faxistak egiteko. ELAk ordezkaten duen sindikalismoa, klasekoa eta abertzalea, horrelako mugimenduekiko erabat kontra kokatzen da.

2. “Europar proiektuaren” diagnostiko zuzena egin genuen

Europar Batasunaren Itunaren aurkako botoa eskatu zuen ELAk 2005eko urtarrilean. Gure argudio nagusia zen Itunak bedeinkatzen zuen Europaren eraikuntza-prozesu hark berretsi egiten zuela merkatuaren nagusitasuna, langileen eta gizartearen eskubideen gainetik, eta herrien autodeterminazio-eskubideen kontrakoa zela. Aldiz, Itunak ez zuen enpleguari buruzko exijentziarik ezartzen (langabezia-maila edo laneko behin-behinekotasuna), ezta gutxieneko zerga-mailarik edo babes sozialik ere. Aitzitik, mugatu egiten zuen Europar Batasuneko gobernuen defizita edo zor publikoa, eta zigorrak ezartzen zituen ezarritako mugak betetzen ez zituztenentzat.

Lisboako Itunari buruzko proposamen bat ere onartu genuen, aho batez, XII. Kongresu Konfederalean. Handik gutxira sartu zen indarrean Ituna. ELarentzat, beste urrats bat izan zen eraikuntza-prozesu hartan, hots, kapitalaren errenten aldekoa eta herritar gehienek aurkakoa.

Are okerragoa izan da, ordea, azken lau urteotan gertatutakoa: pobretze orokorra eta hondamendi soziala ekarri diete doitze-politikek Europako herriei, datu guztien arabera. Hala eta guztiz ere, norabide horretan urrats gehiago egin dituzte Europar Batasuneko gobernuak, goi-bilkuraz goi-bilera: erabateko lehentasuna ematen diete gastu-murrizketei (gizarte-gastukoei, batez ere), soldatak jaistearen alde egiten dute, lanaren behin-behinekotasuna aldarrikatzen dute, eta dirutza izugarriak ematen dizkiote bankari, diru publikotik betiere.

Baina naturaltasun beldurgarritz mintzo gara guztiok Europako troika berriaz (Nazioarteko Diru Funtsa, Europako Banku Zentrala, Europako Batzordea). Orain urte gutxi, ordea, erabat ezinezkoa irudituko zitzaigukeen Europako doitze-politikak Diru Funtsak gidatzea, erakunde guztiz deslegitimatua baita, mundu osoan hainbat hamarkadaz egin duenagatik. Moneta Batasunak Europako Banku Zentralaren jarduerari ezarritako mugek, bestalde, berretsi egiten dute gure diagnostikoa: Europa kapitalarentzat eta merkatuentzat ari da eraikitzen, ez herrirentzat eta herritarrentzat. Harriztekoa da, eta oso mingarria, EZB politikatik autonomia izatea, bere

lehentasunen artean enplegua eta hazkunde ekonomikoa ez egotea eta estatuen zorra zuzenean erosteko aukerarik ez izatea; honek estatuen finantzaketa garestitu egiten du, banku pribatuen onerako. Beraz, aitzakia bikaina da troika, ezin aproposagoa ezartzen ari diren politikak ezinbesteko bailiran aurkezteko.

ELAren iritziz, ordea, demokraziaren aurkako erasoa da “merkatuak” deritzen horien interesak herrien premien eta erabakien gaintik jartzea. Arpilatzen ari dira, oligarkia ahaltsu eta geroz eta urriago baten aldeko lapurreta bizia egiten. Horregatik ez du onartu ELAk Gobernantza Ekonomikoa, Europar Seiñilekoa delakoa edo Euroari buruzko Ituna, eta halaxe adierazi du Europako Sindikatuen Konfederazioan, politika bidegabe horiek aplikatzen jarraitzeko tresna eta aitzakiatzat baitauzka.

Grezian eta Portugalen gertatutakoak erakusten digu nondik eraman nahi dituzten gainerako estatuak: langabe gehiago, pobrezia handiagoa, eskubide sozial eta laboral gutxiago, demokrazia ahulagoa... eta herritarrak, duela bizpahiru urte pentsaezinak iruditzen zitzaizkigun egoerak pairatzen. Hala ere, bada nahiko diru publiko Greziako bankari emateko, edo Alemaniako enpresei armak erosteko.

Espainiar estatuan ere antzeko zerbaite gertatu da. 2012ko ekainean Eurotaldeak (zeina gobernuetako finantza-ministroek, Europar Batzordeak eta Europako Banku Zentralak osatzen baitute) erabaki zuen espainiar gobernuak 100.000 milioi euro arteko mailegu bat jaso ahal izango zuela, bankuetara bideratzeko. Mailegu hori jasotzearen, espainiar gobernuak hainbat baldintza bete behar du, besteak beste uztailean erabakitako murrizketak (hauek ekarri zuten 2012ko irailaren 26ko greba orokorraren deialdia). Erabaki horien artean nabarmentzekoak dira langabezia-prestazioen jaitsiera, BEZaren igoera, enplegu publikoa murriztea, eta administrazioetako langileen soldata murrizketak. 2013rako aurrekontuek ere antzeko tankera dute, oso murriztaileak baitira, edota egiteko asmoa dagoen pentsioen erreforma berriak ere.

Europa mailako akordioak eta defizit publikoa jaisteko konpromisoak aitzakia bihurtu dira politika era bat egiteko: esku batekin milaka milioi euro ematen zaizkie bankuei, eta bestearekin, berriz, diru hori gizarte-gastutik edo langileen poltsikotik kentzen da.

Urteotan kapitalismoak ez du bere burua berdefinitu, zenbaitek iragarri zuten moduan. Aitzitik, finkatu egin da itxuraz bideragarri den sistema ekonomiko bakarra bailitzan, eta horrek hainbat herri ekonomian eragina du. Halaber, nabarmentzekoa da sozialdemokraziaren baitako alderdiak ez direla kapitalismoaren benetako alternatibak eraikitzeko gauza izan; kapitalismoak xede bakarra du, gutxi batzuren interesak gizon-emakumeen bizitzaren gaintik jartzea. Puntu honetan aipa daiteke latinamerikar herrietan zer ari den gertatzen: sozialismo berri batek kapitalismoari aurre egiten dio, gehiengoaren interesei lehentasuna emanaz, eta ez multinazionalen eta botere ekonomikoen interesei.

3. Espainia: uniformetasuna eskubide sozialen eta laboralen murrizketan

Langileen egoerak nabarmen egin du txarrera Espainiako estatuan azkenaldi honetako politikak direla eta. Murrizketen bideari ekin zion, izan ere, Zapateroren gobernuak. Horren adibide dugu 2010eko maiatzeko dekretutzarra, zeinak, besteak

beste, 2011ko pentsioak izoztea ekarri baitzuen, eta administrazio publikoetako langileen soldata %5 jaistea.

Beste adibide bat honako hau dugu: Hitzarmen Ekonomiko eta Soziala, 2011ko urtarrilean Espainiako gobernuak, CEOEk, CCOOK eta UGTK sinatu zutena. Erretiroadina 67 urtera arte atzeratzea ekarri zuen Hitzarmen hark, eta, hainbat bide erabiliz, pentsio berriak nabarmen jaistea. 2011ko urtarrilaren 27ko greba orokorra izan zen gure erantzuna. %30 inguruko jaitsiera ekarriko die pentsioei araudi berriak, indarrean jartzean. Baina ez dira hor amaitzen kontuak. Gerora ere murrizketa gehiago egin behar direla, "automatikoki" gainera, dio Hitzarmenak, eta hala jaso zuen legeak. Hori eskatu zuen, beste zenbait murrizketaren artean, Europako Batzordeak 2012ko maiatzaren amaieran.

2011ko abuztuan, berriz, Espainiako Konstituzioa aldatu zuten. Helburua zen Konstituziora eramatea defizit eta zor publikoaren murrizketa zorrotza, eta lehenbizi zorra ordaintzeko erabilaraztea diru-sarrerak gobernuari (gainerako gastuak, zorra ordaindu ondoren). Areagotu egiten du erreforma horrek lehendik zetorren joera hau: zenbait eskubide sozial (hezkuntza edo osasuna, adibidez) estatuaren finantziario "aukeren" mende jartzekoa, alegia. Horra oligarkiaren beste eraso bat demokraziaren aurka, eraso guztiz klasista eta antisoziala. Konstituzioari dagokionez ere, Espainia dabil aitzindari Europa osoko politika liberal-konserbadoreenak aplikatzen.

2013an Espainiako defizit publikoa BPGaren %3ra jaistea hitzartu zuen Zapaterok Europako Batzordearekin (%10etik gorakoa zen orduan defizita). Horretarako, aurrekontu-murrizketa zorrotzak proposatu zituen, zeinek gastu sozialari eragin zioten gehienbat.

PP Espainiako gobernura iritsi izanak ez du aldaketarik eragin politika horretan. Aberastasunaren banaketa are gehiago okertu dute enpresen eta kapital-errenten aldera zenbait neurrik: sektore publikoko soldatak izoztea eta lanaldia 37,5 ordura luzatzea 2012an; 2013rako aurrekontu-proiektua; osasun-alorreko eta hezkuntzako murrizketak (10.000 milioi eurokoak, zenbait kalkuluren arabera); zor publikoa 100.000 milioi eurotan handitzea, gero bankari oparitan emateko (Bankiari, adibidez, ia 30.000 milioi euro) -lapurreta eskandalugarria-, eta eskubide sozialak eta laboralak murriztea. Eskubide murrizketak ere justiziaren esparruan aplikatzen dira. Honen adibide ditugu inboluzio antidemokratiko eta errepresiboa, tasak ezartzea edo instantzia judizial gorenaren kontrol politikoa.

Honenbestez, etekinak ugaltzeko oinarritzko estrategia bihurtu dute enpresek behin-behinekotasuna eta laneko ziurgabetasuna areagotzea. Gobernuak, berriz, enpresarien alde dihardute, behin eta berriz.

Zapateroren eta Rajoyren gobernuak onartutako lanaren eta negoziario kolektiboaren erreformek goitik behera aldatu dute egoera, eta izugarri handitu da enpresek, beren kabuz, lan-kondizioak, kontratazioak eta kaleratzeak erabakitzeke ahalmena.

4. Aberastasunaren eta enpleguaren bilakaerak agerian uzten ditu eragileak

Ondo asko dakite politika horiek aplikatzen dituztenek (eta horien onuradun direnek) ezkutatu egin behar zaiela herritarrei aberastasunaren banaketa gero eta

bidegabeagoa eta okerragoa dakartela politika horiek. Iritzi publikoaren kontrola, beraz, funtsezkoa du oligarkiaren erasoak.

a) *Lanaren errentek gero eta partaidetza txikiagoa dute aberastasunean*

EAEEn, 5,1 puntu jaitsi da lanaren errenten partaidetza aberastasunean (BPGa) 1980tik 2010era bitartean (%57,1etik %51,8ra). Enpresen eta kapitalaren errenten partaidetza, aldiz, 2,5 puntu igo da, %36,1etik %38,6ra. 2010ean aberastasunaren banaketa 1980koa bezalakoa izan balitz, lanaren errentek 4.592,5 milioi euro gehiago jasoko zituzketen: hots, soldatapeko langile bakoitzak 5.979 euro gehiago eskuratuko zituzkeen urte hartan.

Nafarroan, berriz, soldatapeko langileen ordainketa BPGaren %47,0 izan zen 2000n (urte hartakoak dira Estatistika Institutu Nazionalak jasotako lehen datuak). 2011n, BPGaren %42,9 zen portzentajea, hau da, 4,1 puntu gutxiago. Ustiapen Soberakin Gordina, bestalde, %47,7 izan zen 2011n, hots, 4,7 puntu igo zen 2000. urtetik (%43tik %47,7ra). Lanaren errentek galera hori (BPGaren 4,1 puntu) pairatu izan ez balute, 2011n 822,5 milioi euro gehiago jasoko zituzketen soldatapeko langileek, aberastasunaren banaketa 2000. urtekoa bezalakoa izanez gero betiere. Hortaz, soldatapeko langile bakoitzak 3.785,1 euro gutxiago kobratu zituen urte hartan.

b) *Enplegua, enplegu duina, Hego Euskal Herriko arazorik larriena*

Nabarmen egin du okerrera enpleguak Hego Euskal Herrian 2007az geroztik, 111.000 lanpostu galdu dira, eraikuntzan eta industrian, batez ere.

Biztanleria okupatua (milaka lagun) 2007-2012

	I-2007	I-2012	Bilakaera
Guztira	1.262,6	1.151,4	-111,2
Nekazaritza	27,8	17,9	-9,9
Industria	310,1	257,1	-53
Eraikuntza	125,2	73	-52,2
Zerbitzuak	799,7	803,3	+3,6

Honenbestez, %15,9raino igo da langabezia-tasa (2007an, %7,3 zen). Horrenbestez, langabezia bihurtu da langile-klasearen arazorik larriena.

Langabezia-tasaren bilakaera HEHn (%) 2007-2012

	I-2007	I-2012	Bilakaera (punt.)
Guztira	7,3	15,7	+ 8,4
Gizonezkoak	5,0	14,3	+ 9,3
Emakumezkoak	10,3	17,3	+ 7,0
Gazteak	14,9	37,5	+ 22,6

Txikiagoa da langabezia-tasa HEHn Espainiako estatukoa baino; egia da hori. Baina, era berean, egia da beste hau ere: Europako eta EBko estatu gehienetako batez bestekoa baino askoz handiagoa da hemengo langabezia-tasa.

EB-27ko langabezia-tasaren (%) bilakaera 2007-2011

	I-2007	IV-2011	Bilakaera (punt.)
Guztira	8,6	11,0	+ 2,4
Gizonezkoak	7,7	12,1	+ 4,4
Emakumezkoak	9,7	13,1	+ 3,4
Gazteak	13,0	23,6	+ 10,6

Askoz ere handiagoa izan da Hego Euskal Herriko enplegu-galera Europako batezbestekoa baino; BPGaren bilakaera, ordea, ez da okerragoa izan hemen.

Prekarietate laborala da oraindik ere lan munduko ezaugarriker okerrenetakoa. Jarraian egin diren erreforma laboralak justifikatzeko esan dute enplegu prekarioa zeharo murriztuko zutela. Baina benetan alderantzira gertatu da. Erreformen benetako helburua prekarietatea zen, eta haien inguruan egin diren adierazpenak faltsukeria bat izan dira, zeina botere ekonomikoaren zerbitzura dauden komunikabideetan hedatu baita.

Arlo publikoko lan-baldintzei eta beharginen eskubideei ere erasoka ari zaizkie. Politika horiek batzutan zurtzen dira esanez diru publikoa esparru pribatuan sartu behar dela, eta kapitalari pizgarri gehiago eman, horrela kalitate eskaseko enplegua, prekarioa eta eskubiderik gabea sustatuagatik. Hori guztia justifikatzeraino iristen da, esanaz hobe dela enplegu prekarioa bat ere ez izatea baino.

Lan-merkatuaren eta negozioazio kolektiboaren azken erreformaren ondoren, behin-behinekoa izaten jarraitzen du Hego Euskal Herrian sinatzen diren kontratuen ia %94k, eta, zaila dirudien arren, urterik urte ari da hazten portzentaje hori. Egun, behin-behineko kontratua du soldatapeko langileen %21,5ek, Europako batezbestekoak (%14,1) baino %50 gehiagok.

Behin-behinekotasun tasaren jaitsieraren egiazko arrazoia da milaka langile langabezian geratu direla, bota egin dituztelako edo behin-behineko kontratuak berritu ez dizkietelako. Behin-behinekotasun tasa izugarri horregatik, hain zuzen ere, igo da hemen langabezia Europako Batasuneko beste toki batzuetan baino gehiago.

Behin-behinekotasun horrek ez du inongo justifikaziorik, eta kontratazio-iruzur orokor baten emaitza da. Lan-agintaritzak eta ikuskaritzak, berriz, ez ikusiarena egiten diote enpresen jokabideari.

Emakumeek eta gazteek jasaten dute behin-behinekotasun tasarik handiena. %21,5 da tasa osoa; emakumeena, aldiz, %25,6; gazteena, azkenik, lotsagarria, zinez: %64,2.

Lanaldi partzialeko kontratua dugu beste behin-behinekotasun mota bat. Europako estatistika-instituiaren (Eurostat) arabera, lanaldi osoko enplegua nahi du Espainiako estatuan lanaldi partzialen ari diren langileen erdiak. Beraz, lanaldi partzialeko kontratua ez da langilearen borondatearen araberrakoa izaten. Danimarkako "flexiseguritatearen" eredu hainbeste gorensten duten horiei, hortaz, "ahaztu" egiten zaie datu hori. Europako batezbestekoaren bikoitza da hemengo kontratu partzialen portzentajea.

Emakumeei egiten zaizkie lanaldi partzialeko kontratu gehienak, alde oso handiagatik gainera. Kontratu-mota horretaz baliatzen dira emakumeak lana eta familia uztartzeko, ez baitago umeak eta helduak zaintzeko azpiegitura publikorik. Lanaldi bikoitza dakarkie formula horrek emakumeei, eta behin-behinekotasuna (orain eta gero), lan-bizitza amaitzean oso zaila baitaie prestazio sozialak eskuratzea.

Badira beste behin-behinekotasun mota batzuk ere, gero eta hedatuagoak gainera: azpikontratazioa, zerbitzu-enpresak edo ABLEak.

c) Batez besteko errentaren azpitik dabilta langile gehienak

Per capita errenta: herrialde bateko aberastasuna zati hango populazioa. Hego Euskal Herriko (HEH) per capita errenta 31.334 euro da. Hau litzateke biztanleko batez besteko errenta, lan egin ala ez (haurrak barne). Baina desberdintasun handia dago aberastasunaren banaketan.

- 2009an, HEHko langileen batez besteko soldata 26.162,4 eurokoa izan zen; Nafarroan, berriz, 23.657,7koa. Are txikiagoa izan zen aldi baterako kontratua dutenen batez besteko soldata (20.805,6 euro EAEn, eta 18.392,9 euro Nafarroan) eta emakumeena (22.502,5 euro EAEn eta 19.487,5 Nafarroan).
- 2012ko maiatzean, batez besteko pentsioa 1.006,16 eurokoa zen (1.022,40 euro EAEn, 939,11 Nafarroan), hau da, behar bezalako bizimodua eramateko behar den zenbateko duin batetik oso urrun zegoen.
- Langabeziagatiko batez besteko prestazioa (halakorik kobratzen dutenena, alegia) 957,62 euro zen HEHn 2012ko maiatzean (EAEn, 958,4 euro, eta Nafarroan, 955,5).

Per capita errentaren eta langile, pentsiodun zein langabeen batez besteko errenten artean dagoen diferentzia da kapitalaren munduak metatzeko duen tartea.

Langile askok eta askok arazoak izaten dituzte soldata hilaren amaiera arte luzatzeko; enpresaburu askoren irabaziak, aldiz, eskandalugarritzat jo daitezke. Horra desberdintasunak areagotzearen emaitza.

- 2010ean, 2,3 milioi euroko soldata izan zuten (batez beste) IBEX-35ean kotizatzen duten enpresetako administrazio-kontseiluetako kideek. 238 milioi euro jaso zituzten, guztira. Lotsagarria da jende hori langileen aurka etengabe murrizketak aldarrikatzen ikustea, krisiaren aitzakiapean, gobernu batean zein bestean.
- Batez beste, 510.000 euro jaso zuen kontseilarietako bakoitzak zeregin horren truke.

- 2010ean, 1.347,6 milioi euroko dibidenduak kobratu zituzten IBEX-35eko bederatzi akziozun nagusiek.
 - Bankari handiek, zeinek pentsio publikoen murrizketak exijitzen eta txalotzen dituzten, pentsio-plan pribatu ederrak dituzte. Espainiako sei banku nagusiek (IBEX-35eko bostek gehi Banestok) 389 milioi euroko pentsioak dituzte hitzartuta 17 lagunekin (administrazio kontseiluetako presidente, kontseilari delegatu eta batzordekideak), hots, 22,9 milioi euro bakoitzeko, batez beste.
- d) *Gure soldatak Europako batezbestekoaren oso azpitik daude, eta izugarri azpitik Unitateko Lan-kostuak*

Hego Euskal Herriko lan-kostuak Europako batezbestekoaren azpitik daude; produktibitatea, aldiz, dezente handiagoa da. Euroguneko batezbestekoak baino %10 baxuagoak dira EAEko lan-kostuak; Nafarroakoak, berriz, batezbesteko hori baino %17 baxuagoak.

Lan-kostua, estatuko (EB-17 = %100) EB 17. 2011

Estatua	%
Luxenburgo	123
Suedia	142
Danimarka	140
Belgika	143
Frantzia	124
Alemania	109
Austria	106
Finlandia	108
EB-17	100
EAE	90
Nafarroa	83
Espainiako estatua	75
Erresuma Batua	73
Portugal	44

Iturria: Eurostat, INE

Produktibitate konparatuari buruzko datuak EAEkoak bakarrik dira, eta Eustatek ematen ditu. Datu horiek adierazten dutenez, EAEko produktibitatea Europako Batasuneko 27 estatuetako handienen artean dago. EB-27ko batez besteko produktibitatea 2010ean 100 zela jota, EAEkoa 130,9 zen.

Laneko produktibitatea langileko eta herrialdeko (EB-27 = %100) 2010

Estaturia	Laneko produktibitatea langileko	Estaturia	Laneko produktibitatea langileko
Bulgaria	41,3	Grezia	94,8
Errumania	48,9	Alemania	105,3
Letonia	54,6	Finlandia	111,5
Lituania	62,3	Italia	109,4
Estonia	69,2	E. Batua	106,6
Polonia	66,8	Espainiar E.	108,9
Hungaria	71,2	Herbehereak	113,2
Txekiar Errep.	73,4	Austria	115,3
Portugal	76,5	Suedia	114,5
Eslovakia	81,4	Frantzia	115,8
Eslovenia	80,4	Belgika	127,6
Malta	90,9	EAE	130,9
Zipre	90,3	Irlanda	136,9
EB-27	100	Luxenburgo	169,9
Danimarka	111,6	-	-

Iturria: Eurostat, Eustat

Patronalaren ordezkariari sarritan entzun diegu lan-kostuak, hemen, beste leku batzuetan baino askoz gehiago ari direla hazten, eta enpleguaren bilakaera horregatik hemen okerragoa dela Alemanian baino. Etengabe errepikatzen dute diskurtso hori hedabide nagusiek. Baina gezurra da, goitik behera gainera. Europa Batzordearen arabera, langileko lan kostuak jaitsi egin dira Espainiako estatuan 2009tik 2012ra bitartean (%4,3, jaitsiera izendatua; %7,6, jaitsiera erreala); eurogunean eta Alemanian, aldiz, igo egin dira (%5,8 eta %8,8, hurrenez hurren, igoera izendatua; igoera erreala, %1,5 eta %4,5).

e) Pobrezia eta hilaren amaiera iristeko zailtasunak gero eta hedatuago daude

Datu ofizialek erakusten dute pobrezia eta desberdintasun soziala asko gehitu direla. 1986tik hona inoiz ez da hainbeste etxe egon non diru-sarrerak ez diren aski oinarrizko beharrianak asetzeko (jatekoa, arropa, oinetakoak, bizitokia...). Ez zegoen ere orain adina elikadura arazo, gosea barne.

Pobreziak gero eta kolektibo gehiago harrapatu du. Langabezia gehitu delako, enplegua prekarizatu, langabeziako eta beste prestazio sozialak murriztu direlako, soldatapeko langile askoren eta pentsiodunen erosteko ahalmena jaitsi delako. Hain zuzen, pentsiodunen kolektiboaren egoera nabarmendu beharrekoa da, arestian aipatutako pentsio-erreformen ondorioz okertu egin baita, eta iragarri diren murrizketa gehiago ere pairatuko dituzte. Hortaz, ez da harrizkeoa Caritas edo Elikagaien Bankuen moduko erakundetara jotzen duten pertsonen kopurua hainbeste haztea; erakundeok, izan ere, eginkizun garrantzitsua dute, administrazioak babesik gabe uzten duen jende askori laguntza emateko. Ez da harrizkeoa ere, pobretze orokorra medio, Hego Euskal Herrian krisia hasi zenetik hona 8.000 hipoteka exekutatu izana

-gehienak finantza-erakundeek eskatuta-, giza-eskubideak sistemaz urratzen direlarik, exekuzioa jasaten duen pertsona defentsarik gabe uzten dute, babes judizial eraginkorraz eta etxebizitza duin eta egokia izateko eskubideaz gabetuta.

Hortaz, ez da harrizkoa Caritasek, Elikagai-Bankuek eta halakoek hartzen dituzten pertsona kopuruak etengabe gehitzea; honelako erakundeek garrantzi handiko egitekoa dute, administrazioek babesik gabe utzitako jende askori eskaintzen baitiote laguntza.

f) Lan osasuna

Ez da batere hobetu egoera, Hego Euskal Herrian, lan-istripuei dagokienez, batez ere jarduerak behera egin duela kontuan izanik, ekonomiaren egoera dela eta.

Kongresu arteko tarte honetan, 262 langile hil dira lan-istripuz (2009ko ekainetik 2012ko ekainera arteko datuak). Alabaina, datu osatugabeak eta partzialak ematen jarraitzen dute Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak, istripu-kopuruak behera egin duela sinetsarazi nahian, egoera bestelakoa bada ere.

Egiturazko dira lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen zenbait alderdi, eta ELAk maiz salatu izan ditu: behin-behinekotasuna (gero eta handiagoa), azpikontratazio-indizeak (izugarriak), lan-erritmo itogarriak, trebakuntzarik eza... Horra gure gizarteko gaitz larri horren zergatietako batzuk.

Gaixotasun profesionaleri dagokienez, utzikeria erabatekoa da. Benetako datuetara ezin gara hurbildu ere egin, estatistika ofizialek (eskandalugarriak, egiazki) ez baitute ia ezertxo ere argitzen. Ez Europan ez mundu zabalean ez da zalantzan jartzen gaixotasun profesionalen hedapena eta irismena (kezkarriak, biak ere), baita lan-istripuen ondorioetatik landa ere; gai honi, ordea, apenas kasurik egiten dioten gure administrazioek.

Ez Nafarroako Gobernuak, ez Eusko Jaurlaritzak ez dute hartzen behar den neurririk gaixotasun profesionalen eta lan-istripuen egiazko eragileen aurka borrokatzeko. Laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea ez da lehentasuna politikarientzat, eta hala erakusten dute Nafarroako Lan Osasuneko Institutuak eta Osalanek azken urteotan izan dituzten aurrekontu-murrizketa zorrotzek.

Patronalaren interesen aurkako neurriak hartu behar dira, izan ere, lan-istripuei aurre egiteko. Gobernuak eta patronalak, ordea, bat datoz lan-harremanen ereduari dagokionez, eta ontzat ematen dituzte behin-behinekotasuna, kontratazioko lege-iruzurra eta kontrolik gabeko azpikontratazioa. Gabezia hau bete-betean arduradunen borondate politiko ezak eragiten du. Ez Osalanek, ez Nafarroako Lan Osasuneko Institutuak, ez Lan Ikuskaritzak (Eusko Jaurlaritzari transferitua) ez dute betetzen beren egitekoa, hots, jarraipena egitea, kontrolatzea eta zigortzea laneko arriskuak prebenitzeko araudia sistematoski betetzen ez duten enpresak.

Gai honi dagokionez ere, "elkarrizketa sozialaren" mahaiari eman diote lehentasuna Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak. Itun-mahai horretako partaide guztiak bat datoz eredu horrekin, eragile horien finantziazio-iturri garrantzitsua baita. Horrenbestez, edukirik gabe ari dira geratzen, pixkanaka, Osalan eta Nafarroako Lan Osasuneko Institutua.

Egungo krisi ekonomikoak, berriz, are okerragoa bihurtu du egoera. Enpresak zorrotz ari dira murrizten prebentzio-alorreko inbertsioak; hori dela eta, osasunaren eta laneko segurtasunaren kalterako egoerak ugaltzen ari dira. Gero eta ugariagoak dira enpresen jarduera irregularrak alor horretan, lan-istripuei buruzko benetako datuak ezkutatu egiten baitituzte. Lan ikuskaritzak, krisia aitzakitzat hartuta, ez ditu enpresak behar bezala zigortzen lan osasun arloan. Langileen osasuna zaintzean baino dirua beste hamaika gauzatan erabiltzea nahiago da

Honenbestez, azkeneko erreformak (lan-merkatuarenak eta negoziazio kolektiboarenak) areagotu egingo ditu gaixotasun profesionalen eta lan-istripuen indizeak, are gehiago prekariraten baitu lan-merkatua. Azpimarratzekoa da erreformaren neurrietako bat: aldi baterako ezintasunagatik bajaran dagoen langilea kaleratzeko erraztasunak. Egoera horrek "presentismoa" sustatzen du, langileek, kaleratze-mehatua dela eta, beldur baitiote baja hartzeari. Jakina, jokabide horrek langileen osasuna arriskuan jartzen du.

Areago, jarraian egindako erreformek patronalari ematen dioten botere gero eta handiagoa arrisku handia izango da langile-klasearen osasun psikosozialerako. Gaurkoz haien eraginari buruzko estatistikarik ez dagoen arren, arrisku psikosozialak arazo sozial larria dira, ezkutuan diraute eta azalera daitezen ez dago borondate politikorik. Arriskuok sektore guztietan daude, eta edonori eragin diezaiokete. Era guztietako patologiak eragiten dituzte, psikikoak (estresa, depresioa...) zein fisikoak (infartuak, minbiziak...). Halere, arriskuok eragindako gaixotasunetan ukatu egiten da jatorria laborala denik, ez baitira Gaixotasun Profesionalen Koadroan aipatu ere egiten.

Arrisku psikosozialak identifikatzea zaila da, hau ebazterakoan faktore subjektiboak pisua baitu. Oso enpresa gutxi (%5ak, Osalanen arabera) egin du arrisku psikosozialen ebaluaketa, prebentziorako lehen urrats gisa. Arrisku psikosozialak ezkutuko arazoa dira egun, baina begibistakoa da larriagotu egingo direla etorkizunean. Horregatik, ELAk gai honi heldu behar dio ekintza sindikalean, betiere enpresek legea bete eta arrisku psikosozialen ebaluaketa egin dezatela exijituz, prebentzio-ordezkariek eta langile guztiek parte hartzen dutelarik. Bestalde, osasun-sistemaren pribatizazioa bultzatzen dute. Pribatizazio prozesu honetan, argi dago mutualitateek konpetentzi gehiago izango dituztela etorkizunean.

Bestalde, botere are handiagoa eman diete erreformek lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen mutualitateei. Ardua garrantzitsuak bereganatu dituzte mutualitateek gaixotasun arruntengatiko baje kudeaketan, eta osasun-sistemaren pribatizazioa bultzatzen dute. Patronalaren kontrolpean daude mutualitateak, eta lehentasuna ematen diote beren errentagarritasun ekonomikoari, partaide dituzten enpresetako langileen osasunaren gainetik. Jokabide onartezinak ari dira sustatzen azken aldian. Mutualitateen erabilpen mingarria egiten ari dira langile-klasea diziplinatzeko eta patronalaren etekinak handitze aldera.

Oso ondorio kaltegarriak ari dira eragiten politika horiek langileen segurtasunari eta osasunari dagokienez: istripuak, gaixotasun profesionalak eta arrisku psikosozialak.

g) Erreproduzio-lana ez da balioesten, eta soldaten arteko aldeak bere horretan dirau

Erreproduzio-lana (bizitzaren zaintza) eremu pribatuan egiten da oraindik ere, eta emakumeen esku geratzen da gehienbat. Horrek esan nahi du lan ikusezina dela, ez baitaio balio ekonomikorik egozten, bizitzaren eta sistema kapitalistaren beraren iraupenerako ezinbestekoa izanagatik.

Produktzio- eta erreproduktzio-lanen bereizketak eta sexuaren araberako lanaren banaketak bere horretan iraunarazten dute emakumearen aurkako diskriminazioa lan-merkatuan. Soldatei dagokienez, adibidez, EAEn 7.000 euroko aldea dago (urtean) gizonen eta emakumeen artean (2011ko datuak), eta 7.268 eurokoa Nafarroan (2009ko datuak).

5. Hala eta guztiz ere, elkarrizketa sozialaren fikzioak hor jarraitzen du

XII. Kongresuko txostenak arretaz aztertu zituen elkarrizketa sozialaren gorabeherak. Ez dugu hemen erreplikatu orduan esandako guztia. Gogora dezagun, dena den -labur bada ere-, zergatik balio duen orduan esandakoak egungo krisi-egoeran.

Esana dugu jada nola ari diren egiten legeak (alor sozialean eta laborean) patronalaren interesen arabera. Ikusten dugu, bestalde, nola engainatzen dituzten herritarrak finantza- eta ekonomia-botereek, kalifikazio-agentziek eta gobernuek, herritar gehienen kalterako neurriak indarrean jartzeko. Honenbestez, esperpentu hutsa da gure klase-interesentzako alferrikakoa den elkarrizketa sozialari eustea, hau eragingarria delako premisa faltsuan oinarrituta.

Elkarrizketa soziala zilegi izan dadin bi baldintzotako bat eskatzen du: eredu sozial eta laboralarekiko adostasun maila altua, edota benetako negoziazio-prozesuak abiarazteko indar-erlazio bat. Ezarritako elkarrizketa sozialaren ereduak ez dauka ez bata, ez bestea.

Ederki asko erakusten dute zer den “elkarrizketa soziala” deritzoten hori Espainiako estatuan sinatutako Hitzarmen Ekonomiko eta Sozialak (pentsioen murrizketa ekarri zuenak, alegia), batetik, eta Langabeziaren Aurkako Planak, Eusko Jaurlaritzak, Confedebaskek, CCOOek eta UGTk 2012an sinatua. Azkena aipatu dugun plan horren testuak dioenez, “erantzunkidetasunean oinarritutako eredu bat berresten du elkarrizketa sozialak... eta, horri esker, gizarteak askoz hobeto onartzen du, solaskide sozialen bermea baitu”. Hau da, elkarrizketaren helburua da gizarteari onarraraztea bestela inolaz ere onartuko ez lukeena. Horrenbestez, sindikalismo hori ezartzen diren politiken babesle eta laguntzaile bihurtzen da, hots, bake sozialaren bermatzaile.

Nafarroan, enpleguaren aldeko planak sinatzen jarraitzen dute, gobernuek murrizketa sozialak agintzen eta enplegu publikoa gogotik murrizten duen bitartean. Izan ere, dozenaka milioi euro poltsikoratzen dituzte UGTk, CCOOek eta CEN patronalak, zenbait alorretan zuzenean kudeatzeko: enpleguan, trebakuntzan, laneko osasunean, immigrazioan... Porrot egin dute politika horiek guztiek, enpleguari eta behin-behinekotasunari buruzko datuek (lehenago aipatuak) erakusten digutenez.

Hitzarmen horiei esker sortutako etekin ekonomikoak bakarrik jo daitezke elkarrizketa sozialaren zuzeneko emaitzatzat.

Bestalde, Patxi Lopezen gobernuak erabaki zuen, aurrez inolako elkarrizketa eta debaterik gabe, soilik sindikatu batzuekin hitz egingo zuela, hain zuzen elkarrizketa sozialeko mahaian parte hartzeko prest zeudenekin (mahai horretan erabakiak hartzerakoan arau demokratikoak aintzat ez hartuagatik ere, eta organizazio bakoitzari dagokion pisua alde batera utzi arren). Confedebaskekin honetan ados jarri zen, baita CCOO eta UGTk osatzen duten minoria sindikalarekin ere; hauei ez duten ordezkariak aitortzen die, eta finantziario ezkutua ematen die. Erabaki honen ondorioz EGABeko eta LHKko legeak aldatu dituzte, eredu hau finkatze aldera, ponentzia honen atal politikoan azalduko dugun legez.

Horrelako elkarrizketa sozialaren ordezkari, gure eredu sindikala (kontraboterekoa) berresten dugu guk, guztiz baliagarria baita gaur egun ere. Gure iritzian, botere politikoaren eta ekonomikoaren mende ez dagoen sindikalismoa bakarrik izan daiteke langileen interesen eta asmoen ordezkari.

6. Babes soziala, murrizten; erantzule nagusia, zerga-politika

a) Europakoa baino askoz eskasagoa da hemengo babes soziala

Doitze-politikek areagotu egin dituzte desberdintasun sozialak. Horren adibide dugu Hego Euskal Herriko babes sozialaren hondamena, gero eta nabarmenagoa. Bi datu kezkarri azpimarratu behar ditugu horren harira:

Langabeen %44k ez du jasotzen inongo prestaziorik INEMetik. Gero eta langabe gehiago dago, eta gero eta gutxiagok kobratzen dute prestazioren bat. HEHn, 93.681 langabe daude inongo prestaziorik gabe; kotizaziopeko prestazioak, berriz, 73.376 lagunek bakarrik jasotzen dituzte, eta beste 45.744 lagunek, berriz, laguntza-prestazioak. Krisiaren hasieran, %31 zen prestaziorik gabeko langabeen portzentajea; orain, %44. Hazten ari da, eta hazten jarraituko du.

Bestalde, lehen baino prestazio txikiagoak jasotzen dituzte langabeek, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak (DBE, IES, OE, Nafarroan) egindako murrizketak direla eta. Bestalde, giza talde oso handiak eta oso behartsuak ari dira geratzen prestaziorik gabe, horiek jasotzeko baldintzak gogortu egin baitira.

HEHko babes soziala Europako batezbestekoa baino askoz txikiagoa da, eta leku aurreratuenetakoa baino izugarri txikiagoa. EAEn, BPGaren %20 gastatzen da gizarte-babesean, Europako batezbestekoa (%26,4) baino sei puntu gutxiago. Nafarroan, ez da horri buruzko daturik argitaratzen. Beraz, 4.300 milioi eurokoa defizita dago (EAEn bakarrik), urtean.

Gizarte-babesa: gastua (BPGaren %)

Europar Batasuna	26,4%
EAE	20%
Aldea (BPGaren %)	-6,4 puntu
Aldea (milioi euro, urtean)	4.300 milioiko defizita

b) Zerga-politika, gizarteko gutxiengoaren zerbitzura

Babes sozialean dagoen alde horrek zuzeneko lotura du zerga-presioan dagoenarekin. Argitaratutako azken datuen arabera, BPGaren %38,4 da batez besteko zerga-presioa Europar Batasunean; EAEn, berriz, %28,8, eta %30 Nafarroan. Hortaz, Europako batez besteko zerga-presiora iristeko, urtean 6.500 milioi gehiago jaso beharko litzateke EAEn, eta 1.500 milioi gehiago Nafarroan. Defizit publikoa murrizteko premia aipatzen dute arrazoitzat gastu publikoa (so-ziala, batez ere) gutxitzeko politiken aldekoek. “Krisiak behartuta egiten dugu”, diote. Baina hori diotenen ez dute esaten defizita gastuen eta diru-sarreraren arteko aldea dela, eta, alde horretatik, beste bi bereizgarri ditugula hemen:

Alde batetik, zerga-presioa (oso baxua, lehenago genioenez) askoz gehiago jaitsi da hemen Europar Batasunean beste herrialde batzuetan baino. EAEn, 2009an, 2007an baino 4,9 puntu baxuagoa zen; Nafarroan, berriz, 1,9 puntu jaitsi da zerga-presioa tarte horretan. Europar Batasunean, aldiz, bestelakoa izan da bilakaera. Behera egin zuen zerga-presioak, batez beste, bi urte horietan, baina 1,2 puntu bakarrik, gurea baino askoz handiagoa izan arren jatorrizko zerga-presioa. Bestalde, ez da leku guztietan jaitsi: Alemanian, Italian eta Austrian, adibidez, igo egin da; Suedian eta Danimarkan, berriz, oso txikia izan da jaitsiera.

Honenbestez, 3.200 milioi euro gehiago jasoko ziratekeen 2009an EAEn, zerga-presioa 2007koa bezalakoa izan balitz. Ekonomiaren jarduerak behera egin zuenez, 3.200 milioi euro gehiago jaso beharko ziratekeen 2007ko zerga-presioari eusteko. Hala egin izan balitz, Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako defizit guztia estaltzeko nahikoa eta sobera diru legoke. Hortaz, defizit publikoari aurre egiteko, euskal erakundeek ez lukete jo behar gastua murriztearen bidetik.

Izan ere, baxuagoa da hemengo gastu publikoa Europar Batasuneko 27 estatuetako edozeinetakoa baino.

Gastu-portzentajea, BPGarekiko (2011)

Eremua	BPGarekiko %
EB-17	49,1
EB-27	49,4
Belgika	53,3
Danimarka	57,9
Alemania	45,6
Irlanda	48,7
Grezia	50,1
Espainiako estatua	43,6
Frantziako estatua	55,9
Italia	49,9
Herbehereak	50,1
Austria	50,5
Portugal	48,9
Finlandia	54,0
Suedia	51,3
Erresuma Batua	49,0
EAE	41,0

Beraz, Europar Batasunarekin parekatzeko, gastu publikoa handitu (gastu soziala batez ere, lehenago genioenez) eta zerga-presioa igo beharko litzateke hemen.

Hego Euskal Herriko erakundeen orain arteko zerga-politikak ondorio hauek ekarri ditu:

- Izugarrizko zerga-iruzurra dago soldatapekoak ez diren errentetan, eta ez du behera egin azken urteotan. Datu ofizialen arabera, PFEZri dagokionez, urtean 21.274 euro irabazten dugula aitortzen dugu, batez beste, lan-errentak ditugunok; enpresa-jarduerak edo profesionalak egiten dituztenek, berriz, 13.411. Horra iruzurraren zenbatekoa. Iruzurraren kontrako borrokan zenbat bildu den, bestalde, ez dute esaten datu ofizialek. 2007ko (krisirik apenas zegoen urte hartan) Sozietateen Gaineko Zergari dagokionez, berriz, 10 aitortzen dituzte ia 7 galerak omen zituzten enpresenak izan ziren, eta urte hartan 0 euro irabazi zuten, edo 6.000 euro baino gutxiago. Hala eta guztiz ere, ez dago azterketa ofizial bakar bat ere ezkutuko ekonomiari eta zerga-iruzurrari buruzkorik.
- Bestalde, nabarmen jaitsi dituzte enpresek, kapitalak eta errenta handiek ordaindu beharreko zergak. Etengabe aldatu dira zergak (PFEZ, Sozietateen gaineko Zerga, Ondarean Gaineko Zerga, Oineordekotzaren gaineko Zerga...), helburu berarekin betiere: kapitalak eta errenta handiek gutxiago ordaintzea zerga bidez. Horretarako, PFEZn, nabarmen jaitsi dute zerga-tasa gorena, eta kendu egin diete progresibitatea kapital-errentei. Sozietateen gaineko Zergaren jaitsiera ere handia izan da; bestalde, Ondarearen gaineko Zerga eta Ondorengotzaren eta Dohaintzen gainekoa ere kendu edo jaitsi egin dituzte.

- Foru-aldundiek, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak, berriz, ez diete uzten parte hartzen sindikatuei eta gizarte-erakundeei zerga-politikari buruzko erabakietan. Klub itxia, opakua, bilakatu da Zergak Koordinatzeko Organoa (ZKO), eta ez du hitz egin nahi sindikatuekin zerga-politikari buruz. Patronala, berriz, eroso asko dago egoera horretan, erakundeen solaskide pribilegiatua bihurtu baita, gai honi dagokionez. Gogoan izan oinarrizko informazioa ezkutatzen duela zerga-opakutasunak (zerga-ikuskapenei buruzkoa, adibidez).

Laburbilduz, bidegabea da zerga-sistema, eta milaka milioi euro uzten dira jaso gabe. Babes sozialean gastatu behar lirateke milioika euro horiek. Eragin bikoitza du zerga-politika horrek: batetik, lan-errentak zigortzen ditu, eta lanekoak ez diren errentei pribilegioak ematen. Bestetik, milaka milioi euro uzten ditu jaso gabe urtero. Babes sozialari dagokionez EAEn Europako batezbestekoarekiko dugun defizita estaltzeko erabili behar litzateke diru hori.

Zerga-politika progresiborik eta iruzurraren aurkako benetako jazarpenik gabe hitz handiak haizeak eramaten ditu. Zoritxarrez, agintzeko duten alderdiek oreka bilatzen dute biltzen diren zergen eta Administrazioak ematen dituen zerbitzuen artean, eta ez dira saiatzen gure presio fiskala estatu europarretarretan dagoen mailara egokitzen, honek gizarte-politikak garatzea ahalbidetuko lukeen arren.

7. Hauteskunde-mapa berriak ez du alternatibarik ekarri

Zerga-politika horiekin bat etorri dira HEHko administrazioetan azkenaldian agindu duten alderdiak (EAJ, PSOE, PP eta UPN). 2011ko udal- eta foru-hauteskundeetan, ordea, Bildu ere agintera iritsi zen, Gipuzkoako Foru Aldundira, zehazki.

2011ko amaieran, zenbait zerga-aldaketa egin ziren HEHn, guztiak ere elkarren oso antzekoak. Itxura hutsa. PFEZari eta Ondarearen gaineko Zergari eragin zioten aldaketek, eta apenas ekarri zuten diru-bilketan hobekuntzarik (BPGaren %0,3 baino gutxiago).

2012an, benetan bildutakoa aurrekontuko aurreikuspena baino askoz ere gutxiago izango dela ikusirik, foru-ugasunek ez dute hartu neurririk diru-sarrerak handitzeko, eta gastua murriztea beste biderik ez dagoela adierazi dute.

Bistakoa da, beraz, zerga-alorrean eskumenak dituzten HEHko erakunde guztien erantzuna ez dela izan, inondik ere, egoerak eskatzen zuena: ez da areagotu zerga-iruzurraren aurkako borroka (handitzen ari dela diote datu guztiek), eta ez da egin batere aldaketa aipagarririk zerga-alorrean. PFEZari eta Sozietateen gaineko Zergari dagokienez Rajoyk estatu espainiarrean onartutako aldaketek ipurdia agerian dutela utzi ditu HEHko lau foru-ogasunak, hauek baino gehiago igo baitu espainiar presidenteak progresibitatea eta zergak biltzeko ahalmena. Negargarria da egoera.

Nafarroako Parlamentuan joan den abenduaren 20an onartu ziren erreforma fiskalak tankera horretakoak dira. Hartutako erabakiak medio 65 milioi euro gehiago besterik ez da bilduko, hots, kopuru ezdeusa. Beraz, axaleko aldaketak dira, propaganda egiteko oso erabilgarriak; izan ere, adibidez PFEZaren tasa maximoa Rajoyk ezarritakoaren azpitik utzi dute. Ez dute inongo neurri zehatzik proposatzen iruzur

fiskalari jazartzeko, eta beste aukera bat galdu da zerga-sistema justuago baterantz aurrera egiteko, Europako presio fiskaletik gertuago jarriko gaituena.

Honelako erabakiekin Nafarroako biztanleak zigortu egiten dituzte azken urteetan aplikatu izan den murrizte politika pairatzen jarraituz; politika horrekin langabezia, babes sozialaren gainbehera eta pobrezia areagotu egiten da, baita zerbitzu publikoak kaltetu ere.

Honenbestez, zerga-gaietan eskumen araugile erabatekoa aldarrikatzen du ELAK. Egun, zuzeneko zergak (PFEZ, Sozietateen gaineko Zerga eta Ondarean gaineko Zerga) ezartzeko eskumena dute HEHko foru-ogasunek, baina ez zeharkako zergak edo kotizazio sozialak ezartzeko. Ezintasun hori hartzen dute aitzakiatzat batzuek sinetsarazteko foru-ogasunek egoera ezin dutela aldatu. ELA ez dator bat uste horrekin:

- HEHko foru-ogasunek behar hainbat eskumen daukate eremu guztietan zerga-iruzurraren aurka jarduteko. Zenbait kalkuluren arabera, 2.500 milioi eurokoa da iruzurra, hots, EBrekiko zerga-presioaren aldearen %40.
- ELAK frogatu duenez, neurri xume batzuk ezarrita 2.000 milioi euro gehiago bilduko lirateke.

Maiz salatu izan du ELAK gizartearen partaidetzarik gabe erabaki ohi direla zerga-politikak. Ez da batere aldaketarik nabaritu gai horri dagokionez ere. EAEn, gardentasunik ezari beste hau gehitu behar zaio: erabakiak Zergen Koordinaziorako Organoan hartzen dira. Hor adosten dituzte beren neurriak (edo adosten saiatzen dira) Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek, gizarteari alde aurretik inongo informaziorik eman gabe. Gainera, Aldundi bakoitzak bere dis-kurtsua eta proposamenak egiten ditu, aurrez inongo parte hartzeko prozesurik gabe. Sindikatuekiko eta erakunde sozialekiko mespretxua orokorra da.

Gure aurreko kongresuko ponentziak, bestalde, ohartarazi zuen euskal egitura instituzionalak bazituela arazoak: "Lurralde-egituraketarako desegokia eta baliogabea da (...) Bereziki kezagarria da parte hartzeko aukeren murrizketa eragile sozialak kontsultatzeko organo arruntik ez daukaten erakundeetan (...) Are larriagoa da gabezia hori ikusirik zer eskumen dituzten Aldundiek zerga eta politika sozialei dagokienez".

Egungo euskal zerga-politika, hortaz, bidegabea da, eta desegokia ongizate-estatuak behar duen garapena finantzatzeko. Bestalde, bat dator politika hori HEHko erakundeek aplikatu izan duten aurrekontu-politika neoliberalekin.

Duela gutxi hauteskunde autonomikoak deitu dira EAEn. Aurreko kanpaina lehiaren zeuden indarren programa eta aginduetan oinarritzko gaiak jaso dira, esaterako osasungintza publiko eta kalitatezkoaren defentsa, hezkuntza unibertsala edo gizarte-zerbitzuak. Areago, batzuk aipatu dute pentsioen erosteko ahalmenaren alde egin behar dela, Eusko Jaurlaritzaren eskumena ez izanagatik ere, eta zenbait indarrek subiranía nazionala garatzea aldarrikatu dute. Zoritxarrez, gure konfederazioak alderdi horiei kanpaina hasi aurretik egin zizkien proposamenak, sarri halako promesekin bat bazetozen ere, ez zituzten adierazpen publikoetatik espero zitekeen karras hartu. Are okerrago, zenbait alderdik sindikatuarekin biltzea baztertu egin zuen. Publikoki eta esparru pribatuan esaten denaren arteko alde handia da, eta horrek

gure ustez politikari sinesgarri ez izatea eragiten dio; klase herritarren artean eszeptizismoa hedatzen da.

8. Rajoyk ez ezik euskal administrazioek ere murrizketa gogorrek egiten dituzte

Aurrekontu-murrizketa zorrotzak ari dira egiten Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua, baita foru-ogasunak eta gainerako erakundeak ere. Datu hauek ikusi besterik ez dago:

- Eusko Jaurlaritzak 2012rako onartu zuen aurrekontuan, 2010ean egiazki gastatu zena baino 730 milioi euro gutxiago zeuden gastatzeko.
- Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek iragarri dutenez, aurrekontuak dioena baino 770 milioi euro gutxiago gastatu behar dira 2012an, aurreikuspenek ziotena baino diru gutxiago bilduko baita. Ez dute zehaztu, ordea, zer alorretan egingo diren murrizketak.
- Nafarroako Gobernuak 2012rako onartutako aurrekontuak 2010ean gastatutakoak baino 270 milioi euro gutxiago ditu, eta beste 182 milioi euroko murrizketak onartu ditu.
- Ekonomiaren atzeraldia areagotu egiten dute murrizketek, langabezia handitu, eta babes soziala txikiagotu. Nafarroako Gobernuaren gastua BPGaren %21,5 zen 2010ean; 2012an, berriz, BPGaren %18 baino gutxiago. Eusko Jaurlaritzari dagokionez, BPGaren %15,5 zuen gastu soziala 2010ean; 20102an, berriz, %13 pasatsu.
- Osasun-zerbitzuetan eta hezkuntzan, nabarmen murriztu da gastua. 2012rako, 2010ean egiaz gastatutakoa baino 140 milioi euro gutxiago onartu zuen Jaurlaritzak sail bakoitzerako; Nafarroako Gobernuak, berriz, 120 milioioko murrizketa egin du osasun-zerbitzuetan, eta 70 milioioko hezkuntzan. Horrez gain, kontuan izan behar dira 2012rako aurrekontuetan ezarritako murrizketa guztiak.
- Beste alor batzuei ere nabarmen eragin diete murrizketek; bestea beste, etxebizitari, gizarte-zerbitzuei eta ingurumenari.

Jakina, politika horiek zerbitzu publikoen hondamena dakarte. Hori du helburuetako bat, hain justu ere, jasaten ari garen erasoaldi antisozial honek: alor publikoaren eremua murriztea, elkartasun-elementuak alde batera uztea, gizartearen premien kontura aberasteko. Izan ere, eskubideak murriztu ahala, handitu egiten dira zenbait sektoretako negozio-zifrak: osasun-zerbitzu pribatuetakoak, osasun-aseguruetakoak, gizarte-zerbitzu pribatuetakoak... Zerbitzu eta prestazioak murriztuta pertsonen segurtasun eza eta egoera ahula areagotzen dira, eta honek lan-esplotazioari bidea irekitzen dio.

Emakumeei, bestalde, bereziki eragiten die gastu, zerbitzu eta prestazio sozialen murrizketak. Izan ere, gizarte-zerbitzuen suntsipena dela eta, administrazioek ez ikusiarena egiten diote zaintza-lanekiko duten erantzukizunari. Hala, bada,

emakumeek leutzen dituzte krisi ekonomikoaren ondorio izugarriak, ordaindu gabeko erreproduzio-lana areagotuz betiere. Gizarte pobreagorantz goaz, eta emakumeen pobrezia ere areagotu egingo da. Era berean, ugaltzen ari dira gizartetik bazterrera geratzeko arriskuan dauden taldeak: alargunak, emakume bat buru duten guraso bakarreko familiak, emakume gazteak...

Gauza bera gertatzen da immigranteekin: murrizketak bereziki latzak dira eurentzat (prestazio ekonomikoen eta osasun sistemara jotzeko ukapena, etab.). Honela arrazismoa eta xenofobia bultzatzen dira, langile-klasea zatikatzeko beste tresna gisa.

Belaunaldi berriak, bestalde, aurrekoak baino okerrago bizi dira. Langabeziak, behin-behinekotasunak, soldata txikiek, gizarte-babesik ezak, pobrezia... ziurgabetasun handia eragiten dute, eta itxaropenari apenas uzten dioten tarterik.

Laburbilduz, injustziak areagotzea da botere ekonomiko, finantzario eta politikoen krisitik irteteko asmatu duten irtenbidea, eta gutxiengo boteretsu baten alde egitea, ehunka mila milioi euro emanaz. Baina politika horiek ezingo lirarteke ezarri azpijokorik gabe, jokabide ilun eta maltzurrik gabe. Eliteak -beti bezala- inori argibiderik eman gabe hartzen ditu erabakiak. Erakundeen jardunari dagokionez, herritarren partaidetzarik eza dute oinarri: informazioa ezkutatu eta manipulatu egiten dute, eta bat egiten dute botere ekonomikoak, politikoak eta hedabideek.

9. Badago irtenbiderik

Aplikatzeko ari diren politiken erabateko aldaketa exijitzen du ELAk. Izan ere, bide honetatik, hondamendira daramagu gizartea. Gizartearentzat onuragarria den irtenbiderik eman nahi bazaio krisiari, erabat baztertu behar dira doitze-politikak.

Europako (Islandia...) eta beste inguru batzuetako (Ekuador, Argentina...) zenbait herrialdeetako esperientziak erakusten digutenez, ez da egia irtenbide bakarra "merkatuek" diotena egitea denik. Finantza-erakundeak edo kalifikazio-agentziak daude, azken batean, merkatuen atzetik, eta erantzukizun handia dute gertatzen ari den guztian.

Kongresu honetan, berretsi egiten ditu ELAk azken lau urteotan plazaratu dituen proposamenak, bai bakarka bai beste sindikatu eta erakunde batzuekin batera egindakoak. Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari eta EAEko hiru foru-aldundiei egin dizkiegu proposamenak. Horrez gain, neurri-dekalogo bat ere prestatu genuen, beste sindikatu batzuekin batera, eta 130.000 herritarrek baino gehiagok sinatu zuten. Bestalde, politikak goitik behera aldatzea ere aldarrikatu dugu, beste gizarte-erakunde batzuekin batera.

Azken adibidea 2012ko urriaren 21ean izan ziren EAEko hauteskundeetan aurkeztu ziren alderdiei luzatutako proposamenak ditugu. Dokumentu hartan Jaurlaritzara iristekotan hartu zitezkeen konpromiso konkretuak hartzea proposatzen genuen.

Ez ditugu zehatz azalduko egin ditugun proposamen guztiak, baina zenbait alderdi gogoratuko ditugu. ELAren iritziz, borondaterik politikorik egonez gero, aplikagarriak dira gure proposamenak. Hona hemen gure eskarietako batzuk:

- Enplegu-politikak, lanpostuak sortzeari zein enplegu-zerbitzu publikoetan politika propioa egiteari dagokionez.
- Aberastasuna banatzeko politikak; besteak beste, soldaten erosteko ahalmena gehitzea. Horrekin batera, lanaldia murriztea eta enplegu produktibo zein erreproduktiboa partekatzea. Zainketetan ardurakide izateko joeran aurrera egitea.
- Behin-behinekotasunaren jazarpena; honetarako ezinbestekoa da zigorrak eta ikuskapenak asko gehitzea. Enpresei exijitzea prebentzio araudia benetan aintzat har dezaten. Hau ez betetzekotan, enpresei zein prebentzio-zerbitzuei zigor eredugarriak ezarri behar zaizkie. Mutualitateen kontrol publikoa ere areagotu beharra dago.
- Politika publikoei buruz, ELAk honakoa proposatzen du:
 - Aurrekontu-politika propioak, gastu publikoa, batik bat soziala, zeharo handitzeko helburuarekin.
 - Ongizate-estatua garatzen jarraitzea. Gizarte-babesaren hobekuntza (pentsioak, langabezia, gizarte-prestazioak, osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, ingurumena...)
 - Zerga-politika goitik behera aldatzea: azken urteotan ezarritako erreformak bertan behera utzi, soldatapeko ez diren errenta guztiak iraungitze epea baino lehenago ikuskatu eta gizartearen parte hartzea bide formal zein informaletatik gauzatu.
 - Demokrazia sakontzea, parte hartzea, herritarren kontsultak eta abar ahalbidetuz.
- Zor publikoaren auditoria bat egin eta zati ilegítimoa ez dela ordainduko adieraztea.

Bermatu egin behar da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, eta alor guztietara hedatu genero-ikuspegia.

Bestelako Europa bat eraiki behar dugu. Goitik beherako aldaketa galdatzen dugu Europa eraikitzeko prozesuan, herritarren interesak enpresen eta kapitalaren interesen gainetik jar daitezten. Izan ere, Europaren krisia bere politiken krisia da. Europa sozial, demokratiko, solidario eta bidezko bat behar dugu, eta eraiki daiteke, baina ez gaur egun daraman norabidean. Horregatik, egunetik egunera premia handiagoa da norabide-aldaketa.

10. Mobilizazioaren premia

Aurreko kongresuan genioenez, "herritarren zerbitzura egon behar du ekonomiak, batez ere herritar xeheen zerbitzura, eta politikak ekonomiaren gainetik egon behar du. Ez da egia egin daitekeen politika bakarra eskuinekoa, neoliberala eta atzerakoia denik". "Gobernuek eta eragile politikoei uko egin diote, antza denez, aberastasuna

banatzeari, eta kapitalaren eskarien kudeatzaile bihurtu dira; bien bitartean, suntsitzen ari dira zuzenbide laborala eta haren babesa, orain arte -gutxi-asko- izan dugun ongizate-estatuaren funtsezko osagaiak alegia”.

Alabaina, uste dugu gobernuek eta administrazioek ez dutela eramango beren agendetara inongo politika alternatiborik gizartea ez bada mobilizatzen eta arriskuan jartzen elite politikoen estatusa. Islandiako esperientziak, adibidez, garbi erakutsi digu. Greziakoak, berriz, beste hau irakatsi digu: elite horiek noraino iristeko gai diren gizartearen eskarietako bat ez onartzearen.

Krisiaren hasieran ekin genion bidetik -2009ko maiatzeko greba orokorra- jarraitu behar dugu. Harrezkero, beste lau greba ere egin dira, eta mobilizazioak, protestak eta proposamenak plazaratu ditugu. Lehenetsi egin behar dugu mobilizazioa, eta, metodo tradizionalekin batera, bestelako mobilizazio-bide batzuk asmatu.

Horretarako, aliantzak eraikitzen jarraitu behar dugu. 2012ko hasieratik hona zenbait sindikatu eta gizarte-mugimendurekin egin dugun bidea oso interesgarria da, eta hortik jo behar dugu aurrerantzean ere, bai hemen, bai nazioartean.

11. Bestelako ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-eredu bat

Diru bihur daitekeena bakarrik hartzen du aintzat egungo ekonomia-ereduak. Horrenbestez, funtsezko zenbait alderdi ekonomiaren eremutik kanpora geratzen dira, ez baitaie balio ekonomikorik ematen. Baina gizakiok bi faktore hauen mende gaude: natura, batetik, eta beste gizaki batzuek eskaintzen diguten denbora, bestetik (etxeko zaintza-lanak, alegia, zeinak emakumeek egiten dituzten batik bat). Bai natura, bai denbora mugatuak dira, ordea.

Naturaren muga materialei bizkarra emanda dihardu sistemak, eta, zenbaitetan, gainera, neurririk gabe ekiten die. Bestalde, ez zaio jaramonik egiten etxeko lanari (“gizarte-erreproduktzioa” deritzon horri), eta soldatapeko lan bihurtzen denean, oso kondizio eskasetan izan ohi da.

Gaurko produktio, banaketa eta kontsumo ereduak naturaren eta pertsonen aurkako gerrari ekin dio. Hego Euskal Herrian daukagun sistema mantendu eta hedatzeko hiru planeta baino gehiago beharko lirateke; gaur ezinbesteko diren material batzuk (esaterako, petrolioia edo ur geza) gainbehera argian daude; soluzio teknologikoekin ez dira funtsezko arazo hauek konponduko. Hortaz, hazkundearen egungo logika jasangaitza da. Ekonomiaren alderdi materialaren desazkundea gertatu egingo da; kontua da justiziaz izango den ala egungo desberdintasun eta arazoak larriagotuko ote dituen. Halaber, sistema kapitalista saiatu egingo da, baita egoera honetan ere, hazkunde ekonomiko itxurazko eta espekulatibo bati eusten. Horregatik, langileok bultzatu behar dugu desazkunde material hori desazkunde ekonomiko arduratsun batekin lotuta egotea, prozesu bien oinarrian justizia eta oreka soziala zein ingurumenekoa izan daitezen.

Desazkundearen proposamenak ez dira amaitzen herri aberatsetan produktio eta kontsumo maila murrizteko eskariarekin. Desazkundearen inguruko eztabaidarekin batera doa gaur gizartean nagusi diren balioak ez diren beste batzuren aldeko hautua.

Jarduera ekonomiko guztiak ez dira onuragarriak gizartearentzat, ezta gutxiagorik ere. Hortaz, desafio gero eta premiazkoago honi ekin beharko diogu hurrengo urteotan: bestelako ekonomia bat eraiki behar dugu, non ekoizpenaren oinarria bizitzari eustea den, ez bizitza suntsitzea.

Ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-ereduaren erabateko aldaketa aldarrikatzen dugu, bizitzari lehentasuna ematea. ELAren mendeurreneko adierazpenean (2011ko uztailea), berretsi egin genituen gure klase-izaera eta gure abertzaletasuna, eta, horrez gain, beste hau ere azpimarratu genuen: ingurumenarekin lotutako gaiei gero eta arreta handiagoa egin behar zaiela. Eredu feminista ere funtsezko erreferentzia dugu alternatiba hori eraikitzeko, non bizitzaren iraunkortasuna den ardatza.

Horretarako, baina, aurre egin behar zaio zerbitzu publikoen deslegitimazio ideologikoari, haien hondamenari eta pribatizazioari. Halaber, konzientziazio-lan berezia egin behar dugu langileen artean, lantegietan jarduten baikara, eta ingurumena zaintzen eta bizitza lehenesten duten ekoizpen-ereduak aldarrikatu behar ditugu, eta eredu horiek abiarazteko trantsizio-prozesuak. Trantsizio hauek egun eragindako arlo eta enpresetan diharduten langileen etorkizuna aintzat hartu eta bermatu behar dute.

Ez da berria, inondik ere, proposatzen ari garen ikuspegia, ezta guk asmatua ere. Zenbait gizarte-mugimendurekin (sindikatuak, talde ekologistak, feministak...) partekatzen dugu irizpide hori, eta bat gatoz egoeraren diagnostikoan eta helburuan: herritarren bizimodua hobetzea, naturarekin bat eginik, gizakia-natura harremana jasagarria izan dadin.



AUKERA BERRIAK EUSKAL NAZIOAREN ERAIKUNTZAN

Txosten konfederaleko azterketa sozialaren, ekonomikoaren eta politiko-aren osagarri, autogobernuaren, demokraziaren eta giza eskubideen egoera ere aztertu behar dugu, baita normalizazio politikoa eta baketze-prozesua ere. Gai horien guztien ikuspegi argia izan behar du gure konfederazioak, euskal nazioaren eraikuntzarekin, demokraziarekin eta langileekin duen konpromisoa berresteko hurrengo lau urteotan.

1. Areagotzen ari da Espainiako estatuaren joera zentralista eta uniformizatzailea

Alor instituzionalean, Patxi Lopez lehendakari izendatzea ekarri zuen PSE-EE eta PPre arteko hitzarmenarekin hasi zen kongresu arteko garaia, ezker abertzaleari hauteskundeetan parte hartzea galarazi ondoren. Itun hura kontraesankorra zen klase-ikuspegitik, eta Euskal Herritik kanpora ezingo zatekeen inon sinatu. Helburuari dagokionez, hona hemen zer zuen: autogobernuan sakontzea eragoztekoa eta EAEko autonomia-prozesua harmonizatzea. Izan ere, zenbait nazionalista espainiarren iritziz, “eskuetatik alde egiten ari zitzairen” prozesua. Bestalde, euskal nortasunaren (hizkuntza, kultura, lurraldetasuna, naziotasuna...) adierazpenak kendu nahi ziren hizkuntza-politikatik, hezkuntzatik eta komu-nikabideetatik, besteak beste.

Buruzagi sozialista ezagun baten hitzak ditugu horren adibide garbiena -Lopez lehendakari izendatuta “Euskadin trantsizio politikoa osatuta” zegola esan zuen, eta kongresu honen ikuspegiarekin bat zetozen: PP-PSEren arteko aliantzaren helburua zen normaltasunez hornitzea Espainiako estatuan Trantsizio Politikoak ekarri dituen ondorioak: bipartidismoa, monarkiaren onespina, hizkuntza-uniformizazioa, sindikatuek bat egitea gobernuaren politikekin...

Nafarroan, 2011n, antzeko helburuekin osatu zuten koalizio-gobernua UPNk eta PSNk. Nafarroako aurreko presidentek, Sanzek, ondo asko argitu zuen itunaren zergatia eta bere alderdiaren zatiketa: PSNrekin lankidetzan jarduteko eremu bat behar zuen UPNk, sozialistek euskal abertzaleekin gobernu-hitzarmenik sina ez zezaten eta, bide batez, euskal kulturaren eta nazioaren eskubideek aurrera egin ez zezaten. Gobernu-koalizioaren haustura gorabehera, ikuspegi horrek bere horretan jarraitzen du.

Azkeneko lau urteotan, lan-harremanetan eta politika ekonomikoetan nabaritu da, batez ere, uniformizazioa eta zentralizazioa. EAEEn, helburu horrekin abiarazi zuten -segituan- elkarrizketa soziala, gutxiengo sindikalarekin, edo transferitu zituzten

enplegu-politika aktiboak, edo gertatu ziren Osalaneko kontuak edo partaidetza soziolaboraleko organoetakoak.

Hedabide nagusiek harrera ona egin zioten elkarrizketa sozialari hasierako hilabete haietan. Krisi-garaian kontzertazio-politikak adosteaz gain, ordea, bazuen bestelako helbururik ere elkarrizketak. Zehazki, hiru: legitimazio soziala ematea erabaki judizial bidegabe baten ondorioz eraturako gobernuari; patronalaren desprestigioa eragozteak, izugarritzko enplegu-erregulazioa bultzatzen ari baitzen, eta, azkenik, herritarrei sinetsaraztea gehiengo sindikala (gurea, bereziki) bazterrera utzita gizartearentzat erabaki onuragarriak har daitezkeela.

EAEko elkarrizketa sozialak ez zuen ekarri inongo emaitza aipagarririk, klase-ikuspegitik begiratuta, bi hauek izan ezik: batetik, babes eman zion politika neoliberalen aplikazio zorrotzari; bestetik, legitimotasuna eman zion EAEko patronalari, gure sindikalismo-ereduaren etsai amorratuari alegia. Dena dela, elkarrizketa sozialetik ezer gogoratzekotan, balantze ekonomikoa aipatu behar da: izan ere, haren bidez finantzatzen dira sindikatuak eta patronala, murrizketa-garaiak izan arren.

Antzekoa izan da Nafarroako elkarrizketa soziala ere, bai emaitzei, bai helburuei dagokienez. "Nafarroarako Garapen Ekonomikoko eredu berri bati" buruz etengabe jardun arren, ez dituzte aipatu ere egin aberastasunaren banaketa, en-plegu-politikak, behin-behinekotasunaren aurkako borroka, gastu sozialaren defizita, zerga-sistemaren bidegabekeria, doitze-politikak... Gai horiek jorratu ez izanak garbi uzten du elkarrizketa soziala deritzon horrek ez diela ekiten gizarte-ereduz aldatzeko ezinbestekoak diren gaiei, eta babes sindikala ematen zaiola langileen interesen aurkako politikari.

UGTk, CCOOek, LABek eta Confebaskek egindako saio hutsarekin, euskal esparruan sektore-hitzarmen probintzialen eragina blindatzeko akordio bat lortzeko ahaleginarekin alegia, berriro agerian geratu da zenbait eragileren lehentasuna zein den, ELAren sindikalismo-eredua desprestigiatzea, gure posizioa eta estrategia ahultzea.

Negoiazio kolektiboaren erreforma -Zapateroren gobernuak onartua, UPNren laguntzarekin- dugu lankidetzaren horren adibide bereziki larri bat, kendu egiten baitie euskal sindikatuei beren jardura-alorrean hitzarmenak negoziatzeko ahalmena. Klase-ikuspegia alde batera utzita, euskal langileen eskubide nazionalen aurkako erabakia ere bada, galarazi egiten baitaie beren borroka kolektiboko esparrua zehaztea. Erreforma baztertzaila dugu, beraz. Klase-ikuspegitik begiratuta, ari dira nabaritzen jada haren kalteak UGT eta CCOO sinatzen ari diren negoziazio kolektiboko eta egiturazko hitzarmenetan.

EAEko enplegu-politika aktiboen transferentziari dagokionez, berriz, elkarrekin negoziatu zuten, zuzenean, Espainiako gobernuak eta EAJk. Transferentzia harekin, Autonomia Estatutuaren irudia hobetzen saiatu ziren haren bultzatzaileek, oso ahulduta zegoen eta. EAJk, berriz, Patxi Lopezen gobernuak zigortu nahi zuen, hauteskundeak irabazi gabe eskuratu baitzuen lehendakaritza. Larriena, dena den, hau da: Eusko Jaurlaritzaren (eta ELAren) betiko jarrerari bizkarra emanda onartu zirela eskumen haiek, hau da, enplegu-politika aktiboak ez onartzea pasiboak ere ez badira transferitzen. Finantza-ikuspegitik, erabateko hondamena izan da transferentzia EAerentzat; gainerakoan, ez du uzten gure eremuan aplikatu

beharreko enplegu-politikak zehazten. Hori dela eta, Espainiako estatuak erabakitzen dituen politikak aplikatu eta kudeatu behar ditu, nahitaez, EAEk, OCDEko langabezia-tasarik handienak ekarri dituzten politikak alegia. Oso kaltegarriak dira, beraz, langileentzat. Lanbideren sorrera izan du amaiera prozesuak, non sektarismoa eta gaitasunik zein eraginkortasunik eza izan diren ezaugarri nagusi.

Laneko osasunari dagokionez ere Eusko Jaurlaritzak hartu du hainbat erabaki, eta atzerapauso politiko garbia eragin dute. Espainiako Laneko Arriskuak Prebenitzeko Lan Fundazioari (EAEko mutualitateen antzekoak) dirua eskatzeak, adibidez, estatuko eredura makurtzea eta Madrilgo "leihatilatik" pasatu beharra ekarri ditu ondorioztat, nahiz eta funts horiek EAERI dagozkion, legez. Era berean, Osalanen eta Eraikuntzako Lan Fundazioaren arteko hitzarmenak ondorio hau ekarri zuen: EAEko eraikuntzako langileak Espainiako estatukoekin parekatzea, estatu mailako fundazio pribatu baten irizpideak onartzea eta Osalanen gela iraunkorra haren zerbitzura jartzea.

Halaber, egin beharreko araudi-aldaketak egin dira EAEko gehiengo sindikalak aintzat har ez ditzaten ez EAEko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialean, ez Lan Harremanetarako Kontseiluan, nahiz eta EAEko Justizia Auzitegi Gorenak erabakia zuen honako hau: organo soziolaboraletako ELAren partaidetza bertan behera geratu ondoren, legez kanpokoa eta onartezina zela gure ordezkaritza gainerako sindikatuen artean banatzea. Gauzatu egin da, hortaz, Lopez lehendakariaren eta Zabaleta sailburuaren eskutik, ordezkaritza usurpatzeko bidea ematen duen lege-aldaketa, lehenbiziko urratsak Ibarretxeren garaian egin baziren ere. Prozesu horren helburua, berriz, hau zen: gure sindikatuaren salaketa isilaraztea, eraso neoliberalaren testuinguru honetan erakunde soziolaboralek ezertarako ez dutela balio aspaldi ari baikara aldarrikatzen.

Krisi-garai honetan Kontseilu Ekonomiko eta Soziala eta Lan Harremanetarako Kontseilua egiten ari direna ere salatu dugu. Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak, adibidez, justifikatu egin ditu prestazio publikotan egindako murrizketak, eta diru-sarrerara publikoen iturria koordainketak izan behar duela adierazi du (dirudienez, zerga-politika zertarako den ez daki KESEK); Lan Harremanetarako Kontseiluak, berriz, bikain ase ditu patronalaren nahiak, hitzarmen kolektiboak "egoerari egokitu" behar zaizkiola adierazi du eta. Honenbestez, behin betiko ondorio honetara iritsi da ELA: organo horietan parte hartu nahi baldin bada, ez da esan behar patronalaren edo gobernuaren gustuko ez den ezer.

Bestalde, langileentzat bereziki kaltegarria izan da EAJk eta Zapateroren gobernuak bat egin izana. Enplegu-politika aktiboek dagokienez ez ezik, langileen lan- eta gizarte-eskubideak larriki urratzen dituzten zenbait erreforma Gorteetan onartzeko ezinbestekoa izan zuen gobernuak EAJren laguntza. Gogora dezagun zenbait greba orokor eta mobilizazio egin direla gure herrian erreforma horien aurka, baita Rajoyren gobernuak onartutako aurka ere. UPNri ere leporatu dakioke esan dugunetik asko, gobernu sozialistarekin harreman onak izan baititu; gogora dezagun, adibidez, pentsioen erreforma, 2011ko urtarrilekoa.

Krisi ekonomikoa lotsagabe ari dira baliatzen birzentralizatzeko dinamikak ezartzeko, gure autogobernua murrizten duten oinarri-legeen gehiegizko erabilerarekin. Hala gertatzen da, esaterako, ekonomia- eta aurrekontu-politikarekin. ELAk behin eta berriro salatu du Gasteiz eta Iruñeko gobernuak makurtu egiten direla Espainiako gobernuaren aginduetara defizitari eta zor-jaulkipenari dagokienez. Gure

autogobernuaren aurkako jokabide onartezina da bi gobernuena, eta, gainera, ez dator bat gure diru-kontuekin. EAEn, udazkeneko hauteskunde-

kanpainari begira PPrekiko haustura iragarri ondoren, Lopezek ez du ukatzen hemen ere egingo dela murrizketarik. Nafarroan, berriz, Barcina presidenteak gobernutik bota eta gero hasi dira sozialistak kutsu aurrerakoa berreskuratzen. Itxura hutsa.

Testuinguru horretan, bada, etsigarria izan da ez ikustea benetako oposizio politikorik, kongresu arteko garaian, gobernura iristeko aukera zutenen artean. Orokorra eta sistematikoa da hitzarmen instituzionala, zerga- eta aurrekontu-politikari eta gai soziolaboralei dagokienez. Hartara, ikuspegi neoliberala ondo gotortuta geratzen da erakunde guztietan, edozeinek gobernatzen duela ere.

Hona hemen, bada, zer ikusten dugun atal honi dagokionez: joko-arau oinarrizkoenak ere urratu ditu espainiar zentralismoak Euskal Herrian bere helburuak lortzearen: arerio politikoak paretik kentzea, lan-harremanen uniformizazioa, eta sindikalismo guztiz otzana, politika neoliberalen laguntzailea.

2. Estatuak ez dio ekin nahi normalizazio politikoko prozesuari

2011ko urrian iragarritako jarduera armatuaren behin betiko amaierarekin bukatu ziren hilketak, mehatxuz eta jazarpenez betetako zenbait hamarkada, baita gure herriaren interes nazionalentzat kaltegarria izan den estrategia politiko onartezin bat ere. Beste arrazoi askoren artean, legez kanpo zegoen sektore politikoaren ahaleginagatik lortu da jarduera armatuaren amaiera, bide baketsu eta demokratikoen alde egiteko erabaki aldebakarra hartu ondoren. Horregatik, positibotzat jo ditu ELAK norabide horretan eman diren pauso guztiak.

Jarduera armatuaren amaieraren ondoren zenbait gairi buruzko elkarrizketa eta konpromisoak behar direla uste zuen (eta uste du) ELAK. Lehenik eta behin, premiazkoa da Espainiako eta Frantziako gobernuak “elkarrizketak hastea gatazkaren ondorioei buruz, soilik, hitz egiteko”, 2011ko urrian Aieten egin zen Nazioarteko Konferentziaren Deklarazioak zioen legez. Elkarrizketaren eta negoziazioaren alde egiten du, bada, ELAK, trantsizioa erraztearen, zaila izango dela bai baitaki. Desarmearekin lotutako gaiez gain, bestelakoak ere jorratu behar lituzke elkarrizketak, bizikidetzarako eta gure herriaren normalizazio politikorako ezinbestekoak baitira; besteak beste, presoen eta erbesteratuen egoera, pertsonala zein kolektiboa.

Espainiako gobernuak, ordea, ez dio ekin nahi indarkeriaren amaiera ordenatua kudeatzeari, antzeko arazoak izan dituzten beste herrialde batzuetan ez bezala, eta gizartearen gehiengoak diotenaren aurka. 2001eko abenduan PPK eta PSOEk izenpetu zuten askatasunaren aldeko eta terrorismoaren aurkako itun hura du sorburu ezezoak, zeinak nazioarteko eragile askoren harridura ere eragiten duen. Batetik, oinarrizko askatasunak eta eskubideak murrizteko aitzakiatzat erabili da itun hura - gure inguruko sistema politikoetan parerik gabea eta “eraso antiterrorista orokorraren” sasoian sinatua-; bestetik, euskal abertzaletasuna, oro har, deslegitimatzeko ere baliatu dute.

3. Eskubideen urraketa; adostasun eza gai larrietan

Eskubide-urraketa larriak ekarri ditu, bada, itun hark, eta oso zaila da haien kudeaketa. Besteak beste, hor ditugu: zigor-kodearen eta espetxe-araudien aldaketak; zuzenbidearen aurkako espetxe-politika (sakabanaketa), presoeri eta haien senitartekoei gogor ekiten diena; gaixorik dauden presoen egoera; kartzelaldien luzapena; lehen espetxe-mailaren aplikazioa; egunkariak eta bestelako komunikabideak ixtea; alderdi politikoak, gizarte-elkarteak eta erakundeak (Udalbiltza) legez kanpo uztea; erreibindikazio politiko eta sozialen aurkako errepresioa, gero eta gogorragoa; torturak eta tratu txarrak; sekula atxilotu ez den jendeari buruzko polizia-fitxak; militante politikoen jazarpena eta kontrola; atxiloteta indiskriminatuak eta “express” bahiketak; desagerpenak, argitu gabeko hilketak, eta, azkenik, “txikle erako” sumario judizialak, esaterako 18/98 auzia.

Aparte aipatu beharrekoa da, bestalde, erakunde judizialen jokabidea. Estatuko bi alderdi politiko nagusiek izendatzen dituzte auzitegietako goi-kargudunak, eta, Euskal Herriko normalizazio politikoarekin lotutako gaietan, agintean den gobernuaren jokabide errepresibo eta antidemokratikoaren laguntzaile (edo sustatzaile) izaten dira epaitegiak.

ELAk maiz salatu ditu (eta hala egiten jarraitzen du) zuzenbidearen aurkako urraketa horiek guztiak. Hain da larria egoera, ezen terroristekin edo euskal abertzaleekin bat egitea egotzen baitzaio, estatu espainiarrean, itun antiterroristaren alderdiren bat aldatzea proposatzen duen eragile sozial, politiko, sindikal orori. Zoritxarrez, estatuko inongo eragile garrantzitsuk ez du bultzatzen gatazkak konpontzeko inolako pedagogiarik, edo, halakorik egiten badu, larrutik ordaindu behar izaten du.

Segur aski, Rajoyren immobilismoaren atzean hau dago: alde baten eskubide-urraketak bakarrik kontuan hartzeko asmoa, eta independentziaren aldeko eremu sozial eta politiko baten iraunkortasuna eta garrantzia ez onartzekoa.

Horren guztiaren ondorio mingarrienetako bat adostasunik eza da, oraingo eta geroko bizikidetzak funtsezkoak dituen hainbat gairi buruzkoa alegia. Jakina, gai horietatik garrantzizkoena oroimenari eta biktimei (biktima guztiei) dagokiena dugu. Gaurkoz Euskal Herrian ez dago adostasunik ezta giza-eskubideen urraketa guztiak edo gehienak jasotzen dituen zerrenda ordenatu baten inguruan ere. Oraindik bide luzea dago egiteko hainbat kontutan: iraganari buruzko egia argitzea, biktima guztien memoria aintzat hartu eta justizia egitea, baita halako bidegabekeriak ez direla errepikatuko berma dezaketen tresnak (juridikoak, instituzionalak, hezkuntzakoak, etab.) izatea ere.

Azkenik, hemengo Barne Sailaren politika ere aipatu beharrean gaude. Hor daude, besteak beste, Cabacas gaztearen heriotza, edo Herritarren Segurtasunerako Legea (PSE eta PPren botoekin onartua), zeinaren aurka azaldu ziren Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren gure atal sindikalak. Prebentzioaren ginetik erreakzioa hobesten du araudi horrek, eta ez ikusiarena egiten die gero eta gehiago hedatzen ari diren herritarren pobretzeari eta bazterketa sozialari (gizarte-babesari, enpleguari, hezkuntzari, zaintzari... egindako murrizketen ondorio). Hain zuzen ere, pobretze eta bazterketa hori dira “segurtasun-arazoak” deritzen horietako askoren sorburua.

4. Gero eta onespen eskasagoa du Espainiako Trantsizioaren ondorengo sistemak

Aipatu dugun guztia gorabehera, gaur egun zalantzan ari dira jartzen hiru hamarkadatan tabu ukiezin izan diren Trantsizio Politikoko zenbait elementu. Hor ditugu, adibidez, oroimen historikoaren aldeko erakundeen lan txalogarria, edo monarkiaren deslegitimazio nabarmena. Gogora dezagun frankismoak ezarri zigula monarkia, Trantsizio Politikoa aurretik. Hor dugu, bestalde, Espainiako estatuan eroso sentitzen ez diren nazioen ezinegona (Katalunia eta Euskal Herriarena, adibidez). Izan ere, bere nortasunarekin obsesionaturik dabil Espainiako estatua. Horrenbestez, Euskal Herrian fase berri bati ekitearen aurkako estatuaren immobilismoa elikatzen dute faktore horiek guztiek. Aurreko kongresuak eman zuen jada iritzia EAeko estatutu politikoa aldatzeko Eusko Legebiltzarrak egin zuen proposamenarekin gertatu zenari buruz. Katalunian, berriz, eskandaluzkoak izan ziren hainbat gertakari (politikoki oso pedagogikoak izanagatik ere): Zapatero presidentearen jokabidea, ez baitzuen onetsi parlamentu katalanaren %90ak babestutako estatutua; gero parlamentuko tramitean (PSOEek gidatuta) egin zioten mozketak; PPK Auzitegi Konstituzionalean sartutako errekurtsioa eta egindako sinadura bilketa, eta goi-azuzitegiaren azken epaia. Prozesua etsigarri honek, besteak beste, ekarri zuen gero etorri zen kontsulta prozesua eta duela gutxi herri katalanak egin zuen manifestazio erraldoia, Europan izango den estatu independente bat aldarrikatuz.

Gainera, egungo krisiaren testuinguruan, gero eta zabalduagoa dago honako uste hau: oligarkiari eta botere ekonomikoei oso mesedegarria izan zitzaion Trantsizioa. ELAren iritzian, ez da kasualitate hutsa Europako erakundeen esku-hartzea behar duten herriak hauek izatea: Bigarren Mundu Gerraren ostean, hainbat hamarkadaz, diktadura izaten jarraitu zutenak, hots, Espainia, Grezia eta Portugal. Are nabarmenagoa da hori oligarkia ekonomikoen demokraziaren aurkako despotismoa ikusirik, eskubide sozialak zein laboralak eta askatasunak murrizten baitituzte, eta funtsezko erakundeak lege-aldaketak egitera behartzea (Espainiako Konstituzioa, adibidez, 2011ko abuztuan). Faxismo baten aurrean gaude, non gizartearen lorpen guztiak suntsitzen diren eta demokraziaren alderdi formalak bakarrik "ametitzen" diren. Alderdi politiko tradizional handiak joko horretan murgildu dira, eta gutxi dira botere ekonomikoen jabetzapetik kanpoko komunikabideak.

Espainiako gobernuaren erantzunak, gainera, errepresio gehiago dakarte: greba-eskubidea are gehiago mugatzeko araudi bat prestatzekoan da, eta zigor-kodea ere aldatu nahi du, antza, bere politika antisozialek eragiten duten protesta sozialari aurre egiteko. Hain zuzen ere, protesta (antolatua edo bat-batekoa, betiere haserreak eragina) du helburu mehatxu horrek.

Aparte aipatu beharrekoa da ustez ETAren mehatxuagatik Euskal Herritik alde egindakoei hemen bozkatzeko eskubidea emateko Espainiako gobernuaren asmoa. Hor ikusten dira, beste behin ere, Espainiako eskuinaren ezaugarriak: hauteskunde-iruzurraren, xantaiaren eta inposaketaren zale amorratua.

5. Euskal abertzaletasunaren hegemonia izateko norgehiagoka

Gure herrian gertatzen diren hainbat eta hainbat gauza estatuaren joera zentralista, uniformatzaile eta errepresibo horren ondorio dira. Horrenbestez, erantzun bateratua eman behar lukete subiranotasunaren, giza eskubideen eta demokraziaren aldeko indarrek. Zoritxarrez, ez da halakorik geratzen ari. Izan ere, egungo egoera politikoaren beste osagai nagusietako bat hau dugu, ELAren iritziz: euskal abertzaletasunaren hegemonia nork bereganatuko dabilen borroka, EAJren eta EH Bilduren artean (ezker abertzalearen inguruan eratutako lau alderdiren koalizioa).

Bi indar horiek ahaleginean ari dira beren eremu sozialak, politikoak eta elektoralak zabaltzeko, eta polarizazio-dinamika nabarmena eragiten. Polarizazio horren helburua da gainerako talde sozialak, kulturalak edo politikoak (batzuk, inongo alderdirekin loturarik ez dutenak) mutur batera edo bestera bultzatzea eta, hartara, nortasun politikoen mapa sinplifikatzea.

Nagusitasuna eskuratzeko borroka horrek, baina, hutsik utz lezake beste edozein eremu, hankaz gora jar litzake aurretikako lankidetzak politikoak eta sozialak (gehiengo sindikala, adibidez), eta, sarri askotan, zenbait eztabaida sozialen konponbidea galarazi eta gatazkak eragiten ditu.

Ondorio garrantzitsuak dakartzio borroka horrek klase-erakunde abertzale bati; gureari, hain zuzen ere, aliantzei dagokienez batez ere. Hona hemen aipagarrienak:

Hauteskunde-prozesuei eta berrespen instituzionalari ematen zaie lehentasuna, borroka sozial eta politikoaren eta jardun kulturalaren beste eremu batzuen gainetik.

Polarizazio hori dela eta, arriskutzat hartzen dituzte euskal esparru politikoan dauden bi joeren menpeko ez diren nortasun politiko eta sozial batzuk (gure erakundea, adibidez). Izan ere, erne egon beharra daukagu, jarrera kritikoz jardun eta kontraesanak nabar-mendu, klase-ikuspegitik betiere, halaxe agintzen baitigu geure izaerak. Gure jarrera hori, ordea, baliteke mehatxutzat ikustea alderdi abertzaleek.

Izan ere, polarizazio-borroka horrek, kosta ahala kosta, sinplifikatu, bereizi egin nahi ditu esparru politikoak, berezkoa baitute alderdiek hauteskundeetan, erakundeetan eta sisteman lehiatzeko grina. Hori dela eta, partekatzen dituzten aldarrikapenak lausotu egiten dira, eta bereizten dituzten alderdiak azpimarratzen dituzte. Are okerragoa: aliantza-politika kolokan jartzen dute. Ahalik eta esparru gehien berenganatzea dute helburu, eta polarizazioarekin bat ez datozenak edo jokabide hori salatzen dutenak urruntzea.

Hala, bada, polarizazioaren logika lehenetsita, gerta liteke hankaz gora geratzea erakunde abertzaleen arteko joko-arauak eta harreman-kodeak. Ez da harritzekoa, beraz, gure erakundearekin harreman normalizatua izateko bi blokeen ezintasuna.

Hegemonia eskuratzeko borroka horren ondorioz larriena, gure iritzian, hau da: praktikan, gutxietsi egiten ditu krisi-garai honetako borroka sozialak eta herri xehearen aldarrikapenak. Ohiko jarduera politikoan, izan ere, etengabeko lehian aritzen dira alderdiak komunikabideetan eragin handiagoa nork izango, ordezkari-tza instituzional handiagoa zeinek eskuratuko, honako edo halako sigla nagusituko... Logika horren arabera, "interes orokorraren" diskurtsoa -sobera ezaguna- nagusitzen da, eta lausotu egiten da arlo soziala. Beraz, gatazka politikoaren ardatza

komunikabideen alorrera aldatzen da, hedabide nagusietara, kapitalaren mendekoak guztiak ere.

Nagusitasun-nahi horrek, ordea, oportunitate politikoa dakar berekin. Horren adibide dugu zenbait plataforma (pluralak, ustez) etengabe sortzen aritea: sozialak, politikoak, errepresioaren aurkakoak... Lan egiteko era hori, berriz, oso kaltegarria da elkarlanerako eta indar-metaketarako, alderdien arteko lehiak bereganatzen baitu lehentasuna. Horregatik egin zion uko gure erakundeak, esaterako, Gernikako Itunean parte hartzeari.

6. Homologazio instituzionala, alor sozialaren gainetik

Onespen instituzionala eskuratzeko ahalegina da beste fenomeno garrantzitsu bat egungo euskal politikagintzan. Zeri deritzogun “onespen instituzionala”? Bada, eragile politikoek -abertzaleak, gure kasuan- gizartearen, beren boto-emateen eta iritzi publikoaren aurrean beren buruak “saltzeko”, alor publikoa eta instituzionala kudeatzeko -gobernatzeko, azken batean- gai direla erakusteko egiten duten ahaleginari. Mekanismo sozial eta politiko garrantzitsua da ahalegin hori, nahiko mugatua baita lehia politikoak onartzen duen nortasun politiko, indar, jardura eta aldarrikapenen kopurua.

EAJ, UPN eta estatuko bi alderdi nagusiak indar aski onetsiak dira alor instituzionaletan. ELAren iritziz, bistakoa zen ez zela batere aldatuko urteotan politika publikoen joera neoliberalak hiru indar horiek aspalditik gobernatzen dituzten administrazioetan (foru-, autonomia-erkidego eta estatu-mailakoak).

Horregatik, zorrotz aztertu du ELAk zerk ondorio izan zitzakeen, justizia sozialaren eta herritarren partaidetzari dagokienez, Bilduk Gipuzkoako foru-aldudia eta hainbat eta hainbat udal bereganatu izanak. Zoritxarrez, ez du alda-keta sakonik ekarri zerga-, aurrekontu- eta partaidetza-politiketan. Hala eta guztiz ere, positibotzat jo ditu gure konfederazioak koalizio horren beste zenbait erabaki; obra publikoetako lan-kondizioei buruzkoak, adibidez. Dena dela, uste dugu, oro har, lehentasuna ematen diola Bilduk bere homologazio instituzional, sozial eta politikoari, gobernatzeko konpromisoak hartzeko gai den indarra dela erakusteari.

Gogoan du ELAk zenbait erabaki hartu aurretik -zerga-politika, Kutxabank- Bildu ez dela saiatu gehiengo sindikalarekin ados jartzen, nahiz eta gehiengo horren jarduna txalotu egiten zuen erantzukizun instituzionalak bereganatu aurretik. Halaber, Bilduk ez die batere aukerarik eman sindikatuei politika publikoari eta zerga-politikari buruzko erabakietan parte hartzeko.

Hala, bada, zabalik da, berriro ere, aspaldiko eztabaida: nolako harremanak izan behar dituzte elkarrekin alderdi politikoek eta sindikatuek? Zenbateko presio soziala “jasan” dezakete alderdi eta koalizio aurrerakoiek erantzukizun instituzionalak berenganatzean eta boterera iristean? ELArentzat, printzipio absolutua da sindikatuak botere instituzionalaren eta alderdi politikoaren “mendeko ez izatea”. Printzipio horrek honetara behartzen gaitu: edukien arabera baloratzera hitzarmenak eta politikak, ez haien sinatzaileen edo bultzatzaileen arabera.

Gogora dezagun, beste behin ere: gure jardun sindikalak eta politikoak, gizartean eragiteko gure borondateak ez du inongo loturarik alderdien arteko hauteskunde-lehiarekin. Hamarkadak daramatza ELAk uko egiten hauteskunde-kutsuko ekimenetan parte hartzeari, inongo alderdi politikoren interesen arabera jarduteari. Hona hemen politikarekiko nahi dugun harremana: alderdiek onartu egin behar dute gure autonomia eta politikan eragiteko gure nahia.

7. Aukera berriak Iparraldeak aitortza instituzionala izan dezan

Ipar Euskal Herrian, lan egiteko era oso eraginkorra garatu da azken hamabost urteotan: elkarri uztartuta erabiltzen dira borroka soziala eta helburu jakin batzuekiko indar-metaketa. Helburu argiak, zehatzak, herritar guztiek ulertzeko modukoak dira, eta unean uneko indar-korrelazioarekin eta kontzientzia-mailarekin erdiesteko modukoak. Eraitza onak ekarri ditu (eta ari da ekartzen) lan hori, zenbait alorretan: Laborantza Ganbara, Abiadura Handiko Trenaren aurkako borroka...

Bestalde, Ipar Euskal Herriaren aitortza instituzionalaren gaia da nagusi, gaur egun, mugimendu abertzalean. Garapen Kontseiluaren eta Hautetsien Kontseiluaren lanak berretsi egiten dute metaketa-bide hori, eta aurrera eraman daitekeen bakarra hori dela erakusten dute. Hautetsien Kontseiluak, zehazki, bere jarrera azaldu zuen, irailaren 6an, Ipar Euskal Herriarentzako aitortza-estatutu bat eskatzeari buruz. Bilera haren alderdi negatibo bakarra Iparraldeko hautetsi sozialista batzuen jarrera-aldaketa izan zen, Hollande Frantziako presidente hautatu eta gero.

Nolanahi dela ere, Iparraldeko historia hurbilean ez da inoiz izan hain egoera aproposik erakunde espezifiko hori eskuratzeko. Ikuspegi politiko guztietako hautetsiek egin dute bat eskariarekin, zeinaren bultzatzaile, betidanik, abertzaleak izan diren. Bestalde, borroka armatuaren amaierak ahuldu egin ditu immobilisten argudioak, eta giro politiko berri bat sortu da. Horrez gain, zenbait iritzi-emaile ezagunek ere bat egin dute eskariarekin. Laburbilduz, 1981ekoa baino askoz ere hobea da egungo egoera.

Frantziako estatuko gobernuak (sozialista) zer jarrera hartuko duen ikustea falta da orain. Edozein delarik ere eraitza (aitortzak aurrera egiten badu, edo, aitzitik, Iparraldeko herritar gehienek nahia zapuzten bada), ziklo berri batean sartuko da Iparraldea, eta nahitaez doitu beharko dira estrategiak.

2013a, bestalde, urte oso garrantzitsua izango da Iparralderako, 50 urte beteko baitira Enbatak Itsasuko Deklarazioa plazaratu zuela, Aberri Egunean hain justu ere. Mugimendu abertzale antolatuen lehen adierazpena izan zen hura. Aukera ona izan daiteke urteurren hori geroari begira zenbait eztabaida ideologiko eta estrategikori ekiteko.

Izan ere, badu nahikoa desafio mugimendu abertzaleak: krisi ekonomikoa; bake-prozesua eta presoak; euskararen irakaskuntza, erabilera eta ofizializazioaren aldeko borroka; abiadura handiko trenaren aurkako eta garraio kolektiboko zerbitzu egokien aldeko borroka; nekazaritzaren arazoak; Baionako unibertsitate-poloaren geroa; bertako txanponaren plazaratzea... Horrez gain, aurreikuspenek diote beste 30.000 lagun etorriko direla bizitzera Iparraldera. Jakina, horrek ere eragina izango du lurralde-antolamenduan, gizartean, kulturaren eta hizkuntzan. Nekazaritzaren gaineko

presioa, bestalde, izugarria da; paradoxikoki, herritar arruntek arazo larriak dituzte etxebizitza bat eskuratzeko.

Mugimendu abertzaleak gogoeta egin beharra dauka hainbat kontzepturi buruz: nazioa, herritartasuna, Lapurdiko iparraldeko kostaldearen egoera (erreferentzia urruna euskal jendearentzat), dagokion lekua aurkitu behar du gizarte-mugimenduan, eta erantzun sinesgarriak eman egungo arazo sozial, ekonomiko eta ekologikoei.

8. Bada garaia demokraziaren eta giza eskubideen alorreko gabeziak gaingintzeko

Bada garaia, bai, Euskal Herri osoan konpontzeko demokraziaren zenbait gabezia; adibidez, jarduera politikoaren judizializazioak eragindakoak, edo botere judizialaren politizazioak sortutakoak; botere-banaketarik ezaren ondorioak..., laburbilduz, Trantsizio Politikoaren garaitik arrastak dakartzagun guztiak eta itun antiterroristak erantsitakoak. Zehazki, ezinbestekoa da hamarkada honetan legez kanpo utzitako erakunde guztiak legezztatzea, eta eragindako kalteak pertsonalak zein kolektiboak) ordaintzea (zenbait egunkari, irriti eta aldizkariren itxierak, esate baterako).

Giza eskubideen alorrean ere eman behar da pausorik. Preso politikoak, adibidez, Euskal Herrira hurbildu behar dira; gaixorik dauden presoak, berriz, libre utzi, eta berriki egin behar dira "Parot doktrina" deritzonaren bidez egindako kondena-luzapenak, Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren epaiaren arabera. Bestalde, libre geratu behar dute legez kanpoko erakunde politiko eta sozialetan jardutea beste "deliturik" ez duten militante guztiak.

Oroimenaren eta biktimen gaiari, berriz, behar duen garrantzia eman behar zaio. Biktima guztiei eman behar zaie dagokien laguntza eta ordaina, eta etorkizunean eskubide-urraketa gehiagorik ez izateko bitartekoak ipini. Ahal den neurrian, hamarkada hauetan izan diren giza eskubideen urraketa guztiak argitaratu behar dira. Euskal gizarteak badu eskubidea (eta obligazioa) urraketa horien guztien berri jakiteko, edozein zutelarik ere jatorria eta eragilea.

Gure konfederazioak, klase-erakunde demokratikoa den aldetik, gogotsu jardun nahi du aurrerantzean ere zeregin horietan, eta ez du ikusten, berez, inongo eragozpenik oinarrizko eskubide politiko eta zibilen alde elkarlanean jarduteko zeinahi erakunderekin. ELAren iritziz, dena den, oinarrizko zenbait irizpide onartu behar dira lankidetzara horri ekiteko, azken hamarkada hauetan alor horretan izan den jarduera kontuan hartuta.

Lehenbiziko irizpidea honako hau da: elkarlanean jarduteko, ez dago zertan onartu beste erakunde politiko edo organismo sozial batzuen borroka historikoen legitimazioa. Gure iritzian, eskakizun eta eskubide-urraketa zehatz batzuen ingurukoak izan behar du lankidetzak.

Bigarren irizpidea, berriz, honi dagokio: norekin jardun lankidetzan. Izan ere, sarritan, ez da egiazko aniztasunaren alde egin oinarrizko eskubideen eta demokraziaren aldeko ekinean. ELAren iritziz, beste ezerk baino gehiagok erakusten du aliantzak egiteko (edo ez egiteko) erak zenbateko alde dagoen aldarrikatzen denaren eta egiazki nahi denaren artean. Hegemonia eskuratzeko borrokarekin loturik dago hori.

Eskubide zibilen, politikoen edo giza eskubideen aldeko plataformetan, adibidez, itun antiterroristarekiko babesak berrikusi ez duten zenbait erakunde onartzen dira, batere espiritu kritikorik gabe onartzen ere. Garbi erakusten du horrek, gure iritziz, plataforma horiek ez direla, beti, adierazten duten horren zerbitzura jarduten.

Hirugarren irizpidea, berriz, hau dugu: denen eskubide-urraketak eta sufrimendua ikusteko ezintasuna gainditzeko konpromisoa.

Laugarrena, azkenik, aliantza edo ustezko aliantza horiek kudeatzeko moduari dagokio. Euskal gizarteko eragile askok diote ez dietela babesik eman nahi sustatzaile jakin batzuek aurrez prestatutako dinamika eta programei, ustez pluralak diren plataformetan parte hartuz.

9. Erabateko burujabetzan aurrera egiteko garai egokia

Euskal Herriaren erabateko burujabetzaren eta autodeterminazio-eskubidearen alde maiz agertu izan da ELA, bai kongresuetan, bai bere Nazio Batzordearen hainbat adierazpen eta ebazpenen bidez. Halaber, askotan adierazi dugu indarrak metatu behar direla, estatu espainiarrak eta frantsesak ukatzen diguten eskubide demokratiko hori noizbait gauzatu ahal dezagun.

ELAren ustean, aldarrikapen hori ez dago, gaur egun, euskal erakunde politikoen lehenetsuen artean, nagusitasuna nork eskuratuko lehian ari baitira, batetik, eta homologazio instituzionala jaso nahian, bestetik, iritzi publikoari bestelako mezurik bidaltzen zaion arren. Honenbestez, ez bada egiten ahaleginik elkarrengana hurbiltzeko, proposamenak aztertzeko eta barneratzeko, malguagoak izateko..., burujabetzaren aldarrikapena ez aurrera ez atzera gera daiteke puska baterako.

ELAren iritziz, aurrera egiten ez bada, atzeraka egiten da. Horren adibide dugu lan-harremanen alorra eta honen konpromiso-eremu berariazkoena, gizarte-babesa. Gure ustez, ikuspegi hori eraikuntza nazionaleko zenbait alorretara ere hedatu daiteke: hizkuntza, kultura, sinbologia, komunikazio-arloa, esparru juridikoen sendotasuna...

Hala eta guztiz ere, kongresu konfederal honek uste du oraingo garai hau bereziki proposatu izan daitekeela burujabetza nazionalen aurrera egiteko, bal-din eta aukerak ongi aprobetxatzen badira.

Alde batetik, guztiz gaurkotua eta koherentea da proiektu abertzalea, kapitalismoaren prozesu globalizatzaile jasanezina ikusirik, zeinak, gure Menduurreneko Deklarazioan genioenez, "arau bihurtzen duen langileen esplotazioa, herrien zapalkuntza eta gure planetako bizitzaren eta baliabideen suntsipena". Testuinguru horretan, alternatiba orokorrak tokian tokiko prozesu sozialak sendotu behar ditu, batetik, eta, bestetik, internazionalismo berri baterako oinarri bihurtu, herri xehearen interesen arabera betiere, ez kapitalaren mesederako. Horrenbestez, ELAren iritziz proiektu abertzaleak bermatu egin behar ditu berdintasun, babes eta solidaritate sozialari dagozkion osagaiak; egitura komunitarioak indartu, kultur- eta hizkuntz-identitateen sustapen eta errespetua, baita pertsonen bizitza iraunarazten duen guztia zaintzea ere (elikagaiak, lurra, eredu produktibo eta estraktiboak, energien erabilera eta klima bera barne).

Zehazkiago, nazio gisara ere aukera aparta dakarkigu egungo egoerak, non estatuek (Espainiakoak, adibidez) botere ekonomikoaren eta finantzarioaren mende jardutea erabaki duten. Troiak eta estatuak ezarritako egiturazko doitze-politikak hemen onartzea “errealismoa politikoa” deritzonaren mugak (estu-estuak) onartzea litzateke. “Errealismo” hori ez dator inondik ere bat soberanismo-proiektuarekin, aldaketa sozial eta politikorako tresna izan behar baitu honek, berez. Aberri Egunean genioenez, “zergatik ez erabaki, Hego Euskal Herrian, ez aintzat hartzea autonomia-erkidegoei, diputazioei eta udalei aginduko zaizkien doitze-politikak?”. Desobedientziaren alde egiten du ELAk, horrenbeste gezur eta gizartearen gehiengoaren aurkako aginduri aurre egiteko. Atal sozio-ekonomikoan azaldu dugu nola ari diren erabiltzen oinarritzko legedia gure autogobernua edukiz husteko. Hortaz, nazio gisara ere “aski da!” oihukatu behar dugu. Hala egin dute Europako zenbait herrialdek; Islandiak, besteak beste.

Nazionalismoak oro har, bereziki ELAk, berebiziko erronka bati egin behar dio aurre, hain zuzen nortasun eta proiektu abertzalearen definizioa egiteari, mundu dinamiko batean, nazioarteko mobilitatea gero eta handiagoa delarik eta identitate banakako zein kolektiboen eraikuntza, zeharo konplexua. Hutsegitea litzateke gai honi heltzea pluralizazio sozial eta kulturalarekiko beldurrez, eta are okerragoa jarrera asimilazionista batekin, hala nola egiten baitute bere baitako nazioak menperatzen dituzten estatuek (gure kasuan bezala). Hartara, indartu beharrekoa da sindikatuaren alde herrizalea (munduko edozein alderekiko, eta euskal herrizalea gure kasuan). Zer esan nahi du horrek? Bada, klase herritarren promozioarekiko konpromisoa, hots, hemen eta munduko edozein lekutan dominazio, baztertze edo esplotazio dinamikak paira ditzaketen kolektibo sozial eta kultural guztien promozioa. Zenbaterainoko ahalegina egin dugun neurtzeko gure proiektu sindikalera zein sektore erakartzeko gauza garen ikustea aski izango da, bai kultura eta identitateak inposatu nahi dituztenen aurkako borrokara, zein elite ekonomikoen mesede hutserako erabakitzen diren politika sozial eta ekonomikoen aurkako lehiara.

Zenbaitek dio eskubide nazionalak dagokienez aurrera egiteko erlatibizatu egin behar dela, tarte batean bederen, eskubide sozial eta laboralen defentsa. Gure iritziz, ordea, prozesu subiranista bultzatzeko biderik hobereana justizia soziala lortzeko gehiengo nahiarekin lotzea da. Gure ustez, soilik horrela irits dezake prozesu nazionalak bere helburuak gauzatzeko gizartearen beharrezko den oihartzuna.

Prozesu hori, bestalde, izugarri indartu daiteke baldin eta herritarrei zuzenean galdetzen eta parte hartzeko aukera ematen zenbait gairen inguruan: azpiegiturak, herri-ekimen legegileak, zerga-politika, aurrekontuak, hondakinen kudeaketa... Erabakitze eskubideaz baliatzeko ohitura hartuz joan behar dugu, bai gure inguruko hurbileko gaiei buruz erabakitze, bai munduko gainerako estatu eta nazioekin zer harreman-mota nahi dugun argitzeko... Izan ere, erabakitze-prozesu zehatzetan areagotu daiteke burujabetza-kontzientzia, hots, prozesu horietan ikus dezakete herritarrek beren buruaren jabe izan nahi duen gizarte batean daudela. Zuzeneko demokrazia izan daiteke, beraz, biderik egokienetako bat abertzaleengandik urrunen dauden sektoreak burujabetzaren alde jartzeko.

Baina inongo indar abertzalek (ez politiko, ez sindikalek) ezin du bakarka gidatu proiektu hori. Eta zailagoa izango da erakunde bakoitzak bere kasa badihardu, ez du jende askorik erakarriko gure proiektu nazionalak. Horregatik, gutxieneko eduki komun batzuk zehaztu behar dira, eta elkarlanerako irizpide batzuk ezarri.

Adostasun horren edukiei dagokienez, hona hemen zer zioen ELAren Batzorde Nazionalak 2007ko ekainean: “Gure ustez, subiranotasunaren baieztapen praktikoari buruzko adostasunak izan behar du ardatz, hainbat kontsulta edo erreferendum bidez. Herrialdeka eta indar-korrelazioaren arabera adostu beharko lirateke hitzarmenaren garapena, erritmoak eta martxan jartzea”. Bestalde, adostasunari lagundu egingo liokete, segur aski, Euskal Herria nazio gisara agerrarazten duten zenbait jokabidek eta instituzionalizazio-prozesuk.

Dena dela, adostasun-dinamika horretan aurrera egiteak ez du esan nahi garrantzia kendu behar diegun borroka sozialari eta klase-interesei, prozesu honi egiten diogun ekarpen behinari, alegia. Ezin dugu ahortzi, izan ere, klase-gatazkek daudela gure herrian. Funtsezkoa du mugimendu abertzaleak barne-kontraesan horiek dialektikoki onartzea ere.

Horretarako, baina, uko egin behar zaio burujabetzaren gaia fetixe gisa erabiltzeari. Ergelkeria da, batetik, pentsatzea burujabetza eskuratuta berez etorriko direla nortasun nazionalaren gainerako balioak eta osagaiak (euskara, justizia soziala, lurraldetasuna, kultura...). Bestetik, onartezina da beste uste hau: eragile sindikalek edo kulturek bultzatzen dituzten dinamikak gai sektorialak direla (bigarren mailakoak, beraz), helburu “nagusiaren” mendekoak. Uste horrek mespretxatu egiten ditu euskal gizarte antolatuen ekarpen etengabeak, eta ezin dugu inolaz ere onartu. ELAk ozen aldarrikatzen du bere antolakuntza-lanak eta langileen borroka euskal nazioaren eraikuntzari egiten dioten ekarpena. Lehen mailako lan militantea da, eraikuntza nazionalako beste edozein borrokaren parekoa. Era berean, ELAk oso positiboki baloratzen ditu eraikuntza nazionalaren bidean jendarte ikuspegi alternatibo batetik sortzen diren ekimen eta proiektuak, hala nola, Euskal Herriko Laborantza Ganbara, Fiare banka etikoa, Bizi mugimendua, “Eusko” edo “BilboDiru” moduko tokiko moneten sorrera, produkzio ekologikoan oinarritutako proiektuak (kontsumo kooperatibak, taldeak...), tokikoa eta iraunkorra den energia sortzeko inizatibak, garraio beharrezanean erantzun jasagarri eta publikoa ematen dien ekimenak, etab. Ekimen hauek jendarte alternatibo ikuspegitik nahi dugun gizarte eredu aurreratzen dute, eraikuntza nazionalari edukia eta gorputza ematen diote eta burujabetzarako jende gehiago irabazteko aukera ematen dute.

Eginkizun honek beste maila bat eskatzen du Nafarroan, non ELAren ekarpena (langile-klasearen interesean oinarritutako borroka soziala) ez den soilik errebindikazio subiranistaren aldarrikapenerako oinarri, baizik euskal herritar izateko sentimendua indartzeko modu saihestezina ere. Hots, ELArentzat Nafarroan euskal herritar izatearen aldarrikapena bat dator sindikatua berdintasun sozialaren eta neoliberalismoaren aurkako erresistentziaren erreferente izatearekin.

Ez dago ezinbesteko indar sozial edo politikorik autodeterminazio-eskubidearen aldeko prozesu bat abiarazteko. Lehenago genioenez, euskal gizarte antolatuen indarrean sinesten dugu guk. Baina prozesuak ahalik eta aldeko indar gehien biltzen saiatu behar du. Aliantzei buruzko irizpidea (lehenago aipatua) ezin egokiagoa da burujabetza-prozesurako.

Uste dugu, halaber, bateratze-dinamika hori babestu egin behar dela, nolabait, eta beste prozesu batzuetatik aparte utzi (hauteskunde-lehiatik aparte, adibidez), eta aliantzako erakunde guztiekiko errespetua izan behar dutela oinarri joko-arauek. Bestalde, uko egin behar zaio plataforma eta mugimendu ustez pluralak sortzeko

joera aspaldikoari, mugimendu abertzaleko alderdien arteko borroka islatzea besterik ez baitute egiten.

Azkenik, ziur gara borrokarik eta mobilizaziorik gabe ez dela egongo ez aldaketa politikorik ez politika sozialen aldaketarik. Argi asko ikusten da Katalunian eta Euskal Herrian zenbaterainoko mugak dituzten lege-aldaketetan eta ekimen instituzionaletan bakarrik oinarritzen diren prozesuek. Erabakitzekeo eskubideari buruzko kontsultak direla-eta Katalunian gertatutakoak garbi erakusten du zenbateko indarra duen gizarte zibilak erakunde politikoak oinarritzko adostasunetara iristeko gai ez direnean.

10. Burujabetzaren alde egitea euskal gehiengo sindikalaren alde egitea ere bada

ELAren iritziz, izugarritzko lana egin du azken urteotan (2009-2011) euskal gehiengo sindikalak. Izan ere, ez dago aliantza sindikalak egiteko beste aukerarik gehiengo horretatik kanpo. "Gehiengo sindikal" terminoaren esanahia ez da aritmetikoa bakarrik, eta lankidetzatza sindikaleko eremu alternatibo bat adierazten du, CCOO eta UGTren zentralizazio eta itun sozialeko ereduaz bestelakoa. Euste-horma sendoa izan da euskal gehiengo sindikala, Euskal Herriko lan harremanen eremua Espainiakoaren azpisistema bihur ez zedin. Alor sindikalari dagokionez, eredu erreibindikatzaila, kontraboterekoa eraiki du; krisi-garaian, berriz, ez die babesik eman austeritate-neurriei eta erreformei, edozein indar politikok bultzatzen zituela ere. Horregatik, bada, berri oso txarra da, euskal langileentzat, euskal gehiengo sindikalaren blokeoa.

Esan dezagun blokeo hori ez duela eragin Espainiako estatuaren joera zentralistak edo administrazioen joera antisozialak, beste zerbaitek baizik: mugimendu sindikalaren autonomia eta inorekiko mendekotasunik eza onartzeko korrante politiko baten zailtasunak.

Izan ere, mugimendu sindikalaren sinesgarritasuna honetan datza: politika ekonomikoak edukien arabera baloratzean, ez haien bultzatzaileen arabera, are gehiago egungo egoera zail honetan. Politikakeria arrunta baino ez da gauzak "nork" erabakitzen dituen begiratzea, "zer" erabaki den begiratu orde. ELAren iritziz, euskal sindikalismoak ez ditu bereganatu behar Espainiako sindikatuen jokabide negargarriak, eta ez zaio ezkutatu behar iritzi publikoari eskuinak ez ezik ezkerak ere ezartzen dituela egiturazko murrizketak.

Aliantza-politikei dagokienez, ELAren aukera nagusia LAB da, beste klase-sindikatu abertzalea alegia. Helburu nagusia, berriz, aliantza horren estrategia alderdi politikoen interferentziarik gabe erabaki ahal izatea dugu, eta, hortik abiatuta, muga sindikal, sozial eta politikorik gabeko aliantza bat eratzea. Sindikatuen autonomia dugu xede, hau da, inoren mendeko ez den estrategia sindikala garatzea, klase-ikuspegi ardatz dugula.



NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN LEHENA ETA ORAINA

1. Negoziazioa “krisia” baino askoz lehenagotik zegoen krisian

Kongresu konfederal honen ustez, gaur egun ere negoziazio kolektiboa da sindikatuon tresna nagusia aberastasunaren banaketa bidezkoagoa lortzeko. Horregatik, gogoz ekin behar diogu ekimen sindikalaren alderdi horri.

Zapaterok eta Rajoy negoziazio kolektiboaren alorrean egindako arau-aldaketak mugarri izan ditugu. Baina, labur bada ere, gogora dezagun askoz lehenagotik datorrela negoziazio kolektiboaren krisia, eta hala adierazi dute, azken hamarkada honetan, kongresu konfederalerako txostenek.

Kolektiboki negoziatzeko aukerak indarra ematen dio langile klaseari, patronalaren interesen aurkakoa izanik. Horregatik saiatu izan da betidanik eskubide hori zapuzten, ahultzen eta batzutan, zergatik ez, debekatzen. Orain ere, gero eta errepresio gogorragoa ari da jasaten ekintza kolektiboa eta erreibindikatiboa, gero eta nabarmenago urratzen dira joko-arauak gehiengo eta gutxiengoei dagokienez (batzutan aldebakarreko erabakiz eta beste zenbaitetan laguntza sindikalarekin) eta, horrenbestez, arlo pribatuko hitzarmenak sinatzeko blokeo gero eta handiagoa dago; botere politikoak erabilera unilaterala egin du arautzeko bere ahalmenaz, agindu, ebazpen eta dekretuen bidez. Patronalek, aldeko indar-erlazioa zutelarik, sarritan ez dute beharrik ere izan lan-harremanak normalizatzeko akordioak egiteko. Urtetan blokeatutako hitzarmenak, batetik, eta emaitza apalak lortzeko greba gero eta luzeagoak, bestetik, errepikatu ahala ikusi da indar-erlazioa aurka zegoela. Agian azken urteotan argiago, estatu zein nazioarteko mailan hainbat datuk erakutsi digute egoera inguruko herrietako antzekoa dela. Ez soilik Euskal Herrian, baita estatuko gainerako lekuetan ere negoziazio kolektiboaren estaldura orokorra gorabehera, gehiengoaren lan-baldintzak prekarizatzea ezin izan da saihestu: hor dugu, esaterako, minijoben fenomeno lazgarria, Alemania bezalako potentzia batean.

Negoiazio kolektiboaren azken erreformek sakondu egin dute ikuspegi klasista eta neoliberal hori, zeinaren helburua hau baita: soldatak jaiste eta krisi ekonomikoak nabarmen igoaraztea kapitalaren aberastasun-metaketa. Botere ekonomikoei ez die axola horrek guztiak krisia luzatzea. Jakina, langabeziaren eta behin-behinekotasunaren mailak lagun dituzte estrategia horretan, areagotu egiten baitituzte beldurra eta desmobilizazioa.

Herritarren pobretze horri justifikazio makroekonomikoa ere ematen diote: soldatak jaitsi beharra omen dago, moneta bakarra daukagunez ezin baita egin diru-doikuntzarik. Hartara, diote, soilik soldata txikiagoak ordainduz gero legoke Euskal Herria atzerriko merkatuan lehiatzeko moduan. Arrazoibide horrek ezkutatu egiten du, ordea, soldatek aberastasunean duten partaidetzak etengabe eta nabarmen egin duela behera azken 30 urteotan. Horregatik, inoiz baino bidezkoagoa da, egun, soldata-igoera aldarrikatzea. Ez dezagun ahantzi, bestalde, gizarte-alderdi bat ere baduela soldatak (langilearen eta haren familiaren mantenua, kontsumoa, babes soziala eta alor publikoaren sendotzea), enpresarien irabazien oso bestelakoa.

Honenbestez, gogor egin behar dugu lan soldaten eta lan-kondizio duinen aldeko aldarrikapena ahuldu ez dadin. Egungo egoera latz hau (enpresa askoren itxiera, xantaia, erregulazio-espedienteak, hartzekodunen konkurtsoak, langileen kaleratzea...) akuilu izan behar dugu, testuinguru hain gogorrean gogo eta indar handiagoz lan egiteko bultzada.

2. Araudi-erreforma, lan-harremanen iragana eta orainaren arteko muga

Espainiako gobernuak otsailean onartutako lan-erreforma (eta, haren barruan, negoziazio kolektiboarena) mugarrria da lan-munduarentzat Espainiako estatuan, baita ELAren sindikalismo egiteko moduentzat ere. Are larriagoa bihurtu du egoera oraingo erreforma honek, eta Zapateroren gobernuak hilabete batzuk lehenago ezarri zuenak hasi zuen bidea. Orduko erreforma hark bidea ireki zion hitzarmen kolektiboen zentralizazioari -hemen negoziatzeko eskubidea kentzeko asmoz-, betiere lan-kondizioak hondatzeko asmoz. Erreforma horiek suntsitu egin dute negoziazio kolektiboa, orain arte ezagutu duguna behintzat.

Zentralizazioaren ondorioak, berriz, ari gara jasaten dagoeneko. Patronalak eta Espainiako bi sindikatu nagusiak ahalik eta etekin handiena ari dira ateratzen egoera berriak ematen dizkien zentralizazio-aukerari. Hori dela eta, gerora izenpetuko diren hitzarmen kolektibo askoren bidea erakusten digute 2011ko ekainaren 11z geroztik sinatu diren estatu mailako hitzarmen guztiek (eraikuntza, metala, merkataritza, zementuaren eratorriak, segurtasun pribatua, telemarketina, kontserbak, hirugarren adinekoentzako egoitzak, lorezaintza...).

Bestalde, Raxoiren erreformak xede bat du, azkenean: soldatak zeharo jaistea, horretarako enpresariaren erabakitzeke ahalmen unilateralarik bide emanaz lan-baldintzak ezartzerakoan. Horretarako:

- Lehentasun absolutua ematen die enpresa-hitzarmenetan finkatutako gai garrantzitsuei. Edozein unetan negoziatia daitezke, eta erreferentziako sektore-hitzarmenekoak baino baldintza okerragoak ezar daitezke.
- Ultraaktibitatea urtebeterra mugatzen du. Honek esan nahi du urtetan irabazitako lorpenei iraungitze epea jarri dietela. Beraz, denbora enpresariaren alde doa aurrera. Soldatak amildu araztea erabaki dute. Legealdaketek, erreferentziako estatu-hitzarmenik ez dagoenez, langile asko Langileen Estatutua bere lan-baldintzen oinarritzat hartzera bultzatuko du, asteen 40 orduko lanaldiarekin, lanbide-arteko gutxieneko soldataren pareko ordainsariekin eta 30 eguneko oporraldiarekin.

- Langileen ordezkarien eskubideak murrizten ditu.

Laburbilduz, gomendio huts bihurtu dituzte sektoreetako hitzarmen probintzialak Rajoyren eta Zapateroren erreformek, enpresarientzat inongo obligazio-loturarik gabekoak. Goitik, estatu mailako hitzarmenen babesak dute enpresariak; behetik, berriz, enpresako hitzarmenena. Amaitu da, beraz, eskema klasikoa, non sektoreetako hitzarmenek gutxieneko baldintzak ezartzen zituzten eta, gero, enpresetan hobetu egiten ziren. Hortik atera beharreko ondorioa, honako hau: enpresan bakarrik egin daiteke borroka sindikalaren bidez irabazitako lorpenen defentsa eraginkorra. Haatik, sinetsita gaude negoziazio kolektiboaren eztabaida batik bat indar-erlazio kontu bat dela. Horregatik gure hausnarketa, atal honetan, antolakuntzari buruzko ataletik banaezina da.

3. Ez dago alderik patronal batetik bestera

Nafarroan CENek eta elkarrizketa sozialeko sindikatuek sinatu duten akordioa, zeina ez baita inola ere bete, agerian uzten ditu negoziazio kolektiboko erreformaren mugak. Agertoki berri honetan patronalak ez dauka ezertan amore emateko asmorik, eta aurre ez egitea erabaki dutenentzat akordioa iristeko aukera bakarra 2012ko urtarrilaren 25ean Madrilen AENCen (Negoziazio Kolektiboari buruzko estatu-Akordioa) hitzartutakoaren tankerako agiri bat da, gomendio hutsa eta edukirik gabea.

Euskal patronala, jakina, pozez zorutzen dabil, ondo baitaki (inoiz baino hobeto) zer pribilegio dauzkan eta zer aukera berri dakartzkion araudi-aldaketak. Prest dago, honenbestez, azken muturreraino eramateko lan-erreformek eta negoziazio kolektiboaren aldaketek ekarri dizkioten aukerak. Ez dauka zertan uko egin ezeri, eta sektore eta enpresa guztietan hedatzen du izua. Beraz, ez dago “euskal patronalik” - zenbaitetik besterik dioen arren-, hots, Espainiako enpresari-kultura ez bezalako euskal enpresari-kulturarik.

Horrez gain, zerbitzu publikoetan, etengabe hondatu dira lan-kondizioak azkeneko hiru urteotan. Madrildo dekretuez baliatuta, soldadak jaitsi egin dira, enplegua suntsitu, lanaldia luzatu, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeetara ekarpenak egiteari utzi... Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak ez du bete ELAekin hitzartutako mahai orokorreko ituna, eta berriro erakutsi du negoziazio kolektiboarekiko eta administrazio publikoko langileen eskubideekiko mespretxua. Zerbitzu publikoetan suntsiketa prozesu batean sartu gaituzte, administrazio gehienek negoziaketa inposaketa bihurtu dute, ondorioz, zerbitzu publikoetan antolakuntza alorrean sakondu beharrean gaude eta ekintza sindikal errepertorioa zabaldu behar dugu lantokietako arazo zehatzak mobilizaziorako tresna bihurtzeko.

Gogor ari dira Hego Euskal Herriko patronal publikoak langileen aurka, eta, de facto, onartzen ari dira Espainiako estatuaren eskumen-urratze larri bat. Bestalde, praktikan, Madrilen hartzen diren erabakiekiko erabateko mendekotasuna erakusten dute. Beste aukera (minoritarioa), berriz, kostuak murriztearren bakarrik baliatzen dute zenbaitetan, langileen lan postuak eta lan baldintzak bermatu gabe., erakunde batzuetan bultzatutako publikazioen eta errebersioen harira. Urteetan subkontratetan lan baldintza okerragoetan lan egin duten langileek beste behin ere politika “berrien” ondorioak jasatea onartezina iruditzen zaigu. Azpimarratu beharra

dago kaleratzeak ere izan direla. Gogor egingo du ELAk erabaki horien aurka. Ezinbestekoa da, beraz, politika-aldaketa bat.

4. Toki gehiagotara, eta hobeto, iristea

Aipatutako aldaketa guztiak direla eta, negoziazio kolektiboko premia larrienak zein diren zehaztu beharra daukagu. Adibide bat jartzearren, gogoan izan hitzarmenetako aurreraeraginaren aldaketak baliogabetu egiten duela negoziazio-eremuetan lan-erreforma gauzatzearen aurkako gure ahalegina.

Lehenbiziko eginkizuna, honenbestez, hau da: ahalik eta negoziazio-eremu gehienetara iristea. Erreformen helburua kontuan hartuta, enpresaz enpresa erantzun behar dugu; sindikatuak ez dio ezeri uko egin behar, edozein delarik ere enpresaren tamaina, sektorea, antolakuntza sindikalaren maila...

Larritasun hori dela eta, gure antolakuntza-ereduari buruzko gogoeta egin beharra daukagu, gure erakundea garai berrietara egokitzeko eta, hala, eraginkorragoak izateko, langileen alde hobeto jarduteko. Beste hitz batzuekin esanda: iristen ez garen eremuetan eta antolakuntza sindikalik ez dagoen eremuetan, enpresariak bere lan-kondizioak ezarriko ditu. Segur aski, sektoreetako hitzarmenek ez dute izango, urte batzuetan, lehen zeukaten estaldura unibertsala, ez behintzat orain artekoa bezalakoa.

Negoiazio kolektiboak gai batzuetan enpresari ematen dio lehentasuna. Sektore eta enpresa batzuetan, beraz, gogorrago jardun beharko dugu lan-kondizio duinen alde, sektore horien izaera dela eta: azpikontratazioa, jabetza-aldaketa, enpresa estatu mailakoa izatea, hainbat lantokitan banatuta egotea...

Eremu horietan guztietan alternatibak eskaini behar ditugu. Seguruenik, ordea, ezingo dugu konponbide bera aplikatu egoera guztietan, era askotakoak baitaude. Erantzun partzialak izango dira, sektore bakoitzera egokituak, beste batzuetan nekez aplikatu litezkeenak. Nolanahi dela ere, ezin gara geratu iraganera begira, garai bateko estaldura jada emango ez diguten hitzarmen haien bermea eta babesia gogoratu.

Modu bakarra dago mehatxu horri aurre egiteko: antolakuntza. Ez dugu tirabirarik sortu behar egoera berriari ez erantzutearren; sektore bakoitza aztertu behar dugu, baina ahaztu gabe zer betekizun dakartzigun lege berriak. Ez dugu atzera begira geratu behar. Ez dezagun ahanzi, bestalde, ez dagoela -oraingoz behintzat- sindikatuaren benetako antolakuntzarako araudi-mugarik, enpresarien boterea areagotu egin den arren. Konponbidea, beraz, honako hau dugu: sindikatua sendotzea.

Nolanahi ere, aurrerantzean, toki askotan gertatzen zen moduan, ezin izango dugu zain egon sindikatu batek goragoko esparru batean hitzarmen bat noiz sinatuko duen, gero edukiak esparru guztian aplikatzeko. Negoiazio kolektiboaren erreforma berriarekin lorpenak langile kolektibo bakoitzaren borondatearen arabera izango dira, enpresa txikietan zein handietan. ELAn uste dugu ETEetan akordio onak negoziatu daitezkeela. Izan ere, ELAn horri buruz dugun esperientziak diosku enpresa handiagoen antzerako parametroak direla, alegia, afiliazioa, antolakuntza eta

konfrontazio ahalmena izanez gero, baldintza duinak bermatuko dira. Aitzitik, horiek gabe, dagokion patronalaren mende egongo gara.

5. Informazioaren premia eta langile-batzarren indarra

Informazio egokia jasotzea, eta garaiz, ezinbestekoa dugu sindikatuak eta langileok. Garrantzi izugarria du sindikatuarentzat, izan ere, langileek bat egitea gure estrategiarekin, gure antolakuntzarekin eta gure negoziazio-ereduarekin. Ongi informatuta egon behar dute langileek sindikatuaren mezua zabalduko badute.

Zuzen eta argi eman behar dugu informazioa: dramatismo gabe, konponbideak bilatzeko gai baikara, baina erreformaren gogortasuna eta ondorioak ezkutatu gabe, botere osoa enpresarien esku uzteko egina baita.

Informazio hori eraginkorra izan dadin, eskura ditugun komunikazio-bide guztiak erabili behar ditugu, bat bera ere baztertu gabe: informazio-orriak, aldizkariak, afiliatuen batzarrak, batzar orokorrak, trebakuntza-bilerak, teknologia berriak... Nolanahi dela ere, langileekiko hurbiltasuna da informazio-biderik eraginkorrena, lankide guztiekin jarduten den militantea alegia.

Batzarra, beraz, ezinbesteko tresna du borroka-sindikalismoak. Une ezin hobea da zuzeneko informazioa zabaltzeko eta klase-sentimendu kolektiboa sendotzeko. Gainera, atal sindikalak han eskuratu behar du bere lanaren eta estrategiaren legitimazioa.

Izan ere, nahitaezkoa funtsezkoa du botere sindikalak langile-batzarra, oraingo edo etorkizuneko ekimen sindikalak eskatuko digun ekinerako. Bai afiliatuen batzarra, bai orokorra, behar-beharrezkoak ditugu gure aldarrikapenek eta mobilizazioek arrakastarik izango badute. Horra bideratu behar ditugu erabaki nagusietako batzuk, partaidetza...

Baina ez dugu inprobisatu behar: batzarrak prestatu egin behar dira. Ezinbestekoa da hori. Argi zehaztu behar da batzar bakoitzaren helburua. Atal sindikalek edo enpresako ordezkari sindikalek sindikatuko arduradunarekin batera prestatu behar dute batzarra.

6. Prozesu iraunkorra, antolakuntza-lanari lotua eta inprobisazioaren mende utzi behar ez dena

Prozesu iraunkorra izango da negoziazio kolektiboa, eta atal sindikalek erabateko arreta eskaini beharko diote. Izan ere, hitzarmenak sinatuta gero ere, haiek aplikatuko badira, atal sindikalen, militanteen eta langile ondo antolatuen babes irmoa beharko da. Egunero egin beharko dugu borroka, lan-kondizioen funtsezko aldaketen eta bereizte-klausulen aurka.

Nolanahi dela ere, garrantzikoena hau da: ohartzea antolakuntza eta negoziazio kolektiboa ez direla bereizita jorratu behar atal sindikalen eguneroko jardunean.

Badugu, beraz, zer egina. Antolatzeko gure gaitasunaren arabera aldatuko eta hobetuko dugu gure egoera, babestuko ditugu gure eskubideak.

Aurreko kongresu konfederalean genioenez, “negoiazio kolektiboa da, gaur egun ere, ekintza sindikaleko tresnarik behinena, sendotu egiten baititu balio eta erreferentzia kolektiboak, eta jardun solidarioa sustatzen, lan-harremanak indibidualizatzeko joera neoliberalaren aurrean. Horregatik, hain zuzen ere, langileen tresnarik garrantzitsuena da lan-kondizioak hobetzeko eta aberastasuna hobeto banatzeko”.

Horrela, bada, erabakigarria da afiliazioa, eta gure militanteen helburu nagusietako bat izan behar du. Izan ere, benetako negoziazio kolektiborik izango bada, ezinbestekoa dugu ELAk langile antolatu ahalik eta gehiena izatea.

Negoiazio kolektiboa prozesu iraunkorra izaki, ordea, inprobisazioak alde batera utzi behar dira hura prestatu behar denean. Lan planifikatu baten emaitza izan behar du negoziazioak emaitzarik ekarriko badu, ez patronalaren jarreraren aurkako bat-bateko erreakzioa.

Azkenik, eremu bakoitzean, lehentasuna eman behar diogu erreformari alternatibak bilatzeari, borrokarako alor guztiak zehazteari, aldarrikapenerako eta borrokarako arloak prestatzeari.

7. Zenbait jarraibide negoziazio kolektiboa antolatzeko

Hona hemen, labur antzean, negoziazio kolektiboaren antolakuntza praktikoko zenbait irizpide, aurreko kongresutik hona erabili ditugunak:

Militantearen figura. Ezinbestekoa da talde antolatu bat egotea, Atal Sindikala, gure antolakuntza-ereduan oinarritzkoa, esparru bakoitzean ELA ordezkatu eta bere ahotsa entzunaraziko duena. Atal Sindikalean, zeina Delegatu Sindikalak bultzatzen, gidatu eta dinamizatuko baitu, ardurak partekatu beharra dago, eta horretarako ezinbestekoa da eginkizunak banatzea. Sindikalizazioaren gakoak afiliazioa helburu estrategiko bihurtzen duten militanteetan datza, hauek jakitun baitira hori dela indar-erlazioa gure aldera ekartzen duen bide bakarra.

Garrantzi handia du atal sindikaleko arduraduna militantearekin harremanetan egotea, beronen lana babestuz, partekatuz eta baloratuz.

Ordezkarien eta sindikatuaren arteko lotura. Ordezkaritza-taldeak eraginkorrak izan daitezten, enpresetako arduradunek (idazkari federalek eta ETEetako arduradunek) dagokien gidaritzaren bereganatzen dute: zuzeneko harremana, maiztasun jakinekoa eta metodikoa izan behar da ordezkariekin; denen artean zehaztu behar dira ordezkariek enpresa horietan dituzten eginkizunak; ondoren, berrikusi egin behar dira eginkizunak, eta, azkenik, hainbat enpresetako ordezkaritza-taldeak partekatu behar dituzte esperientzia arrakastatsuek.

Trebakuntza sindikala. Funtsezko tresna da trebakuntza sindikala militante-taldeak sendotzeko, kohesionatzeko eta erakundeko kide sentiarazteko. Ezinbesteko

erreferentzia da, prestakuntza ideologikoa behar baitugu militanteok, dagozkigun erantzunei ekiteko.

Negoiazio kolektiboaren etekinak sindikalizazioaren ondorio dira. Ez da nahikoa ordezkartza izatea; afiliatu beharra dago, eta gainera langile horiek gure interes sindikalekiko hurbil dagoen kolektibo homogeen gisa antolatu, Atal Sindikala eratuz (funtzio banaketa...). Afiliatu antolatuak, informatuak, izatea, kausa sindikal baten inguruan biltzen direnak, izango da errebindikazio sindikalekiko konpromiso kolektiboaren adierazpiderik hoberena.

Ez da aski eskakizun-zerrenda egokia edukitzea. Enpresen, sektoreen eta langileen premia nagusien diagnostiko zehatza egin behar da. Diagnostikoa egiteko, berriz, bide bakarra dago: jendeak parte hartzea haren prestakuntzan.

Lan-planak, izan ere, erabakigarriak dira gure jarduerak eragina eta onespina izan ditzan. Lan-planek osagai hauek, gutxienez, izan behar dituzte: helburuak, metodoa, planifikazioa, denbora-epeak eta balorazio-elementuak.

Partaidetza-moduak, berriz, hobetu egin behar ditugu: langile bakoitzarekin hitz egin behar dugu, afiliatuekin eta afiliatu gabekoekin; bilerak egin behar dira afiliatuekin, baita batzarrak ere. Gure eredu sindikalean, funtsezkoa da batzarra: behin-behinekotasunaren eta diskriminazioaren aurkako borrokak eta aberastasunaren banaketa zuzenagoak legitimazio kolektibo sendoa eskatzen dute. Batzarrek ematen dute, beste ezerk baino gehiago, legitimazio hori. Gure tresna nagusietako bat dugu batzarra. Langileen partaidetzak, izan ere, izugarri elikatzen du klase-sentimendu kolektiboa.

Irabazteko, ezinbestekoa da informazioa. Lehendik ere azaldu dugunez, oinarriko legitimazio horren zerbitzura dago informazioa ere: egiazkoa, kontrastatua, sinesgarria eta denentzat eskuragarria izan behar du informazioak, edozein delarik ere langilearen adina edo prestakuntza. Langilez langile jardun behar dugu, paperaz baliatuz (aldizkariak, orriak, ohar-taula...) eta teknologia berriei uko egin gabe.

Gatazkarako gaitasuna. Gure indar-korrelazioaren arabera lor ditzakegu (edo ez) gure helburuak. Langileen legitimazioa dugula ikusi behar du patronalak, eta borrokarako prestatuta gaudela.

Ezinbesteko edukiak. Lehentasunezko edukiak hautatzea erabakigarria izaten da jarduera sindikalean. Helburu nagusiak zein ditugun azaldu behar diogu gure jendeari, eta garbi adierazi zer zaigun baliagarri eta zer ez. Afiliatuekin eta enpresako langileekin helburuak zehaztu ondoren, zabaldu egin behar ditugu.

Denboraren kontrola, boterearen kontrola. Denboraren kontrola erabakigarria da, batez ere erreforma eta gero. Izan ere, askotan, etengabeko bilera-jarduna bilakatzen du patronalak negoziazio-prozesua, edukirik proposatu gabe, gu nahasi eta gure helburuetatik aldentzearen.

Erresistentzia-kutxa, ezinbestekoa borrokari eusteko. Funtsezko tresna du negoziatioak erresistentzia-kutxa, zenbaitetan grebara jo behar izaten baita. Gatazka bat irabazteko, beraz, hedatu egin behar da langileen artean kutxaren premia eta haren eginkizun solidarioa. Ez dago erresistentzia-kutxa baino elementu solidarioagorik; izan ere, askok jarri behar izaten dute dirua gutxi batzuek

patronalarekin lehiatu ahal izateko. Horregatik, hain zuzen ere, gure eredu sindikalaren ardatzetako bat da.

8. Aldarrikapenak eta hitzarmenen aplikazioa

Izugarrizko lana egin dugu azken urteotan negoziazio kolektiboaren alorrean. Beste edozein irizpideren gainera jarri ditugu edukiak, eta, jakina, hala egin behar dugu aurrerantzean ere.

Edukiez gain, ordea, kontuan izan behar da hitzarmenaren aplikazioa, loteslea den edo ez, zein behartzen duen zertara, zer baldintza ezartzen dituen... Hortaz, edukiak eta haien aplikazioa, bi alderdiak zaindu behar ditu sindikatuak. Baina alferrikakoak dira edukiak ez badago haiek betetzeko obligaziorik. Obligazioa, berriz, kaltegarria da ez badago edukirik. Beraz, ez du balio "lehengoari eustearren, eskakizunak jaitsi" ikuspegiak.

Aplikazioari dagokionez, ikusi besterik ez dago zer gertatu den eraikuntzan hitzarmenaren aplikazioa bermatzen ez badugu zer gertatuko den ondorioztatzeko. Hitzarmena aplikatu ez izanak, izan ere, "legerik gabeko eremu" bihurtu du sektore hori, erreforma iritsi aurretik gainera.

Bestalde, lehenago genioenez, erreformaren ondorioak leuntzen lagundu dezaketen edukiak ere lehenetsi behar ditugu orain, ohiko eskakizunekin batera (lan-kondizio hobeak, aberastasunaren banaketa...).

9. Erreformaren aplikazioaren aurka

Erreforma ez aplikatzeari edo mugatzeari dagokionez, gai hauei guztiei buruzko artikulua sartu behar ditugu:

- Ultraaktibitatea: ezerk ez du ekiditen bera mantentzea, patronalaren ukapenak izan ezik. Bera bermatzeko klausulak sar daitezke. Izan ere, hala ari gara egiten.
- Malgutasuna: malgutasuna negoziatzera eraman behar dugu, patronalak enplegua suntsitzeko tresna eraginkor gisa erabili nahi baitu. Halaber, malgutasuna mugatzeak galarazi egingo du lan-egutegien aldaketa unilaterala medio langileak enpresaren beste tresna bat bihurtzea.
- Salbuespena: hitzarmenaren aplikazioaren salbuespen aukerak ekidin edo mugatzeko mekanismoak sartu behar dira.
- Lan-baldintzen funtsezko aldaketa (MSCT): Itunen orde hitzarmenak izateak erreforma aplikatzeko aukerak mugatzen ditu.
- Kaleratzeak: kalte-ordainetan kalkulurako aintzat hartzen diren egunak gehi daitezke, baita zergatiak mugatu ere. Absentismoari dagokionez, arrazoi hau medio egindako kaleratzeak galaraztea oso garrantzitsua da pertsonen

“gaixotzeko eskubidea” bermatu nahi badugu. Gaixo dagoena lan egitera behartzea duintasunari egindako eraso jasangaitza eta pertsonentzako laidoa da, eta gainera osasun- eta segurtasun-arriskuak handitzen ditu, norberarentzat zein lankideentzat.

10. Eskakizunak

Eskakizunak eta erreibindikazioak jorratzean, ez ditugu ahaztu behar negoziazio kolektiboaren eta, oro har, egoera sozioekonomikoaren gure azterketaren ondorio nagusiak. Komeni da gogoratzea, beraz, negoziazio kolektiboak arautzen dituela langileen lan-kondizioak; erreformen eginkizuna soldatei eraso egitea dela; malgutasunaren helburu nagusia soldatapeko enplegua suntsitzea dela; krisi-garaian ere diru asko irabazten duten enpresak badaudela, eta, batez ere, negoziazio kolektiboa tresna bat dela, aberastasuna banatzeko eta lan-kondizio duinagoak lortzeko.

Enplegua: enpleguari eustea erabateko lehentasuna da. Halaber, ezinbestekoa da enplegua sortzeko hitzarmenak sustatzea. Subrogazio-bermeak, bestalde, negoziazio kolektiboaren ardatzetako bat izaten jarraituko du.

Soldatak. Aurreko urteko KPIak izan behar du erreferentzia soldata-

igoeren negoziazioan. Gure ustez, KPIren gainetik ere igo behar lirateke soldatak. Aitzitik, inondik ere ez dugu onartu behar soldatak produktibitatearen eta herri-administrazioetatik jasotako finantzaketaren arabera finkatzea. Soldatak produktibitatearekin eta lehiakortasunarekin lotzea edota nahierara murriztea, administrazioetatik jaso den finantziarioaren arabera, egin behar denaren kontrakoa litzateke erabat, izan ere, soldatak igotzea enplegua gehitzea baita.

Lanaldia. Funtsezko kontua da, are gehiago soldataren zein enplegu sorreraren ikuspuntutik. Lanaldia zenbat eta luzeago izan, langabezia are handiagoa izango da. Lanaldia murriztea eta soldata igoerak dira HEHko milaka langabeei eskain diezaiekegun alternatiba bakarra. ELAK eutsi egiten dio 35 orduko astearen erreibindikazioari, eta nabarmendu nahi dugu gai honi buruzko eztabaida publikoari berriz heltzeak duen garrantzia.

Azpikontrazioa. Azpikontrazioari aurre egiteko lehia oinarrikoa izango da aurrerantzean ere gure sindikatuarentzat: bategik, azpikontzatak mugatuz edo desagerraraziaz, eta bestetik, lan-baldintzak duinagoak eginez, homologazioen bitartez. Horretarako beharrezkoa da enpresa matrizeko eta azpikontzatatiko ordezkarien arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetzea, subrogazioa bermatu ahal izateko.

ABLEak. Ez dugu onartu behar Aldi Baterako Lan Enpresak kontratazio-tresna eta enplegu-agentzia gisara jarduterik, erreformak hori sustatzen badu ere.

Behin-behinekotasuna eta diskriminazioak. Behin-behinekotasunaren aurkako borrokak lehentasuna izan behar du negoziazioan. Emakumeak nagusi diren sektoreei, beraz, berariazko tratamendua eman behar zaie, emakumeek jasaten baitute gehienbat egoera hori.

Laneko segurtasuna eta osasuna. Laneko arriskuen erabateko prebentzioa bultzatu behar dugu enpresetan, lan-istripuei eta gaixotasun profesionalei buruzko datu beldurgarriei muga jartzeko. Horretarako, gai horren gaineko legeek diotena hobetzeko eskakizun zehatz batzuk egin behar dira. Besteak beste, lortu behar dugu arriskuen ebaluazioa, trebakuntza, osasunaren zaintza, mutualitateen kontrola, ergonomia, psikosoziologia eta abar negoziazio kolektiboan sartzea.

Genero-berdintasuna: 250 langiletik gorako enpresetan, hitzarmen kolektiboan egon behar dute berdintasun-planek. Enpresetan genero-berdintasuna bultzatzeko benetako tresnak izan behar dute berdintasun-planek. Horretarako, diagnostiko errealak egin behar dira, eta hobekuntza-neurri eraginkorrek proposatu. Dena dela, berdintasun-planik bultzatu ezin den enpresetan ere neurri zehatzak jarri behar ditugu gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta erantzunkidetasuna lortzeko: neurriak kontratazioan, lana eta familia uztartzeko bitartekoak, trebakuntza, ordainketa-politika...

Euskararen normalizazioa: euskara normalizatzeko planak eta neurriak eskatu behar ditugu, lantegi guztietan izan dadin euskara zerbitzu- eta lan-hizkuntza erabatekoa.

Lanpostuen erreserba: eskakizun hau ere gero eta gehiago aldarrikatzen da.

Minusbaliotasunak: bermatu egin behar da legearen aplikazioa.

11. Aliantzak eratu

Aliantzak egitera behartuta gaude, egoeraren larritasuna ikusirik eta, batez ere, indar-korrelazioa kontuan harturik (patronalaren aldekoa erabat). Aliantzak eratzeko, diagnostikoak, estrategiak eta helburuak partekatu behar dira. Alabaina, XII. Kongresuan genioenez, "ez borondateak, ez premiak ez digute ezkutatu behar zer baldintza objektibo behar diren aliantzak eraginkorrek izan daitezen".

Honenbestez, konpromiso hauek bereganatzen ditu ELAk aliantza horiek eratzeko:

- Negoziazio kolektiboaren erreformari, ondorioei eta alternatibei buruzko azterketa juridikoa eta politikoa partekatzen ahaleginduko da.
- Sektore guztietan bilatuko eta eskainiko ditu berariazko alternatibak.
- Borroka-eremu errealak sustatuko ditu, sinatzaileentzako lotesleak.
- Patronalarekin lehiatuko da, legeak haren esku jarri dituen pribilegioak kentzeko.
- Ahal duen guztia egingo du lantegietan lanaren eta negoziazio kolektiboaren erreforma aplika ez dadin.

ELAren iritzian, patronala da negoziazio kolektiboaren blokeoaren erantzule bakarra. Oraingoa batik bat aldebakarreko blokeoa da, izan ere, sekulako boterea metatu du patronalak azken hamarkadetan. Helburua, berriz, hau du: lana are gehiago prekarizatzea, enplegua ahalik gehien doitzea, eta soldatak nabarmen jaitea.

Horregatik, hain zuzen ere, uste du ELAk ez dagoela baldintza politiko, ekonomiko eta juridiko egokirik patronalarekin hitzarmen edo itun orokorreko eremu bat adosteko. Egoera honek, aldiz, gure indar-erlazioa hobetzeko erronka latza jotzen digu.

Negoiazio kolektiboaren alorrean, zehazkiago, ELAk ez du uste blinda daitekeenik negoiazio probintzialeko eremua ez patronal honekin (horretarako egin da, izan ere, erreforma), ez estatu mailako itunak sustatzen, bultzatzen, lehenesten eta sinatzen dituztenekin eta, ondorioz, alor txikiagoetan (probintzietan, adibidez) gai askoren negoiazioa eragozten dutenekin. Horrexegatik, ez dugu aliantzarik egiteko asmorik sindikatu horiekin, Espainiako estatuaren edo Hego Euskal Herriko gobernuen finantziazio-iturrien mendeko izaten jarraitzen baitute.

Bestalde, ahalmen juridikoa ere izan behar dute hitzarmenek. Oinarrizko printzipioa da hori, bistakoa, eta eginkizun hau du: patronalarekin borondate hutsezko hitzarmenik ez sinatzea, gero eta gehiagotan egiten bada ere. Hitzarmen horiek, askotan, halako lorpen batzuk eskuratu dituztela sinetsarazten diete langileei, lorpenik ez egon arren; bestalde, enpleguaren, lan-kondizio hobeen, elkarrizketaren eta balio jakin batzuen alde diharduen talde gisara azalarazten dute itun horiek patronala iritzi publikoaren aurrean.

Horregatik, uste dugu ez dela jarraitu behar alegiazko kontakizun horiekin, inongo alternatiba ez diren aukerak eskaintzen alegia. Negoiazio kolektiboko planteamendu serio eta arduratsu guztiek eskatzen dute benetako egoerari aurrez aurre begiratzea, gauzei dagokien izenarekin deitzea, langileei ez ezkutatzea zenbateko desabantaila duten patronalarekiko gaur egun, eta, hortik aurrera, hitzar-men ustelik ez sinatzea (sektoreetako esparru-hitzarmenak, adibidez).

12. Bulego ekonomikoa eta negoiazio kolektibokoa

Konfederazioaren zerbitzurik zaharrenetako bat dugu Negoiazio Kolektiboko Bulegoa. Tresna konfederal honek laguntza ematen die bere txosten ekonomikoekin sindikatuko federazio eta eskualdeetako arduradunei Negoiazio Kolektiboa prestatzeko; enpresek aurkeztutako EEEetarako zergatiak gezurtatzen ditu, justifikatu ezinekoak direnean; konkurtso-prozesuetan aholkua eman eta parte hartzen du; banakako kaleratzeetan zerbitzu juridikoek eskatutako peritu-eskuartzeak egiten dituzte, eta berriki EEE prozesu kolektiboetan.

Egungo krisi egoeran, eta erreforma ekonomiko, finantzario, sozial eta laboralak etengabeak direnean, informazio-tresna bilakatu da federazioetako arduradunak uztar ditzaten edukiak eta antolakuntza, negoiazio zein ekintza sindikaleko estrategiak.

Krisia garatu ahala, azken erreforma laboralek zio objektiboak medio argudiatzen diren banakako kaleratzeak eta kolektiboak gehitzea eragin dute; Bulegoaren esku hartzea, bere txostenekin, eta auzibide banako eta kolektiboetan lekukotasun periziala emanaz, sarri erabakigarria izan da eta etorkizunean ere izango da.

Aipamen berezia merezi du Enplegua Erregulatzeko Espedienteen (EEE) gorakadak, mota guztiei dagokienez, eta lan-baldintzen funtsezko aldaketak, 2012ko uztaileko erreformaz gero (zeinaren ondorioz enpresak erabaki unilaterala hartzeko ahalmena

duen). Akordiorik ez zegoenean ez dugu auzitara jo beste erremediorik izan; hau jauzi kualitatibo bat da Bulegoaren, Zerbitzu Juridikoen eta federazioetako arduradunen lan egiteko eran.

Eragindako aktoreen arteko koordinazio lan honetarako protokolo bat behar da; bulegoak proposatu du dagoeneko, eta horren bidez prozesu hauen kudeaketa eraginkorra lortu nahi dugu, bilatzen diren helburuetara iristeko: euskal langileen kaleratzeak saihestu eta haien soldatak eta baldintzak etengabe oker ditzaten galaraztea.

Azkenik, mota guztietako konkurtso-prozesuak gehitzeak eta krisian dauden enpresak bizkortzeko asmoak eragin du bulegoak parte hartze handiagoa izatea enpleguaren aldeko proiektuetan eta Euskal Herriko ekonomia desindustrializatzearen aurkako ahaleginean.



MILITANTZIA INPLIKATUAGOA, ANTOLAKUNTZA-ALDAKETETARAKO PRESTATUA

1. Lehentasuna, antolakuntza

ELAk beti eman dio lehentasuna antolakuntza garatzeari eta hobetzeari, uste osoa baitu ordezkaten dituen langileen interesak babesteko honako hau behar dela: enpresa eta eskualdeetan egitura osoa eta benetako antolakuntza duen proiektu bat.

Negoiazio kolektiboari buruzko atalean eta sozioekonomikoan azaldu dugunez, goitik behera aldatu dituzte joko-arauak, langileen aurka gogor eraso egiteko. Gutxieneko orekak suntsitu egin dituzte, patronalaren mesedetan. Helburu hori zuen sektorekako hitzarmen probintzialak baliogabetzeak eta haien ordeztatu edo enpresa mailakoak hobesteak, adibidez.

Horrek guztiak izugarriko desafioa dakarkigu, baita antolakuntza aldetik ere. Segur aski, egokitu egin beharko ditugu gure antolakuntza-eredua, funtzionamendu-arauak eta egiturak, langileen alde jarduteko tresna eraginkorra izaten jarrai ahal dezagun. Dagoeneko zabalik dago horri buruzko gogoeta sindikatuan, eta laster ikusiko da horren emaitzarik. Ondorioak edozein direlarik ere, ordea, antolakuntza hobea, militantzia sendoa eta konprometitu beharko ditugu gerora ere lantegietan langileak antolatzeke eta, hartara, gure eskubideen alde egiteko.

2. Baliotsi dezagun egiten duguna

Antolakuntzaren aldetik, bizitasun eta eskakizun-maila handikoa izan da kongresu arteko garaia. Krisia dela eta, gure koadroek eta militanteek enplegu-erregulazioko espedienteak, konkursoak, enpresa-itxierak, langileen kaleratzeak, grebak, negoziazioak... kudeatu behar izan dituzte. Horrez gain, hainbat eta hainbat greba eta mobilizazio egin ditugu krisiaren kudeaketa neoliberalaren aurka, eta gatazka ugari bultzatu ditugu hitzarmenen alde, patronala krisiaz baliatzen ari baita enplegua erregulatu eta soldatak jaisteko. Erreakzio-lana izan da gehienbat gure jarduera hori guztia, baina guztiz beharrezkoa, eta gure erakundearen ahalegin nagusia bihurtu da kongresu arteko garaian.

Bestalde, berriro ere ordezkartza handiena guk lortu dugu, gainerako sindikatuekiko alde handiarekin, eta, batez ere, afiliazio-lan handia egin dugu, milaka langile erakarri

baititugu gure proiektu konfederalera. Hori da, hain zuzen, gure independentzia politiko eta finantzarioaren bermea.

Horregatik, bada, gure militanteen ahalegina eta zintzotasuna azpimarratu behar ditugu antolakuntzari buruzko txosten-atal honen hasieran.

3. Antolakuntzari buruzko testa, etorkizuneko egokitzapenen atari

Jakina, antolakuntzari buruzko test moduko bat ere izan da kongresu arteko sasoia, hor ikusi baititugu gure indar-guneak, hobetu beharreko alderdiak eta hutsuneak. Gogorra da, zinez, ikustea nola ari garen galtzen posizioak langileok testuinguru zail honetan, baina gogoratu behar dugu indar-korrelazioa ez dagoela gure esku soilik. Aldiz, gure esku dago antolakuntza aldetik zer hobekuntza-aukera dauden aztertzea eta haiez baliatzea.

Soldatak nabarmen jaistea dute helburu lanaren eta negoziazio kolektiboaren erreformek. Horretarako, suntsitu egiten dute lehengo negoziazio kolektiboaren egitura, enpresariari izugarritzko boterea ematen diote, eta ahuldu egiten dute langilea, murriztu egiten baitzaizkio eskubideak, indibidualak zein kolektiboak. Lan-harremanei dagokienez, mugarrira ditugu erreforma hauek, dagokion atalean azaldu dugunez. Horregatik, hain justu ere, uste dugu aldaketak izango direla lan-munduan, eta haietara egokitzeko ahalegin handia egin beharko duela sindikatuak.

Oso barneratua dugu ELAko militanteok sindikatua tresna bat dela. Gure erakundea ez da, berez, helburu bat, langileen alde jarduteko tresna baizik. Baina klase-leialtasun horrek etengabeko egokitzapena eskatzen du, lan-munduaren egoerara etengabe egokitzea alegia, langileen interesen eta asmoen alde egiteko. Horra, bada, datozen urteotan nahitaez egin beharko ditugun antolakuntza-aldaketen eta -egokitzapenen xedea: gure klasearentzat, langile-klasearentzat, baliagarri izaten jarraitzea, defentsa kolektiboko lanabes eraginkorra izatea langileen interesak jokoan dauden maila eta eremu guztietan. Aurreko kongresuko esloganak, beraz, indarrean dirau, erabat: Langileekin.

Honenbestez, negoziazio kolektiboaren erreformak dakarkigun antolakuntza-lanaz arduratu beharra daukagu, hots, lantegiak sindikalizatu egin behar ditugu, araudi-erreformak indargabetzeko leku bakarra lantokiak baitira. Horregatik, lehentasuna eman behar diogu antolakuntza-lanari.

Ohartzen gara, noski, zenbateko garrantzia duen gure antolakuntza-eredua egokitzeak; ohartzen gara, halaber, zer ziurgabetasun ekarriko dizkigun geroak, baina, hala eta guztiz ere, adorez begiratzen diogu etorkizunari. Ehun urtetik gora ditu jada gure erakundeak, eta etengabe egokitu izan da euskal langileei tokatu zaizkien egoera eta estualdi guztietara. Jazarpena, ilegalizazioa, diktadurak... denetik ikusi dugu; orain, berriz, askatasun sindikalak zaintzapean ditugu, nabarmen atzeraka egiten. Ibilbide luze horretan, antolakuntza-aldaketa garrantzitsuak egin behar izan ditugu.

Urruti joan gabe, 1990eko hamarkadan argi ikusi genuen zer haustura zekarren lan-munduaren prekarizazioak, nolako amarruak ziren elkarrizketa eta adostasun soziala. Garbi ohartu ginen instituzioetan parte-hartzeak protagonismo faltua ematen zigula

sindikatuoi, baita finantziario publiko eskuzabala ere, horren truke langileen eskubideei eta interesei bizkarra emateko prest egonez gero. ELAk une hartan iritzi izan zion III Kongresuan hautatu zuen kontrabotere ereduare gehiago sendotu behar zuela. Hala, belaunaldi eta genero berritze prozesu sakon baten erdian, eta federazio eta eskualde-egituren egokitzea egiten ari ginela, botere politikoaren xantaia jasan behar izan genuen. Izan ere, diru publikoa ondare pribatua balitz bezala erabiltzen du botere politikoak, eta instituzioekiko "leialtasuna" eskatzen du sosik eman aurretik. Horrez gain, komunikabideen eraso gogorrari ere eutsi behar izan diogu, gure sindikatuaren lanaren garrantziaz ongi asko ohartuak baitira.

Etengabeko egokitze-ahalegin horrek bizitasuna eman dio gure erakundeari, eta horri esker ari gara oraingo krisia kudeatzen, besteak beste. Hain zuzen ere, egokitze horregatik jasotzen dugu gaur egun ere langileen babes, eta horregatik egiten du bat gure sindikatuarekin alor eta lan-egoera oso desberdinetako hainbat jendek. Horixe da, guretzat, aintzat hartu beharreko legitimotasun-iturri bakarra geroari begira.

4. Afiliazio- eta ordezkartza-maila areagotu

Zenbaitek esanagatik kapitalismoaren egungo fasean sindikalismoak etorkizun iluna duela, lau urte hauetako ibilbideak berretsi egiten du gure ustea: egoera honetan ere eutsi dakioke botere sindikalari, baita areagotu ere.

Kudeaketa-txostenean ageri denez, egia da ez dugula lortu saldo positiborik, afiliarioari dagokionez, kongresu arteko epean, baina igo egin da populazioa aktiboan genuen afiliario-tasa, besterik ez bada langabeziaren igoeragatik.

Milaka langile atxiki zaizkio gure proiektu sindikalari krisi-garai honetan, bai baitakite gurea dutela beren babes pertsonal eta kolektiborik onena.

Izan ere, afiliarioa du ardatz gure eredu sindikalak, hala nahi eta behar dugulako. Horrek ematen dio gure proiektuari legitimaziorik garrantzitsuena, lehenago ere azaldu dugunez. Afiliarioa dagoen tokian sindikatuak gorputza du, eta afiliatzea nortasun kolektibo batiesteko egintza bat da, botere ekonomikoak eta patronalak lan-mundu individualizatu bat nahi dutelarik. Halaber, afiliarioari esker eusten dio gure proiektu konfederalak independentziari, bai politikari bai finantzei dagokienez. Krisi-egoerak, bestalde, areagotu egiten du gure uste hau: inoren mendeko ez den sindikalismoak bakarrik egin diezaie aurre kapitalaren erasoari eta politika kapitalaren mende jartzeko ahaleginari.

Horregatik, bada, premiazkoa dugu saldo positiboetara itzultzea, epe laburrean gainera. Horretarako, baliagarri izaten jarraitzen du XI. Kongresuan genioenak: "Eskualde-batza guztietan eta lau federazioetan helburu zehatzak ezartzeko gai izan behar du gure sistematikak, gure metodoak. Lehenasuna eman behar diogu eginkizun kolektibo horri, ez dugu une batez ere utzi behar bazterrer".

Ari gara, dagoeneko, lan horri ekiten. Dena den, federazioen eta eskualdeen planifikazioari uztartuta egon da afiliarioa -gero eta gehiago, gainera-, ez halabeharri, datuek erakusten digutenez, eta hala jarraitu behar luke.

Bestalde, afiliazioari estu lotuta egon ohi dira hauteskunde sindikalak ere. Funtsezko uste eta apustu hau du abiapuntu gure lanak, oraingoak eta gerokoak: negoziazio kolektiboaren azken erreformak beste arrazoi bat dakar hurrengo urteotan gure ordezkari-kopurua nabarmen areagotzeko. ELAk lortzen dituen gehiengo mende egongo da, batez ere, hitzarmen kolektiboen sinadura ahal den sektore guztietan.

Zoritxarrez, azken erreformak dakarren izugarritzko desafioari erantzuteko erantzukizuna bereganatu duen konfederazio bakarra gara, eta sobera dakigu enpresa sindikalizatuak eta hitzarmen kolektiboak dauden lekuetan bakarrik bermatuko direla, gutxi asko, lan-kondizioak. Honenbestez, sindikalizazio-lan horren ardatzetako bat ditugu hauteskunde sindikalak, orduan -besteak beste- ohartzen baitira langileak talde bateko partaide direla, orduan hautatzen baitituzte beren ordezkariak, eta, hortik aurrera, antolatzen baitituzte lan-kondizioak hobetzeko lan-plan kolektiboak. Ordezkaritza hori, eta afiliatu-kopurua handitze, dugu lan-kondizioei eusteko eta hobetzeko behar dugun indarraren hornitzaile bakarra.

Sendotu egin behar dugu, hortaz, egiten ari garen lan sistematiko hori. Gure iritzian, hazkuntza-aukera nagusietako bat hau dugu: ordezkariarik ez dugun enpresetarako lan iraunkorra planifikatzea. Beraz, federazioek eta eskualdeek lan hori planifikatu egin behar dute, hurrengo aldi trinkoan ere jarrita dituztela begiak.

Oro har azalduta, EAeko ordezkariaren %40a berreskuratu behar dugu epe laburrera. Lor dezakegu helburu hori. Nafarroan, berriz, egin ditugun antolakuntza-ahaleginek hazkunde iraunkorra ekarri behar digute, eta 1.500 ordezkariaren kopurua finkatu. Badakigu, noski, haizearen kontrako asmoa dela gurea, ikusirik gure sindikatuaren aurkako patronalaren herra, baina uste dugu emaitza positiboekin amai dezakegula beste laurteko bat. Asmo hau haize kontra doa, kontutan izanik patronalak gure sindikatuarekiko duen jarrera oldarkorra. Halaber, CCOO sindikatuaren jarrera ere salatu behar dugu, hauteskunde sindikalen jarraipen eta kontrolari buruzko akordioa haustean zapuztu egin baitzuen gardentasuna eta fidagarritasuna bermatzeko xedea zuen sistema bat. Bestalde, jokabide antidemokratiko eta antisindikala erakutsiz, hauteskunde sindikalak deitzea galarazi nahi izan digute. Ez dute lortu, oraingoz auzitegiek arrazoia eman baitituzte. Honelako jokabideak onartu ezinekoak dira, eta hauteskunde sindikaleko gure lana indartzera bultzatu behar gaituzte; gertatu den guztia gorabehera, sinetsita gaudelako laurteko hau ere emaitza positiboekin burutzeko moduan izango garela.

5. Lidergo partekatua sendotu

Erakunde kohesionatua gara, eta horixe dugu ezaugarri nagusietako bat. Hainbat hamarkadaz egin dugu gogoeta gure antolakuntza-ereduaz, eta komu-nikazio bizia sustatu dugu, bai formala, bai informala. Bilera organikoa dugu funtsezko tresnetako bat antolakuntzari buruzko eztabaida horietarako. Hala ere, bada hobetu beharreko alderdi bat gure barne-funtzionamenduan.

Zuzendaritza partekatuko organo sendoa da gure Nazio Batzordea, sindikatuaren kohesioaren eta antolakuntza-koherentziaren bermatzailea. Baina, batzordeko kideen lan-karga izugarria dela eta eguneroko jardunean komunikazioa ez da behar bezain bizia, eraginkorra eta sakona. Nazio Batzordeko kideek alorrak zuzentzen dituzte eta garrantzi handiko erantzukizunak dituzte, jende eta talde askoren ardura dute eta.

Hortaz, komeni da tarteak hartzea (formalak eta ez-formalak) gogoetak egiteko, dinamikak zuzentzeko, militanteen eta taldeen ekarpenak hobetzeko.

Eskualdeetako idazkariek eta federazio-zuzendaritzek partekatzen dute enpresak eta alorrak sindikalizatzeko ardura dutenen gaineko zuzeneko gidaritza. Ezagutza-maila eta ikuspegi desberdinak dituzte federazioek eta eskualdeek, baina elkarren osagarriak; beraz, emankorragoa izango da guztien lana elkarrekin harreman zuzenagoa baldin badute, aberatsagoa eta askoz ere eraginkorragoa izango baita lidergo kolektiboa. Lidergoek garrantzi handia izango dute fase honetan, non jarduera sindikala oztopoz, atsekabez, amorrunez eta, zenbaitetan, ezintasunez josita dagoen. Gidatzea laguntzea da, partekatzea, zuzentzea, hobetzea, animuak ematea eta ilusioa piztea, aldarteak eta moral kolektiboak garrantzi handia baitute krisi-garai honetan.

6. Eskualde integralaren alde, are irmoago

Gure eskualdeetako taldeen funtzionamendua are biziagoa da egungo fase honetan. Tresna izugarri baliotsua ditugu gure eskualde-batzak: erantzukizunak denon artean hartzeko aukera ematen digute, talde-lanean, konpartimendu itxirik gabe, zuzendaritza bakar batekin. IX. Kongresuan (1997an) eskualde integralen alde egin genuen apustua, beraz, erabat zuzena izan zen. Egunero ikusten dugu haren eraginkortasuna: lagungarri zaigu gatazketarako, hauteskundeetarako, batzarretarako, grebak eta mobilizazioak prestatzeko...

Bestalde, eskualdeetan gauzatzen da antolakuntza-lana eta -politika; hortaz, haietan erabaki eta zuzendu behar da eguneroko lana, haietan gogoratu behar dira lehentasunak, haietan atzeman aukerak eta egituratu/koordinatu laguntzak.

Horregatik, bada, berrikusi beharra daukagu eskualde integralaren funtzionamendua, eta hobekuntzarik behar duten alderdiak hobetu egin behar ditugu.

Beraz, eskualdekako jarduera-planak prestatu behar ditugu berriro ere, tresna egokia baitira eguneroko jardun zoro horretan ez galtzeko, ikuspegi zabalarekin eta helburu nagusien arabera lan egiteko.

Federazioek, berriz, beren esparruaren ikuspegi orokorra izan behar dute, eta horretarako dinamika federalean enpresa handiak eta txikiak integratu behar dituzte. Lege laboralen eta negoziazio kolektiboaren azken erreformak erronka botatzen digu: benetako negoziazio-esparru bihurtu behar ditugu ETEak ere. Horregatik, enpresa hauek sindikalizatzeko eginkizuna federazioen lehentasun gisa kokatu behar da. Beharrezkoa da idazkaritzako eta ETEetako arduradunen arteko lan koordinatua, zinez lan-talde gisa joka dezaten. Badugu esperientzia oso positiborik, eta hauek erakusten digute lan-dinamika hau, egoera honetan, aukera on bat dela eta izugarritzeko potentziala duela. ETEetako militanteak Eskualde-Batzordeetan sartzeak analisi hobea egiteko aukera eman behar digu eta, horrenbestez, federazioak ETEetan egin beharreko lana definitzea dagokigu. Federazioen ETEetako dinamika hobetzea, eskualde integralaren esparruan, datorren kongresu-arteko epealdirako lehentasun izan behar du.

ETEeta egiten dugun lanean jauzi kualitatibo bat egin beharraz ari gara. Horretarako garrantzi handia du prestakuntza eta informazioari buruzko beharrianak identifikatzea, baita dinamika sindikaleko gabeziak ere, eta etekin ona ematen dutenak partekatzea. Horretarako jarraigoak izan behar dira ETEetako arduradunen bilerak; hauen eskarmentuak lagundu egin behar gaitu gure antolakuntza-eredua egokitzen sortu den egoera berriko exigentzia eta aukeretara.

Sektoreen eta zentro anitzeko enpresen kasuan garrantzi handia du gogoeta sektorialak eskualde-antolakuntza sakontzearekin batera egiteak. Hau da lantoki hauek eraldatzeko eta sindikalizatzeko modu bakarra. Sektoreek eskualde integrarean partaidetza handiagoa izan behar dute, noranzko horretan sakontzeko.

Eskualde integralaren funtzionamendua hobetzeko helburuen artean ere aintzat hartu beharrekoa da lantokiak eskualde desberdinetan dituzten enpresetako koordinazioa. Eskualdean kokatutako lantokiak eskualdeko lan-agendan kontutan izan behar dira, eta federazioak zein eskualdeak egin behar diete jarraipena. Hau ezinbestekoa da era honetako enpresetan hauteskunde sindikalei ekin ahal izateko.

Ez da lantegi erraza, egiteko ugari izaten baita eguneroko ekinean eta, sarritan, elkarri esku artean dugunaren berri emateko ere denbora hartzea kostatu egiten baita. Baina helburu horren zerbitzura jardun behar dute eskualdeen eta federazioen egiturek, eguneroko harremana eta hurbiltasuna bidaide dituztela.

7. Federazioak eta sindikalizatu beharreko sektoreak

Gure federazioei dagokie negoziazio kolektiboa sustatzea, are gehiago Rajoyren erreforma eta gero, norabide bikoitzean: negoziazio-esparru izan daitezkeenak berriz kokatzea, eta antolakuntzaren garapena sustatzea, indar-korrelazioa gure alde jartzeko. Egiten dakiguna hobeto egitera bultzatzen gaitu desafio horrek, eta egoera berrira egokitzeko aldatzera eta berritzaile izatera.

Federazioko organoek (idazkaritza federalek, batez ere) esperientziak alderatzeko eta partekatzeko eremu izan behar dute. Izan ere, gure jarduera sindikala (bizia, aniztuna, ugaria eta errealitatea ongi menderatzen duena) dugu ezagutza-iturri nagusia. Horregatik, bilera organikoetan gai izan behar dugu ondorioak ateratzeko, irizpideak ezartzeko eta haien jarraipena egiteko.

Enpresak eta eremuak sindikalizatzeko helburuak areagotu egiten du idazkaritzako kideen eta beren lan-eremuetan sindikalizazioa bultzatu behar duten ordezkarien arteko harremana. Hurrengo zenbait ataletan (bileren kalitatea, lan-planak eta jarraipena) jorratuko ditugu zabalago gai horiek.

Sindikalizazioa sustatzeko, oso garrantzizkoa da sektoreetako antolakuntza-funtzionamendua bultzatzea. Ezin da, ordea, sektore guztien balorazio bateraturik egin, oso desberdinak baitira alor pribatua eta publikoa, baita lau herrialdeak ere. Baina, bistakoa denez, oso ongi funtzionatzen dute batzuek; beste batzuk, berriz, hobetu egin behar dira, eta, azkenik, zenbaitetan asko dago egiteko. Kasu guztietan, ordea, ikusi dugu garapen-potentzial handia dutela.

Antolakuntza-sistema egokia hautatzen bada, izan ere, handiagoa da militanteen atxikimendua. Horrek, noski, eraginkortasun handia ematen digu jarduera sindikalerako. Sektore bakoitzak bere berezitasunak ditu, baina, gure ustez, gogoeta orokor batzuk egin ditzakegu. Aintzat hartu behar dira gogoeta horiek aurrera jarraitu ahal izateko.

Sektore bakoitzeko berezitasuna hartu behar da abiapuntutzat suspertze-lanari ekiteko.

Militanteak non egon daitezkeen atzeman behar dugu, sektore bakoitzean, eta parte hartzeko aukera eskaini, gogoeta kolektiboa sustatuz, azterketarako eta estrategia zehazteko ekarpenak eskatuz. Funtsezkoa da militante-gune horien ekarpena federazioek nondik jo behar duten asma dezaten.

Bestalde, sektoreen eta federazioetako organoen arteko osagarritasuna sustatu behar da.

Irabazteko, eskualdeka antolatu behar dugu sektoreen jarduera, eta eskualdeetako garapen federalarekin eta lanbide artekoarekin indartu. Sektoreetan lan egiten dutenek, bestalde, erakundearen eta eskualdearen ikuspegi orokorra izan behar dute.

Beraz, sektoreetako militantzia federazio eta eskualdeetakoekin uztartzeko ahaleginarekin jarraitu behar dugu.

Bestalde, ordu-metaketagatiko liberatuek proiektu sindikala hedatzeko lan oso garrantzitsua egiten dute, eta horregatik sindikatuko gainerako arduradunek dituzten aukera berberak izan behar dituzte prestakuntza sindikal, ideologiko, antolakuntzako eta teknikoari dagokienez.

Azkenik, militanteak ez ezik, ordezkariak ere erakarri behar ditugu gure lan-jardunera.

8. Lanaren eta bileren kalitatea hobetu beharra

“Zaila da lan gehiago egitea, baina hobeto egin dezakegu”. Azken urteotan, sarri entzun dugu esaldi hori. Honenbestez, antolakuntzari buruzko trebakuntza-saio ugari ari gara egiten, lan-sistema horiek hobeto erabiltzeko. Arazo objektibo bat daukagu, izan ere: lan-karga handia. Ez dugu arazoaren larritasuna gutxitu behar, eta metodo-kontua dela esan, edo agendaren kontrolarena, edo lehentasunik ezarena... edo erosoan gabiltzan lanak egitearen kontua. Baina, bestalde, egia da badagoela zertan hobetu, eta hobetu beharra daukagula alor hauetan: lehentasunen ezarpenean, agendaren kontrolean eta lan-metodoan.

Lan-planak kontrolatu egin behar ditugu, eta haien jarraipena egin. Komeni da jarraipena egin behar diegun gai nagusiak zehaztea, hartara planaren bilakaera ebaluatu, zuzendu eta hobetu egin baitaiteke, eta, gainera, lehentasunak ezarri. Dena dela, krisia hasi zenetik hobetu garela gaude, alderdi horri dagokionez. Baina arazorik eta erresistentziarik ere sumatzen dugu oraindik ere. Horregatik, gure iritziz,

- Lan-metodoak zuzendu eta hobetu egin behar ditugu.

- Lehentasuna eman behar diogu enpresak eta eremuak sindikalizatzeari, eta, jakina, afiliazioari.
- Jarduera sistematikoagoek (hauteskunde sindikalek, adibidez) eskatzen dituzten protokoloak eta mekanismoak erabili behar ditugu.
- Ahalegin handiagoa egin behar dugu militanteak antolatu, kohesionatu, motibatu, gureganatu eta mobilizatzeko.

Alde horretatik zuzenketak egin beharrean gaude, gure proiektuak ezinbestekoa baitu militante-taldeak ardurak eta lanak berenganatzeko gai izatea. Gure ustean, urratsak egiten baditugu norabide horretan, aurrera egingo du gure planifikazioak; horrek, berriz, nabarmen hobetuko ditu gure antolakuntzaren emaitzak.

Bide horri ekiteko, ordea, alderdi praktiko oso garrantzitsu bat azpimarratu behar dugu: bileren kalitatea. Lan sindikalaren parte handi bat era guztietako bileretan kudeatzen da: bilera formalak eta ez-formalak, informazio-bilerak eta erabakiak hartzekoak, eztabaidatzekoak eta erabakiak betearaztekoak, sektorekako bilerak edo lurraldekakoak, militanteenak edo afiliatuenak, txikiak edo handiak... Beraz, ez da gehiegikeria hau esatea: bilerak dira, seguruenik, gure lan-tresna nagusia. Horregatik, bada, bileren kalitatea zainduz gero, nabarmen hobetuko da gure antolakuntza. Zenbat eta hobeto egin bilerak, orduan eta ekarpen handiagoa gure erakunde osoari.

Lana eskatzen du bilera-prestakuntzak, egia da hori, baina, gerora, lan gehiago aurrezten digu prestaketak. Hortaz, bilerak nola prestatu ikastea eta bilerak egiteko denbora hartzea oso lagungarri izango zaigu, gerora, antolakuntza-lanerako. Izan ere, ondo prestatutako bilera batek balio erantsia du, partaide dituenentzat, trebakuntzari eta prestakuntzari dagokienez.

Bileran direnei laguntzeko, gaiak sakon, egokiro eta bizitasunez jorratu behar dira. Bestalde, jardunbide egokien erabilera sistematizatu egin behar dugu bileretan, batez ere enpresen sindikalizazioari (bileren helburu nagusia, hain zuzen), krisiaren kudeaketari eta negoziazio kolektiboari dagokienez.

Ahal den guztietan, txostenak eraman behar ditugu, idatziak eta aldez aurretik prestatuak, bileran direnek informazioa behar bezala jaso dezaten eta edukiak hobeto barneratu eta eztabaidatu ditzaten. Erakundeko organo guztietan egin behar dugu hori. Bileretako ondorioak idatziz jasotzea ere komeni da; hartara, hobeto hedatuko ditugu bilerako eztabaidak, ondorioak eta irizpideak lana gauzatu behar den eremuetara. Bestalde, organoetan gaiak jorratzean errepikapenak saihestu egin behar ditugu.

9. Hiru jarduera-lerro: sindikalizatu, egituratu eta mobilizatu

a) Sindikalizazioan sakondu

Txosten honetan maiz azpimarratu dugu alderdi hau: etorkizun hurbilean, sindikalizatutako eremuek bakarrik izango dituzte lan-kondizio duinak, aplikatzen diren hitzarmenak... eskubideak, alegia. Horrenbestez, negoziazio kolektiboaren

premietara egokitu behar dugu gure antolakuntza-eredua, edozein egoeratan gaudela ere borroka-antolamendu eraginkorra izan dezagun.

Izan ere, negoziazio kolektiboaren erreformak jauzi kualitatibo bat egitera behartzen gaitu atal sindikalen funtzionamendu-kalitateari dagokionez: lan-plan egokiak behar ditugu, eta gero eta maizago egin behar ditugu afiliatu- eta enpresa-batzarrak, hartara informazioa alderatu, jendea kohesionatu eta indar-korrelazioa hobetzeko.

Erreformari erantzuteko, alor eta lantoki bakoitzeko langileak antolatu egin behar ditugu, militante-taldean eta atal sindikalen bitartez. Baina sindikatuak egote hutsak ez du, berez, langileen inongo eskubiderik bermatzen: antolakuntza-gaitasuna nolakoa, halakoak izango dira lan-kondizioak. Beste biderik ez daukagu: sindikatua sendotu egin behar dugu, lantoki bakoitzean; atal sindikal hobeak behar ditugu, gure eskubideen alde hobeto jarduteko.

Sindikalizazioari ekiterakoan, enpresa guztia izan behar dugu kontutan, gure ekintza sindikala osokoa izan dadin. Gure lan sindikala lantokian diharduen plantilla guztiarengana iritsi behar da, enpresa nagusikoa, azpikontratetakoak, ABLEetakoak zein zerbitzu-enpresetakoak dela ere. Ezin du langile ikusezinik egon ELAko inongo batzorde edo ordezkariarentzat.

Erreformak, izan ere, ez du eragozten antolakuntza sindikala. Gogora dezagun, bestalde, azken urteotako jarduera sindikaletik oinarrizko ondorio hauek atera ditugula: borroka kolektibo antolatuak fruituak ematen ditu; sindikalizazioak ez dauka eremu debekaturik, eta alor guztietara hedatu daiteke (enpresa handi eta txikitara; sektore, zentro eta multizentroetara, norberaren konturako langileak eta azpikontratatuak...). Ez dago, beraz, antolakuntza sindikala bultzatu ezinako alorrik. Halaxe erakutsi digu gure jardunak: sektore oso desberdinetara iritsi, sindikalizatu eta, ondoren, oso hitzarmen onak egin ditugu, sektore horietako askotan ezinezkoa zela uste izan arren duela urte batzuk. Lan zaila eta gogorra da, badakigu, baina egin daiteke: zailtasunak aukera bihurtzeko, antolakuntza-lan ona egin behar da, eta gogotik.

Horretarako, lehenik eta behin, afiliazio-maila onak lortu behar ditugu eskubide laboralak edo lan-kondizioak eztabaidagai diren eremuetan. Luzea eta gogorra izan daitekeen borroka bati ekiteko, afiliatu ugari behar dira, gure proiektuko partaide izatea erabakitzen duten langileak alegia.

Geroz eta garrantzi handiagoa izango du ordezkariak, hitzarmen hobeagoen alde borrokatzeko gehiengoak izateak. Erabakigarria da hori lantokiak sindikalizatzeke.

Horregatik, ezinbestekoak dira atal edo talde sindikalak sindikalizatzeko eta gidatzeko arduratzen diren militanteak, beren lan-eremuen antolakuntza haiei baitagokie. Ezagunak eta onartuak izan behar dute lider horiek, lan egiteko gaitasun aski frogatukoak, zintzoak, balioak dituzten gizon-emakumeak, konprometituak, presio-mailarik gogorrenak eta gupidagabeenak ere jasaten dituztenak. Horregatik, beste jauzi bat egin behar dugu: beren lantoki edo lan-esparruetan sindikatua antolatzeari ekiten dioten militanteen kopurua gehitu, eta sindikalista onak izaten lagundu. Jende arrunta gara, eta egoera-aldaketa bati erantzun beharrean aurkitzen gara, sindikatua eraiki eta dagokigun alorrean borrokatu ahal izateko.

Fase honetan, garrantzi berezia du atal edo talde sindikalaren funtzionamendu egokiak, talde-lanak alegia. Ugaldu egiten dira eginkizun sindikalak eta zailtasunak; beraz, gogotik egin behar izaten da lan lantoki guztietara iristeko. Horretarako, talde-lan egokia egin behar du atal sindikalak, lanak banatu eta militante berrien partaidetza aktiboa sustatu.

Lantokian gure indar-korrelazioa hobetzeko, berriz, garrantzi handia eman behar diegu batzarrei. Funtsezko tresna da, izan ere, planteamenduak aberasteko, jarrerak eta borrokak legitimatzeko, jendearen atxikimendua eta kohesioa lortzeko... Batzarrak egitearen eta haien kalitatearen mende dago, beraz -hein handi batean- borrokarako indarra izatea edo ez izatea.

Hobetu egin behar dugu, bada, batzarrak egiteko prozedura. Gutxi erabiltzen dugu aukera hori (batzarrak, alegia), baina, testuinguru berri honetan, funtsezko tresna izan behar du. Ongi prestatu eta gidatu behar dira, eta egoerak eskatzen dituen guztiak egin. Patronala harro dabil, erreformek eskaintzen dizkioten aukera guztiez baliatzeko prest. Horregatik, bada, jarrera irmoa eta kohesionatua izan behar dute langileek, beren eskubideen alde jarduteko.

Krisi-egoera honetan, patronalak badu planik. Sektore, enpresa eta eremu guztietan ditu, gainera, legeak eskaintzen dizkion aukera guztiak aprobetxatu nahi baititu. Eta are indartsuagoa izango da patronala erreakzio edo bulkada hutsez erantzuten badugu, planifikaziorik gabe. Honenbestez, guk ere lan-planak behar ditugu: plan neurgarriak, egingarriak, sustagarriak, garaian garaikoak eta berarizkoak. Bestalde, planen jarraipena ere egin behar da. Komeni da zehaztea zein diren jarraipena egin beharreko alderdi nagusiak, horiei esker ebaluatzen, zuzentzen eta hobetzen baita planaren martxa (alor nagusiena, behintzat), eta lehentasunak ezartzen. Zuzendu, egokitu eta hobetu egin behar dira planak.

Nabarmen hobetu behar ditugu gure lan egiteko erak, ohiturak aldatu, ezin baitiogu ekin egoera berriari borondate eta gogo hutsez. Uztartu egin behar ditugu ahalegina, helburuak eta eraginkortasuna. Berritzaile ere izan behar dugu garai berriotan; berrikusi egin behar ditugu gure lan egiteko sistemak, zer berritu behar den aztertu, eta teknologia berriez ere baliatu.

Ez dugu errepikatuko atal honetan negoziazio kolektiboaren antolakuntzari buruz lehendik esan duguna. Gogora dezagun, dena den, langileen afiliazioa eta antolakuntza eta negoziazio kolektiboaren prestakuntza lan sindikal oso eta zatiezin baten adarrak direla.

b) Militantziaren egituraketa

Tinko egin behar dugu aurrera gure oinarriko erakundeak sendotzeko ahaleginean. Izan ere, oinarriko erakundeen hedapenaren eta funtzionamendu-kalitatearen mende dago gure jarduera sindikala hobetzeko eta erantzuteko aukera, proposamenak egiteko gure gaitasuna. Gure sindikalismo-ereduak (kontraboterekoa, mobilizatzailea) egituratutako jendea behar du, federazioetan, eskualdeetan eta konfederazioan. Beren enpresatik edo lantokitik harago lan egiteko prest dauden militanteak behar ditugu.

Oinarriko erakunde horien helburuak hauek dira:

- Lan egiteko eta ardurak berenganatzeko prest dagoen ahalik eta militante gehien biltzea.
- Eztabaida eta gogoeta kolektiboa sustatzea. Proposamenak hobetzea, dagozkien alorretara egokitzea, eta haiek gauzatzen laguntzea gogoeta/proposamen horretako partaideei.
- Esperientziak alderatzea; ikastea, alegia.
- Bileren maiztasuna eta kalitatea zaintzea.
- Erantzukizunak eta lanak banatzea, diagnostiko eta helburu partekatu batzuk oinarri direla.
- Lanen jarraipena egitea, baita egin beharreko zuzenketak eta egokitzapenak ere.

Izan ere, militante horiek laguntzen dute egoitzetan, bisitaldietan, afiliaturik edo ordezkari ez dugun (edo oso gutxi dugun) enpresetara sindikatua hedatzen. Militante horiek bultzatzen dituzte mobilizazioak, eusten diete borrokei, hartzen dute parte grebak prestatzen...

Borroka askotan zaildutako militantzia dugu, esperientzia sindikal handikoa. Negoziazio-prozesu gogorretan, greba luzeetan, krisialdietan eta enpresa-itxieren aurkako ekinean jardundako militanteak ditugu. Asko dute erakusteko, eta asko lagundu dezakete ezagutza teknikoak, juridikoak edo ekonomikoak behar diren alorretan.

Bestalde, zenbait prestakuntza-saio egin dugu ordezkari gazteekin, eta beste eskualde askotara heda daitezke, emaitza positiboak izan baitituzte. Horrez gain, militantzia-modu berriak ari gara aurkitzen zenbait alorretan (komunikabide libreetan eta sare sozialetan, adibidez), non hainbat jendek sindikatuaren jarduera indartzen duen, bakoitzak bere ezagutza-arloan.

Enpresa handietako ordezkari ugari, berriz, ETEetako arduradunei laguntzen diete enpresa txikiak bisitatzen. Hala egingo ez balute, seguru aski gure agendatik kanpo geratuko liriteke enpresa horiek. Bere garaiak ezetz erantzun zuten enpresa eta langile jakin batzuk sindikalizatzeko garai egokia ere izan liteke, egungo egoeraren gogortasunak edo hurbiltasunak haiek ere ukituko baititu. Aprobetxatu egin behar ditugu alde horretatik sortzen diren aukerak.

ELAko militanteak:

- Funtsezko eginkizuna dauka egoera honetan. Borroka sindikaleko hainbat esparru eta gunetan jardun behar du aldi berean, enpresatik hasita. Hala da; negoziazio kolektiboaren erreforma halako erronka da antolakuntzari dagokionez, non enpresaren baitako konpromiso militanteak jite berri bat hartzen baitu; inoiz baino exijenteagoa da.
- Abiapuntu horretatik, gauza izan behar du errealitatea lan- eta bizibaldintzetan pertsonarik kaltetuenen ikuspegitik irakurtzeko, eta estereotipo

diskriminatzaileekiko erresistentzia berezia izan behar du, desberdintasunak iraunarazten dituzten edozein eratako estereotipoak.

- Etsipenaren aurka, konpromisozko eta ingurua eraldatzeko jarrerak izan behar ditu, lehenasuna beti interes kolektiboei emanez, banakako edo korporatiboen gainetik.
- ELAko bere militantzia borroka kolektiboan parte hartzea dela uste du, eta sindikatua, bere ardura betetzerakoan kohesio eta babes tresna gisa ikusten du.

c) *Mobilizazio-gaitasun handiagoa*

Luze iraungo dute krisiak eta doitze-politikek. Horregatik, enpresako lan sindikalaz gain, besterik ere egin behar dugu: kanean jardun behar dugu, mobilizazio sozial handiak bultzatu. Mobilizazio asko, biziak, iraupen luzekoak eta jarraituak, doitze-neurriari (ankerrak eta bidegabeak) erantzuteko eta haien ondorio larriak plazaratzeko. Gizartearen erantzuna (gero eta zabalagoa, iraunkorra) da politika horiek aldarazteko bide bakarra.

Gogoeta hori gure lehen militante-lerrora eraman behar dugu, lehenik eta behin, hau da, gure jarduera sindikalean diharduten ordezkariari, sindikatuak deitzen dituen mobilizazioetara gero eta afiliatu gehiago bil ditzaten, pixkanaka.



ARLO ETA ZERBITZU KONFEDERALETATIK, ERAKUNDEA INDARTU

1. Prestakuntza

Inoiz baino gehiago jabetzen gara gaur egun prestakuntzaren garrantziaz gure antolakuntza-premiei erantzuteko. Funtsezkoa da trebakuntza ideologikoa erresistentzia-mota horretarako, baina antolakuntza-lanerako ere prestatu behar gaitu prestakuntzak, gure jardunerako ezagutza tekniko hornitzeaz gain. Azkenik, kontuan hartzekoa da beste alderdi hau ere: trebakuntza-saioek militanteen topaketa eta elkar ezagutza dakarte, eta gure proiektu sindikalarekiko atxikimendua areagotu egiten dute.

Esana dugu lehendik ere krisi-egoera dela eta arrisku handi bat dugula: premiazko gaiei bakarrik ekiteko arriskua, alegia, beste elementu estrategiko batzuk bazterrera utzita. Beraz, ondorio larriak ekarriko lituzke, gerora, trebakuntzaren alorrari (besteak beste) garrantzia kentzeak. Autotrebakuntzaren garrantzia ere azpimarratu behar dugu, beste behin ere.

Lehenago genioenez, Rajoyren erreforma mugarrria da lan-harremanen arloan. Horregatik, trebakuntza-premiak atzemateko lan handia egin behar dute sindikatuko koadroek eta militanteek beren jarduera-eremuetan. Ondoren, federazio eta eskualdeetako arduradunekin azertu behar da premien mapa, eta agenda errealera eramán, trebakuntza-sailaren laguntzarekin.

Federazio eta eskualdeetako arduradunek, berriz, bultzatu egin behar dute jendea konfederazioaren prestakuntza-eskaintzan parte hartzera, orain arte egin duten bezala. Aurrerantzean ere, lehenatasuna izango dute sindikatuaren antolakuntza- eta prestakuntza-agendan gai hauek: ordezkari berrien trebakuntzak, ordezkarien prestakuntza-saioek (urtean hainbat aldiz) eta organoen prestakuntzak.

Sakondu egin behar dugu aurreko kongresu arteko aldi hasitako trebakuntza-politika. Horretarako, zabaldu egin behar ditugu prestakuntza-eremuak, eta jende gehiago prestatu, gure atal sindikaletako eta sektoreetako militanteak treba ditzaten.

Azkenik, elkarrekin hobeto koordinatuta jardun behar dute trebakuntza-sailak eta komunikaziokoak prestakuntza- eta informazio-materialaren banaketan.

2. Zerbitzu juridikoak

Zerbitzu juridikoen lan-karga nabarmen hazi da krisia hasi zenetik. Izan ere, lan-kondizioak indibidualizatu eta prekarizatu egin dituzte, erabat, lan-erreformek. Gero eta langile gehiago etortzen da gure egoitzetara aholku eske, eta berehalako arreta juridikoa nahi dutenak dira afiliatu berrietako asko. Bistakoa da, beraz, zerbitzu horren garrantzia, baita afiliatorako ere.

Zerbitzu hurbila, eraginkorra eta kalitatekoa eskaintzen dute ELAren zerbitzu juridikoek, konpromiso-maila eta trebakuntza tekniko handia dutelako, neurri handi batean. Kalitate hori hobetzen jarraitzea da gure zerbitzu juridikoen eginkizun nagusia. Horretarako, uztartu egin beharko dira kudeatzen diren gaien konplexutasuna eta eskaria (konkurtoak, enplegu-erregulazioak, kaleratze kolektiboak...) kalitatearen jarraipenarekin eta hobekuntzarekin.

Kongresu arteko garaian, handitu egin dugu zerbitzu juridikoetako langile-kopurua, baina, hala eta guztiz ere, lan-karga handia jasaten dute. Horregatik, behar adina jende izan behar dute zerbitzuek, eta optimizatu egin behar dira lan-sistemak eta jarduera tekniko-juridikoko irizpideak.

Hobetu egin behar da, halaber, talde osoaren koordinazioa eta komunikazioa, baita konfederazioko alor (laneko osasuna eta azterketa-bulegoa), eskualde eta federazio guztiekiko lotura ere.

Horrez gain, ondorio politikoak eta antolakuntza-alorrekoak atera behar ditugu eguneroko lan bikain horretatik. Izan ere, ez da jende askorik izango gure abokatuek baino gehiago dakienik laneko gaiei eta gatazkei buruz. Jakintza hori oso baliagarria zaie taldeari eta sindikatu osoari. Komunikazio-politika egokia garatu behar dugu, eta sistematikoki plazaratu epai interesgarriak, langileen interesak babesteko lagungarri zaizkigunak.

Bestalde, hobetu egin behar da zerbitzu juridikoetako langileen trebakuntza, lan-alorreko etengabeko lege- eta jurisprudentzia-aldaketak direla eta oso zorrotzak izan behar baitugu gure egokitze- eta eguneratze-lanean. Trebakuntza-premiak atzeman behar ditugu, alor teniko-juridikorako prestakuntza-plan berariazkoak antolatzeke, trebakuntza ideologiko-sindikala alde batera utzi gabe, betiere kalitatea, kohesioa eta gure proiektu sindikalarekiko atxikimendua direla helburu.

Gure proiektuarekiko atxikimendua areagotzeko, mekanismoak prestatu behar dira zerbitzu juridikoek eskualdeetako jardueran parte har dezaten, eta, hartara, gogoeta eta ekintza kolektiboetan partaidetza handiagoa izan dezaten.

3. Immigrazioa

Immigrazio-gaiei buruz militantziari trebakuntza ideologikoa eta teknikoa emateak garrantzi handia izaten jarraitzen du. Kale eta lantokietan, batik bat eraikuntza sektorean, xenofobia hedatzen ari dela ikusteak, eta egiten ari diren araudi-aldaketa nabarmenek, batik bat krisiaren baitan, prestakuntzarako ahalegin hori egitera behartzen gaitu, eskualde-batzordeetan bereziki. Lagungarri dira, horretarako, Hango

Hemengo aldizkariaren argitalpena eta konfederazioaren egutegian gai horri buruzko tarte bat gordetzea ere.

Langile immigranteen sindikalizazioa da, antolakuntzaren aldetik, gure helburu nagusia. Gero eta atzerritar gehiago afiliatzen da ELAra; beraz, helburutik hurbilago gabiltza. Alabaina, uste dugu badagoela oraindik ere aukerarik lantegietan atzerriko langileak antolatzeke eta sindikalizatzeko. Horretarako, dagokion sailak, federazioek eta eskualdeek areagotu egin behar dute, nahitaez, koordinazio-lana.

Garrantzi handia ematen dio ELAk immigrante-elkarteekiko zuzeneko harremanari. Esan dezagun elkarte ugari eta era askotakoak dituztela. Harreman horri esker, hobeto ezagutzen ditugu taldeen arazoak, eta aholku eman ahal diegu hemengo egoera laboralari eta sozialari buruz. Beraz, immigranteen eskubideez arduratzen den Eskuz Esku plataforman jarraituko dugu, erakunde guztiek eskubideak murrizteko darabilten politikari aurre egiten laguntzeko. Bestalde, salaketekin ere jarraitu behar dugu, are gehiago kontuan izanik gai hauei buruz komunikabideek ez dutela ia ezertxo ere argitaratzen.

4. Laneko osasuna

Langileen osasunaren babesa klase-gatazkaren beste alderdi bat da, eta hala azaldu eta jorratu behar dugu. Alor honetan ere, nahi duen guztia jasotzen du patronalak gobernuetatik. Ez da egiten arau-urraketen jarraipenik eta kontrol zorrotzik; ez da ezartzen behar adina zigor. Horrenbestez, enpresa bakoitzean borrokatu behar dugu laneko osasunaren alde.

Lehentasuna, alor honetan, hau da: laneko osasunaren babesa atal sindikalen eta langileen ordezkarien jardura sindikal arruntera biltzea. Afiliatuen arazo indibidualei erantzuteaz gain, besterik ere egin behar du laneko osasunaren sailak: federazioen zerbitzura diharduen antolakuntza-tresna izan behar du, jardura sindikaleko eta negoziazio kolektiboko estrategia proposatzeko garaian.

Maila guztietan egin behar dugu aurrera laneko osasunari buruzko trebakuntzan; lehenik eta behin, sindikatuko egituran. Halaber, jarraitu egin behar da prebentzio-ordezkarien eta gainerako delegatuen prestakuntzan aurrera egiten, eta militanteei ere beharrezko tresna eta ezagutzak ematen. Prestakuntza honen plangintza egiterakoan, ardura honetan duela denbora asko diharduten prebentzio-ordezkarien eguneratzeko beharizanak aintzat hartu behar ditugu.

Laneko osasunaren alorrean berariazko lana egiteko, enpresetan, sektoreetan eta militanteekin egin behar dugu lan. Helburua: laneko osasuna agenda sindikalaren funtsezko gai bihurtzea alor horietan. Horri esker, negoziazio kolektibora ere eramán litezke laneko osasunari buruzko zenbait elementu (negoiziario kolektibori buruzko atalean garatu dugu gai hau).

Lan egin behar dugu gaixotasun profesionalak ikusarazi eta gizarteratzeko, horretarako kanpaina bereziak eginez. Gaixotasun profesionalei heltzeko unean garrantzitsua da gure bizimoduko esparru guztietan teknologia berrien ondorioz pairatzen ditugun arrisku berri eta emerjenteak, baita uhin elektromagnetikoek eragindako kontaminazioa ere. Era berean, gai horrekiko gobernuak darabiltzaten

politika publikoen jarraipen eta azterketa zorrotza egin behar da, eta alternatibak proposatu; horrez gain, osasun-sistemaren pribatizazioa eta mutualitateen botere gero eta handiagoa salatzen jarraitu behar dugu, plan zehatz batzuen bitartez.

Premiazkoa da, izan ere, gure mobilizazio-gaitasuna hobetzea, laneko osasunaren alorreko arazoei egokiro erantzuteko. Bestalde, gogortu egin behar dugu gure erantzuna lan-istripurik eta gaixotasun profesionalen salaketarik izaten den bakoitzean.

5. Genero-berdintasuneko politiken arloa

Genero-berdintasunaren helburua da gizonen eta emakumeen arteko erabateko berdintasunari buruzko estrategia sindikal oso bat sustatzea. Sindikatuko egitura guztietan genero-ikuspegia zeharka ezartzeko lanean ari gara, emakumeen berdintasuna eta haien aurkako diskriminazioa amaiarazteko asmoz. ELAren diagnostiko eta proposamenetan agertu behar du ikuspegi feministak, eta nabarmendu egin behar dira gizonen eta emakumeen artean dituzten eragin desberdinak.

Honenbestez, sindikatu osoaren zerbitzura dagoen tresna duzue sail hau, eta, sindikatuko gainerako egiturekin elkarlanean, enpresetan eta gizarte osoan benetako berdintasuna bultzatzeko proposamenak egitea eta lan-ildoak egituratzea dagokio, bai antolakuntza-mailan bai negoziazio kolektiboan.

Premiazkoa da, bestalde, mekanismoak ezartzea militantzia-egituretan ordezkari emakumezkoek parte har dezaten. Era berean, genero-berdintasunari buruzko militante-guneak antolatu behar dira gure egituretan. Azpimarratzekoa da Ibaizabal-Nerbioi eskualdean antolatu duten taldea. Federazio desberdinetako militanteak dira, eta hau dute helburu nagusi: bitartekari-lana egitea konfederazioaren eta eskualdeetako erakundeen artean (eskualdeetako batzorde federalak eta herri-batzak) berdintasun-gaiari dagokionez, eta behar den ekintza sindikala bultzatzea eskualdean.

Aliantzen atalean mugimendu feministekiko harremana finkatzen jarraitu behar dugu, esparru sindikal eta sozial hau egituratzen aurrera eginez.

6. Euskara

Ezinbestekoa da euskararen normalizazioa alor sozioekonomikoan, gure hizkuntza erabat normalizatzeko. Alabaina, toki eskasa du euskarak lan-munduan.

Bi jarduera-eremu azpimarratuko ditugu sail honi dagokionez: sindikatuaren euskalduntze-lana, batetik, eta lan-munduarena, bestetik.

Barne-normalizazioko planari dagokionez, aurrera jarraitu behar dugu, ELAko zerbitzu- eta lan-hizkuntza erabatekoa izan dadin euskara. Eman dugu zenbait pauso bide horretan, baina aitortu beharra dago asko dugula egiteko eta hobetzeko.

Urteko normalizazio-planekin jarraitu behar dugu, helburuak zentroka ezarriz, hobekuntza-neurriak hartuz eta emaitzak aztertuz. Hurrengo kongresu arteko sasoiaren, euskararen barne- eta kanpo-erabilerak izan behar du gai nagusia, eta bete egin behar dira konfederazioen organoetarako eta argitalpenetarako ezarritako gutxieneko helburuak.

Sindikatuaren gauden euskaldunok, lanean erabiltzen ditugun txosten nahiz idatzi ezberdinak, poliki-poliki euskaraz sortzeko konpromisoa hartu behar dugu. Eta euskara egunero erabiltzen ez dutenak, euskalduntzeko eta euskara erabiltzeko konpromisua hartu behar dute. Normalizazioaren helburua ez da euskara zerbitzu hizkuntza izatea bakarrik ELAn. Benetako lan hizkuntza izatea nahi dugu. Horretarako beharrezkoa da euskararen ahozko zein idatzizko erabilera areagotzea, ditugun inertzia eta erositutasunak albo batera utziz. Hau aurrera eramateko guztion borondatea eta konpromisoa behar ditugu.

Dena dela, gure sindikatua egiazki euskalduntzeko, eginkizun militantetzat hartu behar dugu zeregin hori. Funtsezkoak dira, horretarako, erakunde osoaren partaidetza eta militante bakoitzaren atxikimendua eta konpromisoa.

Alor soziolaboralean, ELAko ordezkarien sentsibilizazioa eta motibazioa sustatzen jarraitu behar dugu, eta enpresetan normalizazio-planak bultzatzen.

Sektore publikoan, berriz, normalizazio-plan eraginkorrak eta errealak eskatu behar ditugu, benetako koofizialtasunerantz jotzeko, zerbitzu publikoak euskaraz jasotzeko herritarrek duten eskubidea aintzat hartuta.

7. Prentsa eta argitalpenak

Komunikabideek -boterearen kontrolpean, gehienak- politiken aurkako kritikak eta haien alternatibak ezkututzen jarraitzen dute. Horregatik, lehentasunezko eginkizuna dugu langileei gure balorazioak eta proposamenak helaraztea, ikuspegi autokritikoarekin betiere, gure argitalpenak eta komunikazio-bideak hobetzen saiatuz. Hain zuzen, gure barne dinamikan areagotu egin behar dugu teknologia berrien erabilpena, informazio tresna arina, irismen eta zabalkunde handikoa den heinean; horretarako, militanteen prestakuntzan aurrera egin behar dugu.

Tresna ahaltsuak dira ELAren webgunea eta Manu Robles-Arangiz Fundazioarena gure sindikatuaren jardueren eta iritzien berri azkar eta modu erakargarrian plazaratzeko. Bi webgune horiek jasotzen duten bisita-kopuruak garbi erakusten du tresna horren balioa, geroz eta handiagoa. Bestalde, sistematikoki osatu behar dugu sailen tratamendua, eta, pixkanaka, federazioen eta eskualdeen egiturak gehitu.

Horrez gain, sare sozialen erabileran izan ditugun lehen esperientziak areagotu egin behar ditugu. Oso baliagarriak dira tresna eta sare horiek sindikatuaren jardura ezagutarazteko. Militante-talde batek dihardu sare sozialetan lanean; horri esker, militante gehiago atzeman eta erakar dezakegu jardura sindikalera, eta, bide batez, ELAren lanaren berri ematen dugu, potentzialtasun handiko ko-munikazio-bideetan. Premiazko lana dugu, sasoi honetan, militante-talde horren lana elikatzea eta hasitako lanari jarraipena ematea.

Konfederazioaren argitalpenei dagokienez (Landeia, Astekaria, Newsletter), aztertu egin behar da haien egitura (diseinua barne), egokiro bete ditzaten gure militante eta afiliatuen informazio- eta gogoeta-premiak. Material horiek bide digitalez argitaratzea ere lagungarri izango zaigu, berehala eta azkar plazaratuko baititugu edukiak. Nolanahi dela ere, sailaren lehentasuna izaten jarraitu behar du gure argitalpenen kalitatearen hobekuntzak. Piskanaka, afiliatuei proposatuko zaie hainbat material euskarri informatiko bidez bidaltzeko aukera, ingurumenaren hobe beharrez eta konfederazioari aurrezteko aukera ematearren.

Nabarmen igo da federazio eta eskualdeen argitalpen-kopurua, eta ELAren marka-irudia homogeneizatzeko ahalegina egin da, oraindik ere asko dagoen arren egiteko. Gutxieneko kalitate-maila behar dute argitalpen horiek, informazioa zorrotz tratatzea, euskara zaintzea... Horregatik, sindikatuko egituren eta sailaren artean aztertu eta alderatu behar ditugu argitalpen horien edizio-irizpideak. Beraz, sailak gehiago lagundu behar die federazioei eta eskualdeei propaganda behar bezala argitaratzen (idazketa, estiloa, marka...).

8. Gazteak

Gazteen egoera laborala oso txarra zen lehendik ere, 30 urtez neoliberalismoa jasan ondoren, baina dramatiko ari da bihurtzen egungo krisiarekin, eta jasanezinak dira langabezia-tasak. Gaur egun, gazteek ezin dute bizi-proiektu autonomorik garatu, berandu, gaizki eta jarraipenik gabe sartzten baitira lan-merkatura.

Areagotu egin behar ditugu, negoziazio kolektiboan, diskriminaziozko jokabideen aurkako ahaleginak eta enplegua sortzen duten neurrien alde, hala nola soldata eta enplegu baldintza duinetan egindako lanaldi murrizketa.

Gazteen arazoak austeritate-politiken aurkako mobilizazio eta aldarrikapenetara ere eraman behar ditugu. Baliagarri izan daiteke, horretarako, gazte- eta gizarte-erakundeekin lanean jarraitzea, eta sare sozialetan jardutea. Gazteen sailak areagotu egin behar ditu, beraz, horretarako ahaleginak.

Halaber, ikastetxeetara jo behar dugu gazteekin klase-kontzientzia lantzeko. Topatuko duten errealitate laborala ezagutzeko hezten baditugu, ikuspuntu sindikaletik gizarte prestatuago bati emango diogu bide, agintzen duten botereek ezartzen duten errealitatearen ikusmolde desberdin batekin.

9. Langabeak

Krisialdi honetan, dramatiko ari da langabeziaren maila, eta baliteke gehiago igotzea ere, austeritate-politikak direla eta. Baina langabeziaren arazo ez da tasa estatistiko bat, benetako drama bat baizik, batez ere gazteen eta 50 urtetik gorako kolektiboari dagokionez, oso zaila gertatuko baitzaie lehenengoz lanean hastea edo berriro lana aurkitzea. Drama hau gatazka sozial bilakatu behar da.

Honi gehitu behar zaio langabeen ohiko estigmatizazioa, langabezia urte askotan maila apaletan egon delako. Horrek eragin du lanik gabe dagoen pertsonak errua

bere buruari egoztea, bere egoera banakako drama bihurtzea eta arazo kolektiboa denik ukatzea. ELAk kolektibizazioan saiatu behar du: langabezia ez da soilik langabeen auzia. ELArentzat langabezia arazo sindikal eta sozial propioa da, eta horrek eragin behar du langabeak ELA bere sindikatu legez ikustea.

Sindikatuako afiliatu eta militante asko geratu da lanik gabe, eta egoera horretan dauden langileak antolatu egin behar ditugu. Horregatik sortu dugu, kongresu honetan, konfederazioaren lan-arlo berri hau. Beronekin, haien erreibindikazioak bideratzen jarraitzeaz gainera, gureak baitira, langabeen inplikazioa eta mobilizazioa bultzatu behar dugu.

Prozesuari ekiteko kolektibo hau sindikatuaren jardueran inplikatzeko bultzako dugu, eskualde mailan mobilizazio propioak sustatuz. Saiatuko gara kolektibo honek sindikatuak deitutako mobilizazioetan parte hartzeko modua bilatzen, baita langabeen beste kolektiboen mobilizazio dinamiketan ere.

10. Nazioarteko arloa

Ez dago zalantzarik Europan langile-klasea atzera egiten ari dela, eta ematen ari den erantzun sindikalak ez du prozesu hori geldiarazterik lortu. Europako sindikalismoan gehienek oraindik uste osoa dute tresna jakin batzutan (elkarrizketa soziala), zeinak gaurkoaren antzik ez duen indar-erlazioa zegoenean garatu baitziren. Horregatik, ELAk Euskal Herrian egiten duen azterketa bera eramaten du europar esparrura: egungo desoreka egoeran, sindikalismoak eman behar duen lehen pausoa, ezinbestekoa, ezartzen ari diren politikei aurre egiten dien bitartean, bere burua indartzea da, hobeto kokatu ahal dadin. Hori uste izanik, ELAk aurrerantzean ere bitartekoak, gogoeta eta mobilizatzeko ahalegina ipiniko ditu erantzun sindikal indartsua, borrokalaria eraikitze aldera, esparru guztietan (gurean, Europan zein mundu mailan) langileen eskubide sozial eta laboralak defenditzeko.

Aparteko garrantzia du ELArentzat nazioarteko jarduerak, bai beste sindikatu batzuekiko harremanak, bai nazioarteko erakunde eta dinamiketan dugun partaidetzak. Hurrengo urteotan, sakondu egin behar ditugu bi alderdiak: sendotu egin behar ditugu mundu osoko sindikatuakiko harremanak, eta ekarpenak egin behar ditugu partaide gaituzten erakundeetan, benetako nazioarteko estrategia sindikal bat eratzeko bidean.

Halaber, datozen urteetan ahalegina egingo dugu errealtate sindikal berrietara hurbiltzeko; ezaguna dugu lehenago ere elkarrizketa sozialaren alde egin duen sindikalismo eredu, elkarrizketa soziala ezgauza izan arren klase xeheek jasaten dituzten arazoei erantzun tinko bat emateko. Beste eredu sindikal berri hauek, aldiz, konfrontazioaren eta mobilizazioaren bidea hautatu dute, eta jende askoren haserrea bideratzen asmatu dute, estatu zein nazioarteko mailan.

Halaber, saiatu gara, kongresu arteko garaian, alor sindikaletik kanpora ere aliantzak egiten, eta Foro Sozialetan hartu dugu parte, adibidez; orain, berriz, Joint Social Conference eta Alter Summit ekimenetan dihardugu..

Nazioarteko lana sindikatu barruan gehiago zabaltea da gure asmoetako bat. Horregatik, koordinatu egin behar ditugu Konfederazioaren eta ELAko federazioen

nazioarteko jarduerak. Konfederazioaren nazioarteko estrategian, federazioek (Europako eta mundu osoko federazio profesionaletako partaideak) beren dinamika propioa dute, bai nazioarteko erakunde horietan duten partaidetzagatik, bai euren harremanengatik. Koordinazioa hobetuta, bitartekoak optimizatu, lana planifikatu eta lehentasunak ezarriko ditugu. Federazioaren lehentasunetako bat ez dela jakinik ere, lan-plan bat eta dinamika bat izan behar du federazio bakoitzak, testuingurua edozein delarik ere. Beraz, proposatzen dugu nazioarteko sailak ezartzea federazio bakoitzaren nazioarteko jardueraren irizpideak eta koordinazioa, eta berariazko plan bat egitea federazio bakoitzerako. Sail eta bulego bakoitzak ere badu bere nazioarteko adarra, eta haietako arduradunek parte hartzen dute zenbait erakundeetan (ESK, NSK, TUAC...) dagozkien lan-taldeetan. Partaidetza hori koordinatzea eta sistematizatzea, eta partaidetza hori beste sindikatu eta erakunde batzuetan jarduera interesgarriak atzemateko baliatzea dugu helburu bolada honetarako.

Bestalde, azterketa-bulegoarekiko koordinazioa hobetuta, harago jo dezakegu nazioarteko egoeraren azterketan, eta nagusi deritzegun gaiak (Europakoak zein mundu osokoak) sakonago azter ditzakegu.

Era berean, hobetu egin behar dugu nazioarteko jarduerari buruzko informazio-eskaintza, bai ELAko webgunearen bidez, bai sistematikoki idatziz jasoz alor horretako jarduerak. Sailari ez ezik, federazio profesionalei, azterketa-bulegoei eta gainerako sailei ere badagokie zeregin hori.

11. Ingurumena

Geroz eta gehiago ohartzen gara ingurumen-arazoak gure agendara ekarri behar ditugula. Jasanezina da egungo ekonomia-eredua, eta horrek erantzukizun bat dakarkigu, sindikatu garen aldetik, enpresetan jarduten baikara.

Izan ere, enpresen eta langileen interesak ez datoz bat ingurumenari dagokionez ere. Ingurumen-arlotik, beraz, gai horrekiko barne-sentsibilizazioa bultzatu behar dugu, gure aldarrikapen-agendara eraman dezagun lantokietan. Horretarako, gai horri buruzko barne-trebakuntza sustatu behar dugu, federazioekin eta eskualdeekin elkarlanean.

Azkenik, gizarte-eredu alternatibo baten aldarrikapena dela eta, hainbat borrokatu jardun du ELA azken urteotan; besteak beste, AHTren, Pasaiaiko portuaren, erraustegien eta fracking-aren aurkakoetan, eta Garoña ixtearen aldekoetan. Halaber, energia berriztagarrietan oinarritutako eredu energetiko bat aldarrikatu dugu; hondakin gutxiago sortzea, eta sortzen direnak berrerabiltzea eta birziklatzea; garraio-eredu jasangarri bat ere aldarrikatu dugu, baita elikadura-burujabetza eta banaketa- eta kontsumo-eredu arduratsuagoa ere. Klima-aldaketaren aurka ere jardun gara. Horren adibide dugu ELAko kontsumoari buruzko taldea martxan jarri izana. Gizarte-arazo horiek jorratzen jarraituko dugu, beste erakunde sozial batzuekin elkarlanean.

Halaber, ingurumen arlotik aliantza sozialetan sakontzeko lan egin dugu, erakunde ekologista eta ingurumenekoekin, tokiko zein nazioarteko mailakoak direla ere. Kopenhage, Cancun, edo Herrien Goi-bileran izandako parte hartzeari esker, zenbait

esperientzia interesgarri ezagutu dugu, eta gure burua ezagutarazteko aukera ere eman digu.

EBAZPENAK

XIII. KONGRESU KONFEDERALA

1

JUSTIZIA SOZIALAREN ETA BURUJABETZAREN ALDE INDARRAK METATUKO DITUEN PROZESU SINDIKALAREN ALDE

XIII. Kongresu Konfederalaren atarian, Europaren baitan independentziaren aldeko bi mugimendu indartsu sortzea, Kataluniakoa eta Eskoziakoa, alegia, pozgarria eta pizgarria da, aldi berean. Bi nazio horietan gertatzen ari denak berretsi egiten du gure apustua: nazio bat eraikitzeko ahaleginaren gaurkotasuna eta egokitasuna, hain zuzen ere. Gure nortasun-ikurrak bizirautearen aldeko borroka irmoan adorea ematen digu, eta sendotu egiten du gure herriaren etorkizuna garapenaren eta askatasunaren bidean eraikitzeko borondatea. Bi eredu horiek eta beste askok garbi erakusten dute XXI. mendean ere herriak ez daudela kondenatuta iraganeko menderakuntzak betiereko gisa onartzera, eta beste bide batzuetan barna abia daitezkeela, beti ere modu demokratikoan eta baketsuan.

Estatuko egoera berezia da uneotan. Ikerketa Soziologikoen Zentroak eginiko inkestaren eta beste galdeketa batzuen arabera, gero eta handiagoa da Espainiako erakundeekiko gaitzuste eta, aitzitik, gero eta handiagoa euskal herritarrek eta katalanek beren herriaren burujabetzaren alde agertzen duten atxikimendua. Herriaren bi adierazpen horiek garbi eta aratz islatzen dute Espainiako trantsizio politikoaren porrota. “Kafea guztiontzako” lelo uniformizatzaillearen pean, estatuaren batasun banaezina ezarri nahi izan zuten goitik, modu horretara auzi nazionalak isilarazteko, baina asmoak erreka jo du, esan bezala. Administrazioa deszentralizatzeari ekin zioten, zertarako eta Euskal Herriko eta Kataluniako berezitasuna lausotzeko eta iraultzaileak lasaitzeko, baina neurri horren porrota ere begien bistakoa da.

Joera hori areagotu egin da gaur egungo krisi sistemikoaren garai honetan; izan ere, Espainiako gobernuaren egiturazko doikuntza-politikoak uniformizatzeko baliatzen ari da krisia. Ikusi besterik ez dago gainbehera antisozial horretarako eraiki duten babes-horma gotorra: Konstituzioaren erreforma, Aurrekontuen Egonkortasunerako Legea, oinarritzko legegintzaren neurritz gaineko erabilera –administrazio guztietan derrigorrez ezarri beharrekoa–, jakinik, gainera, ondoren afera horiek ebatziko dituen, Auzitegi Konstituzionala alegia, Espainiako gobernuaren zerbitzura dagoen organo politikoa dela. Hego Euskal Herriko erakundeek ere neurri murriztaile horiek berak ezartzen dituzte, eta ez dituzte autogobernurako tresnak baliatzen pairatzen ari garen larrialdi sozialeko egoera honi modu bidezkoan eta solidarioan erantzuteko. Kontuak kontu, Espainiako oldarraldi zentralistaren agenda gero eta zabalagoa da, eta horren adierazle kezagarriak izan ditugu berriki: Wert ministroaren hezkuntza-erreforma edota Kutxabanken gaineko kontrol instituzionala behin betiko galdu izana, hain zuzen. Eskozian, Erresuma Batuko gobernuak onartu egiten du Eskoziako

herriak eskubidea duela erabakitzeko etorkizunean estatu burujabe izan nahi duen ala ez. Tokitan dago, beraz, Erresuma Batuaren jarrera eta borondatea, PPren eta PSOEn jokabide itxiaren aldean.

Espainiako gobernuaren atzeranzko jarrera horrek elkartzera akuitatu beharko lituzke indar abertzaleak, diagnostikoak eta proposamenak elkarbanatzera. Alabaina, gaur egun, alderdietako eta erakundeetako eliteak ez daude, ezta gutxiago ere, elkarlanerako beharrezkoak diren gutxieneko horiek bilatzeko; ezta autogobernua areagotzeko ere, eta, arte gutxiago, politika neoliberalen joera aldatzeko. Jeltzaleek, zehazki, autogobernuaren eztabaida berritzeko asmoa dute itxura batean, baina eztabaida horren oinarrian ez dute hartzen ezta 2005ean Eusko Legebiltzarrak estatutuak berritzeko eginiko proposamena ere. EAJren iritziz, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoaren estatus politikoaren aldaketa orok Estatuako bi indar politiko nagusietako baten babesa behar du. Horrek, bistan da, aldaketa ororen aurkako betoa onartzea dakar. Aldi berean, EAJk ez du ezkututzen gastu publikoa murrizteko eta sektore publikoa “argaltzeko” asmoa duenik. Agenda neoliberal bete-betekoak ezartzeko asmoa, finean.

ELAren iritziz bide horiek agortuta daude: ez dago aldaketa politikorako aukerarik ez PPrekin ez eta PSOekin ere, Katalunian eta Euskal Herrian argi eta garbi ikusi denez. Estatu-arrazoiaren eta joera antisozialaren noranzko horretan, ibilbide ezin koherenteagoa egin dute bi alderdiok Espainiako trantsizio politikoaz geroztik. Estatu-arrazoi horren erakusle, itun antiterrorista esaten dioten horri eutsi egiten diote kosta ahala kosta bi alderdi horiek, eta, bide berean, Hego Euskal Herrian eskutik joan dira duela gutxira arte PP-PSE eta UPN-PSN. Aldi berean, abertzaleek beraiek ere, gehiengo duten hainbat erakundetan, uko egiten diote gehiengo hori erabiltzeari, uko pauso batzuk aurrera emateari, eta horrek adierazten du borondatea falta dutela eraikuntza nazionalari begira norgehiagoka demokratikoan urratsak emateko. Zoritxarrez, erakundeetan eserlekua lortu eta gobernatzeko aukera izan duten alderdien jardun politikoa beste bide batzuetara lerratu da: interes ekonomiko eta patronalaren interesekin klaseko aliantzak egitera, hain justu.

Horrez gain, ELAren kezka da eremu abertzalean hegemonia lortzeko alderdien borrokak eta hauteskundeetako norgehiagokak gain hartuko ote dion lankidetzaren txikienerako aukera eta hipotesi orori. Eta, era berean, kezkatzekoa iruditzen zaigu hamarkada oso bat legez kanpo izan den espazio politikoaren inguruan osatutako hauteskunde-aliantzak itxura batean hartu duen jira ere, gobernuko ardurak hartu berri dituen honetan, ematen baitu erakundeen esparru horretan homologazioa bilatzea duela xede eta, horri loturik, alternatibak apaltzeko joera hartu duela.

Muga eta sasi guztien gainetik, ELAren iritziz sindikatu abertzaleek bilgune funtsezkoa osatzen dute indarrak metatzeko, burujabetza eta justizia soziala lortzeko bidean mugarriak ezartzeko, eta hala, indar abertzaleok eskutik, ziklo berri bati ekiteko. Besteak gutxietsi gabe, uste dugu esparru sindikalean gorpuzten dela modurik irmoenean borondate hori. Horrela berresten eta bermatzen du sindikatu abertzaleok lan munduan dugun afiliazio eta ezarpen nabarmenak eta Espainiako sindikatuen aldean dugun ordezkartza zabalak.

Baina sindikatu abertzaleen ahalmen horri bide emango bazaio, bere burua politika transformatzailetzat aldarrikatzen duen horrek azken ondorioetara arte onartu behar du mugimendu sindikal eta soziala bestelako eskakizunei men egin gabe eraiki behar dela. Hori da ELAren iritzia. Sindikalismoa eta gainerako gizarte-mugimenduak

politikaren mende ez jartzea, erabat burujabe izatea, ameskeria sozial eta politiko izatetik harago, abiapuntu ezinbestekoa da ELArentzat, helburu nazionalak eta klasekoak lortzeko ahalegin horretan aliantza eraginkorrak lortu ahal izateko.

Autonomia hori, berriro diogu, ez da apeta hutsa; aitzitik, aldi berean oinarri eta helburu funtsezkoa da. Batetik, mobilizazio sozialaren bidez klase politikoa eta erakundeak gainditzeko eta arrastan eramateko. Izan ere, Kataluniako eta Euskal Herriko azken urteotako historiak erakutsi du, legebiltzarrak, beharrezkoak izan arren, ez direla nahikoa beraiek bakarrik aldaketa politiko eta soziala eragiteko. Kataluniakoa, gainera, adibide bikaina da jabetzeko gizartearen bultzadak nola behar dezakeen elite politikoa aurreikuspenetan ez zeukan burujabetzaren gaia halabeharrez jorratzera. Eta bestetik, burujabetzaren aldarria gizartean areago sustraitzeko. Izan ere, uste dugu premiazkoa dela aldarri hori gizartean gaur egun baino gehiago zabaltzea. Eta, alde horretatik, burujabetzaren aldeko apustu hori herritarren artean gehiago sustraituko bada, eduki sozialei loturiko prozesu bat abiarazi behar dela uste dugu, are gehiago gaur egungo krisi testuinguruan.

Uste dugu, beraz, kontrabotereko sindikalismo abertzaleak, gainerako gizarte-mugimenduekin elkarturik, egiazko bilgune hegemonikoa osa dezakeela aldaketa politiko eta soziala lortzeko ahalegin horretan. Hori bai, sindikalismo horrek lan-munduan duen legimitateari eutsiko badio, politika neoliberalen aurkako kritika egin behar du modu koherentean, politika horiek edonoren eskutik datozela ere. Gainerakoan, jai du. Era berean, uste dugu, hauteskundeetako aritmetikak gorabehera, aukera dagoela erakundeetako boterearen euskarri horiek baliatzeko eta agintetik pedagogia progresista egiteko, bai eta egiazko aldaketa kulturalak eta sozialak bideratzeko ere. Horrela egin daiteke, esaterako, fiskalitatearen arloan. Bi dinamika horiek, boterearen kontrakoak eta boteretik bertatik bideratutakoak, bakoitzak bere aldetik baina elkarren berri izanez, benetako aldaketa sozial eta politikoak ekar ditzakete epe ertainera eta luzera. Baina aldaketa horiek ez dira iritsiko baldin eta botereak ez baditu ulertzen sindikatuen eta gizarte-mugimenduen eskutik jasotako eskabide eta aldarriak.

Alde horretatik, eta epe motzenera begira, ELAk uste du ezartzen ari diren politiken gordintasuna eta horien ondorio larriak nolabait baliatu egin behar direla burujabetza erabiliz justizia sozialerantz bide egiteko. Eta doikuntza-politiken inposizio antidemokratiko horren testuinguruan, ELAren iritziz bide bakarra dago burujabetzaren eta justizia sozialaren bidean urratsak emateko: desobediencia eta norgehiagoka demokratikoa.

Hori guztia aintzat harturik, XIII. Kongresu Konfederalak ebatzi du:

1. Euskal erakundeei premiaz eskatzea planto egin dezatela eta ez ditzatela obeditu Espainiako gobernua eskubideak murrizteko eta gizartea babesik gabe uzteko ezartzen dituen jarraibideak eta dekretuak. Uste dugu desobediencia burujabetzaren aldeko apustua dela, eta apustu hori, modu erabilgarrian, bat datorrela gizartearen gehiengoaren beharrez eta nahiekin.
2. Sindikalismo abertzaleari dei egitea eta, horrenbestez, geure buruari, sakon eztabaidatzera, asmo handiagoko estrategiak eskuratzeko negoziazio kolektiboari begira, politika publikoei begira eta demokraziarekin eta lan-harremanen euskal esparruarekin eta burujabetza nazionalarekin zerikusia duten gaiei begira.

3. Agintean bat edo beste egon, erakundeek bultzatutako politika neoliberalari eginiko kritikak ez inolaz ere isilaraztea eta lausotzea. Hau da, orain arte egin izan dugun moduan, bide horri irmo jarraitzea.

2

BIDEGABEKO ZORRA ORDAINTZEARI UKO. EZ DA BIDEZKOA ORDAINTZEA, ETA EZ DUGU ORDAINDUKO

Demokrazia zor zaigu, baina zorpeko sasi-demokrazian bizi gara. Deudokrazian. Zor publikoa menderakuntza politikorako tresna bihurtu da, murrizketa ezin bortitzagoen politikak arrazoitzeko eta aberastasunaren banaketa are bidegabeagoa ezartzeko.

Zorpeko sasi-demokrazia horren funtsa da zor publiko handia sortzea (zor pribatua zor publiko bihurturik), krisia eragin dutenak hartzekodun bihurtzea, eta zorraren ordainketa beste guztiaren gainetik lehenestea. Horren eraginez izugarri murrizten da gizarte-gastua, batez ere osasun arlora, hezkuntzara, gizarte-prestazioetara, gizarte-zerbitzuetara, etab. bideratutakoa, eta, ondorioz, nabarmen okertzen da zerbitzu publikoen kalitatea. Herritarrei eta gizartean zigortuen dauden sektoreei (langabetuak, pentsiodunak, emakumeak, etorkinak...) egiten die eraso estrategia horrek, eta, aitzitik, kapitalari egiten dio mesede.

Uste orokorra da zorrak, edozein jatorri dutela ere, ordaindu beharrekoak direla. Alabaina, beharrezkoa da zor hori sorrarazi duten arrazoiak aztertzea. Nazioarteko zuzenbideak eta jardunak jasotakoaren arabera, gobernuen zorra legez kontrakoa izango da, baldin eta pertsonen duintasunari eraso egiten dioten edota herrien arteko bizikidetzak baketsua arriskuan jartzen duten maileguetatik badator. Zor ez-legitimoak dira erabaki bidegabeetan oinarritutakoak, interes orokorrek bat ez datozen erabakietan, herritarren bizkar hartutako erabakietan. Beraz, alderdi horiek guztiak aintzat hartuta, arrazoizkoa eta zilegi litzateke zor horiek ez ordaintzea.

Erakundeek, hala Espainiakoek nola Hego Euskal Herrikoek, gero eta zor publiko handiagoa pilatu dute azken urteotan. Hauek dira zorraren hazkunde horren arrazoiak:

- Bankuen erreskateak. Espainiako gobernua, baita Europar Batasuneko beste zenbait herrialdeetako gobernuak ere (hala nola, Irlanda, Grezia, Alemania edo Portugalgoa) hainbat mila milioi euro bideratzen ari dira bankuetara. Espainiakoak, zehazki, 216.000 milioi euro (BPGd-aren %21) bideratu ditu finantza-erakundeetara hainbat bidetatik, 2012ko azarora arte. Euskal erakundeek diru horren ehuneko handi bat finantzatzen dute EAeko Kupoaren eta Nafarroako Ekarpeneren bidez: EAek, zenbatekoaren %6,24 (13.478 milioi euro), eta Nafarroak, %1,6 (3.456 milioi). Urte osoko aurrekontuaren pareko zifrak dira horiek. Diru horren zati handi bat ezin izango da berreskuratu.

- Zerga-politika bidegabea ezarri izana. Diru-bilketak behera egin du eta, horren ondorioz, handitu egin da zorra. Hego Euskal Herriko lau ogasunetan izugarri jaitsi dira diru-sarrerak, eta horren arrazoi bakarra ez da krisia, zerga-arloko politika baizik. Presio fiskala nabarmen murriztu da, Europako beste zenbait lekutan ez bezala, iruzur fiskalaren eta azken urteotan zerga-arloan onartutako erreformen ondorioz, eta horrek ekarri du errenta altuei eta kapitalari ezarritako zergak murriztea.
- Diru kopuru izugarriak bideratu dira azpiegitura eztabaidagarriak finantzatzera, hala nola Abiadura Handiko Trena, Supersur, Bidegi (Gipuzkoako autopistak), Los Arcoseko lasterketen zirkuitua, etab.
- Gobernuen ukoa Europako Banku Zentralak (EBZ) interes-tasa baxuan finantza ditzan erakundeak. EBZk %1eko interes-tasan mailegatu die dirua banku pribatuei eta banku horiek diru hori bera erabili dute gobernuari %5ean edo gehiagoan mailegatzeko, besteak beste Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari.

ELAren XIII. Kongresuak berretsi du, beraz, zor publikoaren hazkundeak ez duela batere zerikusirik gastu sozialaren hazkudearekin. Zor hori nondik datorren kontuan hartuta, okertzeko beldurrik gabe esan dezakegu zor bidegabea eta ez-legitimoa dela neurri handi batean.

Kongresuaren iritziz, beharrezkoa da herritarren aldetik zor publikoari buruzko auditoriak egitea. Zorren auditoria zor horien jatorria aztertzeo prozesua da: zergatik sortu ziren, zertarako balio izan zuten, nori egin zien mesede, zenbateraino izan ziren gardenak, irregulartasunik izan zen ala ez, etab. Auditorien helburua da zehaztea egindako zorraren zer parte den legitimoa eta zer parte ez, ondoren zati ez-legitimo hori ez ordaintzeko. Ez da eliteen prozesu bat; aitzitik, beharrezkoa da gizarteak ahalik eta gehien parte hartzea (herritarrek baina baita pertsona adituek ere), eta beharrezkoa da, orobat, gobernuak laguntzea, garden jokatuz eta auditoria gauzatzeko beharrezkoa den informazioa eta dokumentazioa emanez. Gai politikoak modu demokratikoan kontrolatzeko modua da.

Zor ez-legitimoa ez ordaintzea ez da ameskeria. XXI. mendean baditugu esperientziak, hala nola Argentinakoa, 2001ean, Ekuadorkoa, 2007an, edo Islandiakoa, 2011n. Badago aukera merkatuen eta botere ekonomiko eta finantzarioaren diktadurari aurre egiteko, eta sistema kapitalistaren gaur egungo krisia eragin duten horien diru-gosearen gainetik guztion ondasuna lehenesteko.

Aldi berean, zorraren auditoriak eta zati ez-legitimoa ez ordaintzeak bide ematen dute gaur egungo eredu ekonomikoa sustraitik ezbaian jartzeko. Ordea, ez da aski legitimoa ez den zorra ordaintzeari uko egitea. Beharrezkoa da gaur egungo eredu ekonomikoa errotik aldatzea; izan ere, gainerakoan, berriro ere zorra sortuko da botere ekonomiko eta finantzarioen zerbitzura, eta larriagotu egingo dira ekonomia, gizarte eta ingurumen arloko bidegabekeriak. Neurri zorrotzak behar dira: goitik beherako erreforma fiskala, azken hamarkadetan zerga-arloan egin den politika atzeraraziko duena; finantza-sektorearen erregulazio sendoa, espekulazioa eta paradisu fiskalak galaraziz; banku publikoa; soldata murrizketarik gabe lanaldia murriztea eta hori konpentsatzeko enplegua sortzea; ondo bizitzea bai, baina gaur egungo hazkunde-eredu erabat eutsiezina gaindituz.

ELAren XIII. Kongresuak ebatzi du:

- Erakundearen konpromisoa herritarren aldetik zorraren auditoria-prozesuak bultzatzeko eta gizarteratzeko, prozesu horietan gizartearen parte-hartze zabala sustatuz, eta zorraren zati ez-legitimoa ez ordaintzea exijituz. Alde horretatik, datozen hilabeteetan gai horri buruzko sentsibilizazio-kanpaina egingo du ELAk, langile guztiei, eta oro har, gizarte osoari bideratua. Horrez gainera, prestakuntza arloan lan zehatza egingo dugu gure militanteen artean.
- Mobilizazio sozialeko prozesuak bultzatzeko beharra, administrazio guztiei exijitzeko behar den informazioa eman dezatela eta zorraren zati ez-legitimoa ez ordaintzeko konpromisoa har dezatela. Gutxien-gutxienez Eusko Jaurlaritzara, Nafarroako Gobernura eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietara eraman behar dugu eskakizun hori.
- Ekimen horiek gauzatzeko beharrezkoak diren gizarte-aliantzak sortzea eta ehuntzea.

3

ETXEBIZITZA DUINA IZATEKO ESKUBIDEA, URRATUTAKO GIZA ESKUBIDEA

ELaren XIII. Kongresuak kezka larria adierazi nahi du milaka eta milaka pertsonak etxebizitza izateko eskubidea urraturik dutelako.

Etzegabetutako pertsona eta familien egoera da horren adibide. Hego Euskal Herrian 8.000 etzegabetze baino gehiago izan dira 2008. urteaz geroztik. Etxerik gabe geratutako jendearen egoera etsigarria da. Kasu gehienetan, etxebizitza galtzeaz gain, bankuarekin zor handia izaten jarraitzen dute, eta horri gehitu behar zaio finantza-erakundeek ez ordaintzeagatik ezartzen dituzten interes altuak eta muturreko baldintzak.

Etxebizitzaren arazoa errealitate hori baino askoz larriagoa da, ordea:

- Euskal Herrian 100.000 pertsonatik gora daude independizatu nahian eta ezinean, horretarako nahikoa baliabide ekonomiko ez daukatelako. Gazteak dira gehienak, bizitza-proiektua baldintzaturik duten gazteak, langabezia daudelako, lan oso prekarioa dutelako edota etxebizitza alokatzeko edo erosteko prezioak oso garestiak direlako.
- Pertsona askok, hipoteka dutenek edo alokairuan bizi direnek, arazo larriak dituzte hileroko ordainketei aurre egiteko. Finantza-erakundeek pagotxa egin dute hipotekarekin, hileroko ordainketei bestelako produktuak gehitu baitizkiete: bizitza-aseguruak, BGAEtara eginiko ekarpenak edo pentsio-planak, esaterako.
- Hego Euskal Herriko etxebizitzen %5,8 (70.000tik gora) hutsik dago.

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, Foru Aldundiak eta Udalek, erakunde guztiek egindako etxebizitza-politiken oinarria izan da etxebizitza berrien eraikuntza bultzatzea, jabegoa sustatzea eta espekulazioaren bidez etxebizitzen prezioa garestitzea. Modu horretara, jendearen beharrezanarekin negozioa egin dutenei egin diete mesede, hala finantza-erakundeei nola higiezinaren sustatzaileei.

Etxebizitzari buruz NBEko Berriemaile Bereziak eginiko Txostenean salatzen den ildoari jarraitu diote politika horiek: "Etxebizitza-politikak, gero eta gehiago, etxebizitza finantzatzeko sistemetara mugatu dira... Etxebizitzen finantzazioa, orobat, munduko finantza-merkatuen ardatz nagusietakoa bihurtu da... Erabateko aldaketa gertatu da Estatuaren eginkizunean: etxebizitzak prezio eskuragarrian eskaintzetik higiezinaren eta finantza-erakundearen merkaturak erraztasun guztiak ematera igaro dira gobernuak... Eta finantza-alderdiak nabarmentze horren eraginez, aktibotzat eta

oinarrizko produktutzat hartu da etxebizitza, soilik merkatuko indarrek banatutako aktibotzat.”

Egoera horren aurrean, ELAren XIII. Kongresuak ebatzi du:

1. Nafarroako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundiei eta Udalei exijitzea erabat alda dezatela etxebizitza-politika, oinarri hauek ardatz harturik:
 - Pertsona guztiek alokairuko etxebizitza duina izateko duten eskubidea aitortzea. Pertsonak aukera izan behar dute administrazioari eskubide hori modu eraginkorrean eskatzeko.
 - Alokairu sozialeko etxebizitzaren parke publikoa sortzea, pertsona guztiek etxebizitza izateko duten eskubidea bete ahal izateko.
 - Etxebizitza hutsen gain esku hartzea. Etxebizitza horiek gizartearen beharretara bideratzen lagunduko duten neurriak bultzatu eta sustatu behar dira. Finantza-erakundeak derrigortu egin behar dira espekulazioaren bidez eta etxegabetzeen bidez eskuratu eta pilatu dituzten etxebizitzak alokairu sozialean jartzera.
 - Etxegabetzei ez. Inor ezin da bere ohiko etxebizitzatik kanporatu baliabide ekonomikoak falta dituela-eta hipoteka edo alokairua ezin dituelako ordaindu.
 - Ordainean ematea. Hipoteka ordaindu ezin dutenek aukera izan behar dute etxebizitza bera ordainean emanda zorra kitatzeko, gerorako zorrik utzi gabe, eta etxebizitza horretan jarraitzeko alokairu sozialaren truke.
 - Etxebizitzaren arloan inbertsio publikoa handitzea. Aipatutako irizpideetan oinarritutako etxebizitza-politikara bideratutako partidak nabarmen handitu behar dira aurrekontuetan, etxebizitza erosteagatik zerga-arloan ezartzen diren kenkarien ordean gastu publikoa lehenetsiz.
2. ELAK lan egiten duen esparruetan eta eremuetan etxebizitza duina izateko eskubidearen aldeko eta etxegabetzeen eta gizarte-murrizketen aurkako kanpainak eta mobilizazioak bultzatzea, 2012ko azaroan Barakaldon, Bilbon edota Iruñean gauzatutako manifestazioen ildo berean.

4

AFEKTU- ETA SEXU-ANIZTASUNA BERMATZEA ERE SINDIKATUON ZEREGINA DA

Sistema kapitalista menderakuntzan oinarritutako sistema da. Hala, beste zenbait menderakuntza biltzen ditu bere baitan, are baita sustatu ere, bere interesen arabera. Menderakuntza hori bortxaren bidez gauzatzen da eta arau bihurtzen dira bizitzaren esparru guztietan nagusi diren jokabide uniforme eta uniformizataileak (lanean, kontsumoan, aisialdian, kulturean...), baita sexuaren eremuan gertatzen direnak ere. Hala, heterosexualitatea bihurtzen da bizitzari begiratzeko prisma nagusia, eta isilpean uzten dira eta, areago, jazarri egiten dira beste sexu-aukera batzuk, hala nola homosexualitatea, lesbianismoa, transexualitatea eta bisexualitatea. Horren ondorioz, LGTB kolektiboen (lesbiana, gay, transexual eta bisexualak) borroka eta aldarriak eremu pribatura edo nork bere aldetik egindako borroketara mugaturik geratzen dira, eta jakina da eremu pribatua norbanakoen eta isiltasunaren sinonimo dela, alde publiko eta agerikoaren nagusitasunaren aurrean.

LGTB pertsonetik fobia gizarteko eta ekonomiako egitura guztietara hedatzen da, eta lan-mundua ez da salbuespena. Nahiz eta legeak erabat debekatzen duen sexu-aukera edo genero-identitate arrazoiengatik lanean inor baztertzea, errealitatea bestelakoa da; izan ere, lan-ingurunean nabarmena da heterosexualitatearen eredu nagusitik aldentzen diren sexu-aukerak ezkutarazteko joera.

Ez da erraza zehaztea LGTB kolektiboetako zenbat pertsonak dituzten zailtasunak laneratzeko edo zenbaterik dituzten lan-baldintza kaskarragoak, baina dudarik gabe, pertsona horietako askok bazterketa jasaten dute lan-munduan: zailtasunak dituzte beren sexu-aukera ageriko egiteko; eragozpen ugari gainditu behar dituzte laneratzeko eta ondoren lanean gora egiteko; askotan ez zaizkie kontratuak berritzen edo arrazoirik gabe kaleratzen dituzte; laneko jazarpena jasaten dute; beren sexu bizitza eta afektuzkoa publiko egiteak baldintzaturik uko egin behar diote laneko eskubideei...

Transexualek are zailtasun handiagoak dituzte lanean; izan ere, arazo erantsiak dituzte besteen baldintza beretan lanpostu bat lortzeko edo lanpostu bati eusteko, batez ere transexual bihurtzeko prozesuak irauten duen denboran.

Egoera horren aurrean, LGTB kolektiboen eskubideekiko konpromisoa indartu behar du ELAk, langile guztiak (jatorri, adin, genero edota sexu-aukera edo -identitatearen arabera bereizketarik egin gabe) babesteko konpromisoa duen klaseko sindikatua dela berretsi behar du, eta afektu- eta sexu-aniztasuna erabateko askatasunean garatzeko aukera emango duen gizarte-ereduaren alde dagoela erakutsi behar du.

Gaur egungo egoeran, oldarraldi neoliberalarekin batera moral aldetik aurreko joera kontserbatzaileak indartzen ari diren honetan, ELAk irmo eutsi behar dio lan-munduan eta gizartean pertsona guztiek tratatu eta aukera berdinak izateko printzipioari.

Hori guztia aintzat harturik, XIII. Kongresuak ebatzi du:

1. Gure diskurtso politiko eta sindikalean indar handiagoz aldarrikatzea LGTB kolektiboetako pertsonen eskubide berdintasunerako eskakizuna.
2. Militantzia sentsibilizatzea eta sindikatuaren barnean afektu eta sexu-aniztasunaren adierazpen guztiak normalizatzea.
3. Lantokietan homofobia, lesbofobia eta transfobia prebenitzeko eta desagerrarazteko lan egitea, sexu-aukera eta genero-identitate guztiak ageriko egitea errespetuz hartuta.
4. Sindikatuaren jardueretan eta negoziazio kolektiboan jasotzea LGTB langileen eskubide berdintasunerako eta bazterketa oro desagerrarazteko eskakizuna, baita sexu-aniztasunari buruzko klausula zehatzak gehitzea ere.

5

GIZATASUN HANDIAGOKO ESPETXE-POLITIKAREN ALDE, BAKE- ETA ADISKIDETZE-PROZESUAREN ALDE

XIII. Kongresu Konfederalaren iritziz, Espainiako eta Frantziako gobernuek euskal preso politikei ezarritako espetxe-politika bidegabea, gizatasunik gabea eta zuzenbidearen aurkakoa da.

- Sakabanaketaren eraginez, 600 preso baino gehiago daude Espainiako eta Frantziako espetxeetan banaturik, beren jaioterritik urrun mantentzea beste helbururik gabe, presoak berak, senideak eta adiskideak bidegabe zigortzeko.
- Legeak aurreikusitakoari ere entzungor egiten diote, eta gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak kartzelan atxikitzen dituzte.
- Eta jarraitzen dute, Parot dotrinaren bidez, zigorrak luzatzeko politikari eusten, nahiz eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak aho betez ebatzi politika horrek urratu egiten duela Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean jasotako legezkotasun-printzipioa eta askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea.

Espetxe-politika horren bultzada bakarra mendekua da, eta legitimazio bakarra Itun Antiterrorista, PPK eta PSOEek 2000. urtean hitzartutakoa eta Espainiako eta Frantziako sindikatuek 2001ean berretsia. Zoritxarrez, ordea, Estatuko aparatu guztiek, Frantziako gobernuak eta Espainiako erakunde, antolakunde eta komunikabide ugari bat egiten dute Itun horretan jasotako errepresiozko eta demokraziaren nahiz burujabetzaren aurkako arrazoibideekin. ETAk ekintza armatuak behin betiko utzi dituen honetan egiazta daitekeenez, Itun hark indarkeriaren arbuioa baino askoz helburu handinahiagoak zituen.

Itun horri indarrean eusteak argi adierazten du Espainiako gobernuak zer jarrera duen, zergatik egiten dion uko egungo bake-eszenatokiari; ETAk, duela urte eta erdi jada, bere aldetik borroka armatua behin betiko uzteko erabakiaren ondotik sortutako bake-prozesuari. ELAk nabarmendu egin nahi du baldintza hori: Espainiako eta Frantziako gobernuek ez dute inoiz gaur egun duten aukerarik izan izaera politikoa duen arazo hau behin betiko konpontzeko.

Kongresu Konfederalaren iritziz, gainera, espetxe-politika horrek eta bake-prozesuari heltzeko ezezko horrek ezkutuko beste bi helburu ere badituzte. Batetik, gatazkaren kontakizun alde bakarrekoa ezartzea, soilik alde bateko sufrimendua aintzat hartuko duena eta estatuaren errepresio-politika legitimatuko duena. Eta bestetik, ezker abertzaleak bide politikoaren alde eginiko hautuari txantajea egitea, trantsizio

politikoan auzi nazionalen harira ardatz izan ziren oinarritzko parametroak onar ditzan azkenean.

ELAren iritziz garaia da Itun Antiterrorista bertan behera uzteko, gatazkaren konponbiderako pedagogiari bide emateko, egian eta justizian oinarritutako adiskidetzea bultzatzeko, eta desarmearekin, presoekin eta erbesteratuekin lotura duten alderdi guztiak konpontze aldera elkarrizketa politikoa abiarazteko. Era berean, urrats eraginkorrek eman behar dira biktima guztiei aitortzea egiteko. Hori aldarrikatzen du gizartearen gehiengo zabalak gure herrian.

Hori guztia aintzat harturik, XIII. Kongresu Konfederalak ebatzi du:

1. Espainiako eta Frantziako gobernuen espetxe-politika salatzea.
2. EAeko erakundeei premia eskatzea aldarrika dezatela berehala espetxe-politika eta espetxe-erakundeen behin betiko transferentzia.
3. Urtean zehar ekintza konfederal bat egitea bestelako espetxe-politika bat aldarrikatzeko.
4. Erkidegoetako gobernuak premiatzea 1936tik hona gure herrialdean gertatu diren giza eskubideen urraketa guztien errolda zorrotza eta zehatza egitera, urraketak edonork eragindakoak direla ere. Gure irudiko ezinbesteko urratsa da errolda hori, egian, justizian, aitortzean eta berriro ez gertatzeko bermean oinarritutako bake- eta adiskidetze-prozesua bideratuko bada.
5. Euskal Herri osoan pertsona guztientzako giza eskubide guztiak aldarrikatzen dituzten ekimen plural guztietan parte hartzea.
6. Sindikatuak parte hartzen duen nazioarteko foroetan konfederazioak gai eta arazo horien gainean bultzatutako ekimen eta proposamenen berri ematea, baita 2011ko urriaren 17an Aieten egindako Nazioarteko Bake Konferentziako edukien berri ere.

6

JUSTIZIA IZATEKO ESKUBIDE UNIBERTSALAREN ALDE

Rodríguez Zapatero eta Raxoiren gobernuek onartutako lan-erreformen eta negoziazio kolektiboaren erreformen eraginez goitik behera aldatu da lan-harremanen eredu. Erreforma horiek, aurrez onartutako guztiei gehiturik, botere izugarria eman diete enpresei lan-baldintzak erabakitzeko, egoki jotzen dutenean ez aplikatzeko, bai eta langileak errazago eta merkeago kaleratzeko ere. Historian zehar lan-zuzenbidearen bokazioa beti izan da soldatapeko langileak babestea, sistema kapitalistak ezarritako lan-harremanetan katebegi ahula diren heinean. Gaur egun, ordea, lan-zuzenbidea desagertzeko zorian dago; izan ere, ikuspegi neoliberalak erabili egiten du hori ere, beste edozein tresna balitz bezala, enpresen lehiakortasunaren zerbitzura. Sektore publikoko lan-harremanak, berriz, oldarraldi beraren eragina jasaten ari dira, gobernuek eta erakundeek bere egiten baitituzte, modu akritikoan gainera, enpresa pribatuaren ikuspegia eta balioak.

Justiziaren arloan hartzen ari diren neurriak guztiz bat datoz ikuspegi horrekin. Esaterako, kode penala berrikusten ari dira, krisiaren testuinguruan egindako protestak eta haserre-adierazpenak kriminalizatu ahal izateko. Eta ildo berean moldatu dituzte Prozedura Azkartzeko neurriei buruzko Legea eta Tasa Judizialei buruzko Legea. Herritar gehienei justizia-administrazioarako atea ixtea ekarriko dute lege horiek; izan ere, soilik epaiketa-kostuak ordaintzeko beste duten eliteen interesak babesteko tresna eskusiboa bihurtuko dute justizia-administrazioa. Hemendik aurrera, diru-sarrera maila jakin bat dutenek baino ezin izango dute justizia eskuratu, eta, aldiz, egoera ahulenean daudenak lehen baino are babesgabeago geratuko dira. Hau da, lan-harremanen esparruan, beren eskubideak babesteko epaibideetara jo beste aukerarik ez duten langileak lehen baino are babesgabeago geratuko dira. Epaiketa-kostuak eta tasa judizialak ezarrita, zaildu egin nahi dute langileek epaitegietara jotzea, oztopatu egin nahi dute enplegatzailearen aurrean beren lan-eskubideak errespetatu daitezela exijitu ahal izatea, izan enplegatzaile pribatua edo publikoa.

Hauek dira justizia-administrazioa jo ahal izatea mugatuko duten neurri larrienetakoak, jada aurreikusitakoak batzuk eta iragarritakoak beste batzuk:

- Administrazioarekiko auzien arloan epaiketa-kostuak ezartzea. Neurri horren bidez, epaileak ez badu onartzen funtzionarioak jarritako erreklamazioa, administrazioaren abokatuak ordaindu beharko du funtzionarioak. Hala, administrazioaren aurkako epaiketa sinple batek, demagun norberaren eginbeharretarako baimena erreklamatzeko auzi batek, ehunka eurotako kostua eta zigorra ekar diezaiotke langileari, baldin eta epaia kontrakoa bada.

- Lan-arloko auzietan tasa judizialak ezartzea. Horren ondorioz, langileek diru kopuru jakin bat ordaindu beharko dute, zerga bat, bigarren instantzia batean helegitea jartzeko (erregutze-errekurtsoa edo kasazio-errekurtsoa).
- Era berean, Gizarte Segurantzaren eta sindikatuen onuradun diren langileen aldeko doako justizia kendu egingo dutela iragarri dute, langile horiek interes kolektiboak babesten dituzten kasuetan. Legeak orain arte onartu egiten zuen doakotasun hori, baina aurrerantzean, langileek ordaindu egin beharko dituzte tasak eta epaiketa-kostuak, lan-arloko auzietan, konkurtso-arlokoetan eta administrazioarekiko auzietan.

Erreforma horien guztien lehen helburua da jendeari atzera eginaraztea eta dirua biltzea. Aurrerantzean, epaiketetako kostuak ordaintzeko adina baliabide dutenek baino ezingo dute epaitegietara jo. Beste modu batera esanda, “nahikoa dutenek” eskuratu ahal izango dute justizia. Izan ere, tasak eta bestelako gastuak ezarrita, langileek eta pentsiodunek nekez jo ahal izango dute bide judizialera beren lan-eskubideak eta gizarte-segurantzako prestazioak erreklamatzera, oinarrizko sostengu horri puska handi bat kentzea ekar baitezake horrek. Neurri horiek guztiak, beraz, oinarrizko eskubideen aurkako eraso zuzenak dira; legearen aurreko berdintasunerako eta babes judizial eragingarrirako eskubideen aurkako erasoak, hain zuzen ere.

Bigarrenik, enplegatzaile diren neurrian, enpresa eta administrazioen gaineko kontrol judiziala saihestu nahi dute. “Permisibitate” horrek patroï pribatuen zein publikoen agintea indartzen du, eta hala, enpresek eta administrazioek nahieran eta nagusikeriaz jokatzeko lan-harremanen arloan. Are gehiago patroï horiek jakin dakitenean enplegatuek zailtasun ekonomikoak izango dituztela beren erabaki arbitrarioen aurka demanda judizialak jartzeko.

Ez dago ukatzerik krisiarekin auziak ugaritu egiten direla; izan ere, lan-eskubideen eta eskubide sozialen murrizketen ondorioz, areagotu egiten da langileen ahulezia eta babesik eza. Horren guztiaren harira, gobernuak arrazoitu du auzi judizialak bideratzeko gaur egun dagoen saturazioa eta atzerapena konponbidean jarri nahi dituela neurri horien bidez. Baina auziak bizkortzeko eta arintzeko beste neurririk ere har zezaketen: baliabide material eta tekniko gehiago jartzea, edo justizia-administrazioarako langile gehiago kontratatzea, esaterako. Espainiako gobernuak, ordea, herritar xumeei justizia-instantzietara jotzeko aukera mugatzea erabaki du. Okerrenaren aldeko hautua egin du. Azken batean, epaiketa-kostuak eta tasak ezarrita, gobernuak ez du besterik nahi: diziplina ezartzea, herritarrei atzera eginaraztea, kontrol publikoa eta soziala galaraztea eta justizia izateko eskubide unibertsala ukatzea. Eta hori guztia bazterketa eta desoreka sozialak areagotzeko beste bide bat bihurtu da.

Hori guztia aintzat harturik, XIII. Kongresu Konfederalak ebatzi du:

1. Babes judizial eragingarrirako eskubidea urratzen duten neurriak, guzti-guztiak, publikoki salatzea.
2. Jada onartutako neurriak eta onartzeko bidean direnak kentzeko exijitzea.
3. Zuzenbideak eskainitako bide guztiak agortzea neurri horiek ezartzea galarazteko.

4. Justizia-administrazioak zuzen funtziona dezan beharrezkoak diren langile eta materialak exijitzea.
5. Euskal administrazioei premiaz eskatzea azter ditzatela, ahalik eta azkarren, oinarritzko legedi horien ondorioak, eta har ditzatela neurri egokiak herritar guztiei justiziara jotzeko eskubide unibertsal eta doakoa bermatzeko.

7

GURE GIZARTEAN ZENTZU KRITIKOA BULTZATUKO DUTEN KOMUNIKABIDE PUBLIKOEN ALDE

Komunikabideek berebiziko eginkizuna dute gizarte demokratikoetan. Beraiek aukeratzen dute informazioa, erabakitzen dute zeri eman garrantzia eta zeri ez, gertakariak ageriko egiten dituzte edo ezkutatu egiten dituzte, eta posizio ideologiko jakinak ahots gora zabaltzen dituzte eta beste zenbait isilarazi. Hau da, neurritz gain baldintzatzen dute gizartean gertatzen denari buruzko pertzepzioa.

Garrantzitsua da aztertzea botereak zer-nolako kontrola eragiten duen horien gain. Nork egiten du lan komunikabideetan eta zer interesen zerbitzura? Bi ezaugarri nabarmentzen dira, gero eta lotsagabeago gainera: Batetik, haien gaineko kontrola botere ekonomikoak eta politikoak ezartzen du, komunikazio-enpresak eta informazioa eta iritzia sortzeko kanalak hegemonizatzen. Eta bestetik, eginahalak eta bi egiten dituzte gizarteko sektore eta interes garrantzitsuek tarte murrizta izan dezaten hedabide horietan. Horretarako, galarazi egiten dute sektore horien iritzia botere finantzarioak kontrolatutako komunikabideetan zabaltzea, eta, emititzeko lizentziak nahieran banatuz, mugatu egiten dute komunikabide alternatiboak sortzeko aukera. Modu horretara, proposamen alternatiboen berri jakiteko aukera ukatzen diote gizarteari.

Komunikabideen jokabide hori larriagotu egin da krisi garaian. Murrizketa-politikak gidatzen eta betearazten dituzten horien zerbitzura lan egiten dute komunikabide gehienek. Korporazio handiek, presio-taldeek (ekonomikoen eta patronalek), alderdi politikoek eta erakundeek eragiten dute kontrol hori komunikabideen gain, eta beraiek sortzen dute informazioa iritzi publikoa baldintzatzen saiatzeko.

Komunikabide publikoek salbuespen izan beharko lukete, eta aniztasunaren araua bermatu beharko lukete. Ordea, Hego Euskal Herrian hori ez da horrela izan. Unean uneko gobernuaren interesen bozeramaile eta beso bihurtu dira. ELAk kezka handiz egiaztatu du nola baliatu dituzten komunikabide publikoak, eta bereziki EITB, politika eta alderdi jakinen mesedetan. ELAren iritziz, EITBren berezko izaera, zerbitzu publiko izatekoa, desitxuratu dute agintean daudenek eta komunikabide publiko orok bete beharko lituzkeen balioak (objektibotasuna, inpartzialtasuna eta aniztasunarekiko errespetua) zangopilatu dituzte.

- EITBk informazioa hutsaltzearen aldeko hautua egin du, alde batera utzita bere eginkizun publikoa, eduki kulturalak eta pedagogikoak eta boterearen aurreko ikuspegi sozial kritikoaren osagaia. Kate pribatuei lehia egin nahirik-edo, haien edukiak imitatu eta programazio jakin bat lehenetsi du EITBk. Hala, informazio-eskaintza serioa eta zorrotza bazterrean edo bigarren mailan utzi du. Era berean, euskarak, gure kulturak eta gure nortasun-ikurrek

ez dute beharrezko babesik izan azken urteotan EITBn, eta jakina da bai gure hizkuntzak bai gure kulturak komunikabide publikoen premia dutela beren burua bultzatzeko eta garatzeko. Ildo berean, Estatuak hartutako erabaki bidegabeen ondorioz sortutako sufrimendua (sakabanaketa, tratu txarrak...) isilaraztearen aldeko hautua ere egin du EITBk.

- Kudeaketa-ereuari dagokionez, zerbitzuak pribatizatzearen alde egin du EITBk. Komunikabideak, ordea, bestelako apustu profesionala behar du, informazio-edukien gaineko kontrola ezarriko duena, eta pribatizatze horrek ez dio batere mesederik egiten xede horri. Azpikontratazioaren baliabidea, laneko prekarietatea eta izendapenak nahieran egitea izan dira lan-harremanen eredia egituratu duten ardatzak, eta, horien eraginez, ezin izan da aurrerapausorik eman Hitzarmen Kolektiboaren negoziazioan.

ELAk bere larrutan pairatu ditu EITBren jarrera politiko horren ondorioak, erakunde publikoak bereizkeria nabarmenez jokatu baitu gure sindikatuarekin. Hona hemen zenbait adibide hori egiaztatzeko:

- Lan esparruko albisteetan ELAri eskainitako denborak aztertu ondoren, nabarmena da desoreka. ELAk %40ko ordezkartza izan arren, informazio-tarteetan ez du, ezta hurrik eman ere, pareko proportziorik, ordezkartza txikiagoa duten erakundeen aldean. Jokabide hori ez da neutrala. Are gutxiago alderdi politikoek eta ekonomiak duten presentziarekin alderatuz gero. Alde horretatik, deigarria da krisiari buruz patronalak duen ikuspegiari EITBk ematen dion garrantzia.
- Esanguratsua da, halaber, ELAren mendeurreneko ospakizunen harira EITBko zuzendaritzak horren berri emateari uko egin izana. Bultzada politiko nabarmena adierazten du erabaki horrek. Muturreko jokabideetatik baino ezin da ulertu horrelakorik.
- 2002. urteaz geroztik, Eusko Legebiltzarrak urratu egin ditu arau demokratikoak EITBko Administrazio Kontseilua osatzerakoan, Kontseilu horretan egotea ukatzen baitio euskal gehiengo sindikalari, eta, aldiz, lekua egiten die gobernutik hurbilagoakoak diren erakundeei, nahiz eta ordezkartza txikiagoa izan.

ELAk bere egiten du komunikabide publikoak sendotzearen aldeko apustua, euskal gizartean dauden sentsibilitate politiko eta sozial guztiek aukera berdina izan dezaten beren iritzia hedabide horien bitartez plazaratzeko.

Hori guztia aintzat harturik, XIII. Kongresu Konfederalak ebatzi du:

1. Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari premia eskatzea komunikabide publikoak indar ditzatela informazio egiazkoa eta zorrotza bermatzeko beharrezkoak diren kontrolekin.
2. Eusko Legebiltzarrari premia eskatzea har ditzala hartu beharreko neurriak EITBren Administrazio Kontseiluak, inpartzialtasun eta independentzia printzipioei jarraituz, oinarri hauek berma ditzan: komunikabide publikoetan aukera-berdintasuna errespetatzea, inolako bazterkeriarik ez egotea eta, aldi

berean, gizaratean egoera ahulenean dauden sektoreei ahotsa eta adierazpidea ematea.

3. Euskal Herri osoan euskarak dituen hizkuntza-beharrizanak behar bezala betetzeko eskakizuna zorroztea eta sendotzea, gure kultura eta hizkuntza nazionalari bultzada sendoa ematen laguntzeko.
4. EITBri premiaz eskatzea ezar dezala protokolo bat gizarateko erakunde guztiek hedabide publikoetan lekua izateko duten eskubidea bermatzeko, haien ordezkariak errespetatuta.
5. Komunikabidea zuzenean edo zeharka pribatizatzeko ahalegin ororen aurka egitea. ELAK areagotu egingo du presioa eta salaketa saio horiek galarazteko. Era berean, komunikabidearen inpartzialtasuna urratzen duten jokabide guztien aurka ere egingo dugu.
6. EITBn diharduten gure militante-taldeekin hobeto koordinatzea, komunikabidearen joera kontrastatzeko eta elkarbanatzeko, baita bertan egin beharreko ekintza sindikala elkarrekin zehazteko ere.



ERAKUNDEA EGOKITU, NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAN ERAGINKOR IZATEKO

XIII. Batzar konfederalak berretsi du zein diren lan arloan eta negoziazio kolektiboaren arloan egindako azken erreformen eta gainetik ezarritako dekretuen helburuak: patronalari lanpostuen suntsiketa erraztea, soldatak txikitzea eta lan-baldintzak okertzea. Era guztietako enpresak, baita irabazi ikusgarriak dituzten asko ere, erreforma horiek baliatzen ari dira langileen eta soldaten murrizketak planteatzeko.

Erreformen bidez bertan behera utzi dute lan-zuzenbidearen berezko babes izaera hori, eta, modu horretara, enpresariak botere handiagoa eskuratu du eta, aitzitik, langileen eskubide indibidual eta kolektiboak ahuldu egin dira. Horren guztiaren ondorioz, lan munduak gizatasuna galdu du, izugarri galdu ere. Erreformen eraginez, langile asko eta asko erabat babesik gabe geratzen ari da. Enplegu publikoan baldintzak okertzen eta prekarizatzen ari dira, eta prozesu horiek erreferentzia negatibo bihurtzen ari dira sektore pribatuetarako eta pribatizatuetarako.

Rodríguez-Zapaterok (PSOE) eman zuen lehen urratsa, Estatuko hitzarmenei ahalmena eman zienean zer negoziatu ahal den eta non negoziatu ahal den erabakitzeko. Lan arloan eta negoziazio kolektiboaren arloan Raxoik ezarritako azken erreformaren eskutik, berriz, patronalak hainbat aukera du hitzarmen kolektiboetan jasotako eskubideak murrizteko edo indargabetzeko: besteak beste, hitzarmena ez aplikatzea, lan-baldintzak nabarmen aldatzea eta era horretara soldatak jaistea edota ultraaktibitatea bertan behera uztea, behin hitzarmenen indarraldia amaitzean lan-baldintzak hitzarmen okerrago baten arabera arautzeko -horrelakorik izango balitz-edota legean ezarritako gutxienekoen arabera bestela, hitzarmenik izango ez balitz.

Aurreko guztiaz gain, sektoreko hitzarmenetan funtsezko gaiei buruz ezarritakoa jada ez da derrigor bete beharreko gutxienekoa, aski baita enpresako hitzarmenetan jasotakoa betetzea, eta hori ere oso larritzat jo du Kongresu konfederalak. Izan ere, gaur egun, sektoreko hitzarmen bat sinatzeak jada ez du bermatzen hitzarmen hori beteko denik. Hori izan da, zalantzarik gabe, soldatak jaisteko eta lan-baldintzak okertzeko egin den aldaketarik gogorrenetakoa. Begien bistakoa da -baita publikoki hala adierazi ere- patronalak ez diola uko egingo bere printzipioei, ez eta legeak eskura jarritako aukerei ere. Eskatutako erreforma lortu du eta jada beste bat eskatzen ari da; hori ere eman egingo diote, ez izan zalantzarik. Errukirik ez duen seinale, langabezia erabiltzen du, gainera, xantaia egiteko.

Erreforma horien eraginez sortutako egoera egiturazko erronka da ELArentzat. Talde eta antolakunde garen aldetik, gure erronka da enpresa eta lantoki guztiak, handiak zein txikiak, benetako negoziazorako esparru bihurtzea, hori baita bidea enplegua, soldata eta lanaldiaren murrizketa defendatzeko, prekarietatearen aurka

borrokatzeko, laneko segurtasunaren eta osasunaren alde, genero-berdintasunaren eta abarren alde egiteko... Gainera, premia bizikoa da hitzarmenetan zenbait klausula gehitzea, ultraaktibitatearen galerari, hitzarmenak ez aplikatzeari eta malgutasunari aurre egin ahal izateko.

Ahalegin horretan, beraz, enpresa behartuko duten negoziazio-esparruak eskuratu behar ditugu, lotesleak, akordioak gomendio hutsean gera ez daitezzen. Eta sektore bakoitzaren eta enpresa bakoitzaren egoera aztertuz egin behar dugu hori. Kongresu konfederal honek garbi adierazi du ondo antolatutako ekintza sindikala eta enpresetan oinarri sendoak dituen dela neurri horretako erreformei aurre egiteko bide bakarra.

Erronka horri aurre egingo bazaio, funtsezkoa da, lehenik eta behin, sindikatuak delegatu guztiei, afiliatuei eta langileei argi eta garbi azaltzea erreformaren nondik norako guztiak, gordin, gauzak diren moduan. Arduragabekeriak jokatuko genuke baldin eta "sasi-konponbide" erosoan alde egingo bagenu, eskakizun eta zorrotasun gutxiagoz jardungo bagenu, horrek erabateko nagusitasuna emango bailioke patronalari, esparruak, denborak eta edukiak erabakitzeko, eta hitzarmen kolektiboan erabakitakoa ezartzeko.

Ez dago beste biderik: borroka sindikala antolatu behar dugu eta indar-korrelazio aldekoagoa lortu behar dugu, lantokietatik hasita. Lantokietan indarririk ez duen sindikalismoak ez du gaitasunik izango edozein esparrutan benetan eragiteko. Hori dela eta, ezinbestekoa da delegatuekiko lotura sendotzea, konpromiso militantea hauspotzea eta langileei beren hitzarmenaren protagonista izateko aukera ematea. Etorkizun hurbilean, sindikalizatuta dauden enpresetan baino ez da izango negoziazio kolektibo duinik, izen hori merezi duen negoziatorik.

Sindikalizatzeko, antolaketa-lana lehenetsi behar dugu: eginkizun horretarako prestatutako arduradunak behar ditugu, militantzia konprometitua behar dugu, baita afiliazio-maila nabarmena ere negoziazio-esparru bakoitzean. Horiez gain, beren lan-esparruetan eta sekzioetan gidaritza hartzeko prest dauden ordezkariak eta militanteak behar ditugu, baita lantalde sindikal eraginkorrak ere. Eta horretarako beharrezkoa da batzarrei balioa ematea eta batzar horiek lantzea; eta beharrezkoa da, orobat, informazioari, komunikazioari eta prestakuntzari garrantzia ematea.

Azkenik, antolaketa aldetiko erronka horrek guztiak eskatzen du gure egiturak egokitzea, modu horretara sindikalizatzeko lana ahalik eta baldintza onenetan egiteko aukera izan dezagun. Aurrera begira egin beharreko egokitzapen horietan asmatzea da giltzarria sindikatua etorkizunean eraginkorra izan dadin. Horrela izan da iraganean eta horrela izango da gerora ere.

Lan-harremanen esparrua langileentzako hain makurra eta kontrakoa izanik, XIII. Kongresu konfederalaren ustea da sindikatuak optimizatu egin behar duela antolaketa lana, bi lehentasun hauek ezarrita: enpresetan eta lantokietan laneko planak izatea eta militantei defentsa kolektiboa antolatzen laguntzea.

Zapatero eta Raxoiren gobernuari onartu beharreko erreformen gainean jarraibideak eman dizkieten patronal eta fundazioen lobbyek iragarri dutenez, "sindikatuak ez dira gai izango beren antolaketa egokitzeko eta enpresetan eraginkorrak izateko". Bada, ELAk bere gain hartu du iragarpen hori gezurtatzeko erronka ahal duen esparru guztietan.

Hori guztia aintzat harturik, XIII. Kongresu konfederalak ebatzi du:

- Lan arloan eta negoziazio kolektiboaren arloan enpleguaren suntsiketa errazteko, lan-baldintzak okertzeko eta defentsa kolektiboa indargabetzeko egin diren erreformak salatzea.
- Langileei erreformen munta eta eragina azaltzea, bereziki sektoreak gutxienekoen bermerik gabe uzten dituen erreformarena.
- Antolaketa sindikalak ekintza sindikala indartzeko duen balioa aldarrikatzea, eta militantziaren eginkizuna azpimarratzea eta goratzea.
- Lantokietan laneko planak gidatzeko ardura geure gain hartzea, plan horietan helburu hauek ezarrita: sindikalizatzea, indar-orekan posizioak irabaztea eta lan-baldintzak blindatzeko, mantentzeko eta hobetzeko negoziazio kolektiboa lortzea.
- Antolaketari buruzko hausnarketa zabaltzea, gure egiturak moldatzeko, eta, era horretara, eginkizun horretan eraginkorrakoak izateko.
- Negoziazio kolektiboa bultzatzeko eta lantoki guztietara (enpresa handi, ertain nahiz txikietara) eramateko erronka geure gain hartzea.

9

HEZKUNTZA-SISTEMA PROPIOAREN ALDE, LOMCEri EZ!

Espainiako gobernuak beste hezkuntza-erreforma baterako lege-aurreproiektua aurkeztu du. Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoaren (LOMCE) aurreproiektua, hain zuzen.

Testuan xedatutakoaren arabera, besteak beste, Espainiako gobernuak eskumena izango du irakasgai ardatzetako eduki osoa ezartzeko -gaur egun %55ean egiten du jada-, baita DBHko eta batxilergoko edukiak eta azken ebaluazioetako irizpideak zehazteko ere. Diseinu birzentralizatzaile horrek azken aizkorakada ematen dio erkidegoetako hezkuntza-sistemari, eta helburu politiko nabarmena du, hezkuntza ministroak berak garbi adierazi duenez: aurrerantzean estatuko hezkuntza-sisteman ikasten hasten diren belaunaldiak espainiartzea, bereziki Euskal Herriko eta Kataluniako gazteak jomugatzat harturik. Proiektuak, gainera, bigarren mailan, mendean, uzten du euskara, baita penintsulako beste hizkuntzak ere, eta, horrenbestez, arrisku larrian jartzen ditu murgiltze ereduak edo euskara komunikaziorako hizkuntza duten ereduak. Raxoiren hezkuntza-erreforma horrek, beraz, bide ematen dio hizkuntza-eskubideen urraketari.

Beraz, egitasmo etnozida bat onartzekotan da Espainiako gobernuak, erreformaren xedea ez baita besterik: espainiarra ez den identitate kultural eta nazional zantzurik txikiena lausotzea eta, ahal bada, deuseztatzea. Hogeita hamar urteko autogobernuan arlo horretan eta hizkuntza-normalizazioaren arloan egindako bidea desegin nahi du PPren gobernuak kolpe batean.

Testuak, gainera, merkatura begira jartzen du hezkuntza-sistema, lehen baino are gehiago. ELGEk eta beste zenbait erakundek azken hamarkada hauetan hezkuntza-politikan emandako jarraibideei men eginez, PPren proiektuak etorkizuneko eskulantzat hartzen ditu ikasleak, herritartzat baino lehenago eta, horrenbestez, lan-merkatuaren beharrezanetara, gaizki izendatutako lehiakortasunaren eskakizunetara eta herritarrak balio kontserbatzaileen mende jartzera egokitzen ditu hezkuntza-ibilbideak. Egiatzko hezkuntza-sistema demokratiko baten helburu behinenak, hala nola gazteen gaitasun kritikoa elikatzea eta haien garapen osoa bermatzea, erlatibizatu egiten ditu erreformak, iritzi publikoaren esparrutik hasita, eta legezko testu batean jasotzen du hezkuntza-sistemak enpresa pribatuaren beharrezan mende egon behar duela.

LOMCE, beraz, aurreproiektu zentralizatzailea da, atzerakoia gure autogobernurako, espainiar bihurtu nahi gaituena, dotrina jakin bat ezarri nahi duena eta klasista. Espainiako eskuinean oraino indarrean diren erregimen frankistako erreferentziak eta balioak sustatu eta goratzen dituen proiektua da, finean.

Kongresu konfederalak oso aintzat hartu behar du, gainera, zer testuingurutan gauzatu nahi duten hezkuntza-erreforma; izan ere, aurrekontuen murrizketa, gizarte eta lan arloko eskubideen aurkako eraso eta gizarte-zerbitzuen aurkako oldarraldi bete-betean bultzatu du PPK aurreproiektua. Ez LOMCEk ez hezkuntza arloko gaur egungo legeek eta araudiek ez dute bermatzen hezkuntzak Euskal Herrian behar duen garapena; ez dute bermatzen hezkuntzak eskatzen duen inbertsioa, behar besteko neurri eta baliabideen hornidura (langileak, eskola-orduak, ikasgelako ikasle-ratioak...), profesionalen prestakuntza edo hezkuntza-maila guztien doakotasuna.

Inposizio eta murrizketa horiek guztiek ikasleen eta gizarte osoaren etorkizuna baldintzatzen dute. Horrenbestez, hezkuntza-sistema propioa behar dugu ezinbestean, beharizan horiei guztiei erantzuteko eta gure hezkuntzaren kalitatea nabarmen hobetzeko. Eta horretarako, behar diren bitartekoak jarri behar dira.

ELAren aldarrikapena da Euskal Herriak ahalmena izan behar duela hezkuntza-sistema inklusiboa, unibertsala, kalitatezkoa eta euskalduna erabakitzeo, eta inbertsio publikoak, gutxienez, Europar Batasuneko batez bestekoaren parekoa izan behar duela sistema horretan. Era berean, hezkuntza-komunitateak eta gizarte osoak erantzun irmoa eta erabatekoa eman behar du, hezkuntzaren “kontra-erreforma” egiazko hori geldiarazteko. Hori da ELAren apustua. Halaber, hezkuntza arloko lege propioak egiteko eskatzen dugu, eta lege hori Euskal Herriko ikasgeletan inoiz ez aplikatzeko exijitzen.

Hori guztia aintzat harturik, XIII. Kongresu konfederalak ebatzi du:

- LOMCEren aurkako mobilizazioak bultzatzea eta horietan parte hartzea. Xedea da asmo zentralizatzaile horiei aurre egitea, hezkuntza-sistema propioa aldarrikatzea, ikasle guztien euskalduntzea ziurtatzea eta Madrilgo nahiz Hego Euskal Herriko gobernuek ezarritako politika murriztaileei kontra egitea.
- Hezkuntza arloko langileekin eta komunitate guztiarekin lan egitea lege horrek Hego Euskal Herriko ikasgeletan eraginik izan ez dezan.
- Gobernuei eta alderdi politikoei exijitzea aurre egin diezaiotela lege horri eta ez dezatela aplikatu Euskal Herrian, eta, orobat, lan egin dezatela hezkuntza-sistema inklusibo, unibertsal, kalitatezko eta euskaldun bat sortzearen alde.
- Gizarte-zerbitzuetan, eta bereziki hezkuntzan inbertsio publiko handiagoa egin dezatela exijitzea, Europako mailan kokatu ahal izateko.

